


hiruka

Udako berezia 149. zenbakia
2019ko uda



Badatoz!



URIBE
KOSTA




CASA DE MARINOS Uribe Kosta Hotela eta Jatetxea


Sukaldaritza berritzailea
imajinatzen ez duzun inguruan!



946 774478



CasaDeMarinosUribeKosta



@ElHotelito



www.casamarinos.es



uribekosta@casasdemarinos.es

Erribera, 13 • Plentzia • BIZKAIA

hiruka

HIRUKA kooperatiba elkarte

Helbidea: Martikoen, 16, 2.a · 48992 GETXO

e-posta: hiruka@hiruka.eus

Posta-kutxa: 171

Telefonoa: 944 911 337

Publizitatea: Maria Gorostiola

Erredakzioa: Unai Brea, Iker Rincon,
Hodei Torres

Diseinua: Artefakto

Administrazioa: Ziortza Merino

Azaleko irudia: Alex Orbe

Filmazioa eta Inprimategia: Comeco Gráfico

Lege-gordailua: BI-2022-2014

ISSN: 2386-98-95

Ale-kopurua: 5.000

CC-BY-SA

Jaiien arimari gorazarre

Erakunde laguntzaileak



foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru
Aldundiaren laguntza jaso du.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura eta Hizkuntza Politika
Sailak (Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Etorri zaigu uda, eta papereko edizioa-
ri atsedentxo emango dio HIRUKAk.
Irail erdialdean bueltatuko da hila-
betekaria, baina ez ohiko edukiakaz;
izan ere, zerikusi handia izango du
esku artean duzun aldizkari honen
gai nagusiagaz. Hau da, udako jai-
kaz. Egin ezazu pare bat orrialde au-
rrera eta horren lagin txikia aurkituko duzu. San
Juan eta San Pedro jaietan Barrikan, Leioan eta
Sopelan egindako argazki esanguratsuenak bildu
ditugu zuentzat; irailean izango dituzue ikusbide
eskualdeko festa nagusietan ateratakoak. Baina
ez genuke erretratugile-lana osorik geureganatu
gura. Azken urteetan legez, zuen udako bizipenak
argazkien bitartez erakustera gonbidatzen zaituz-
tegu. Sari ederrak zozkatuko ditugu parte hartzen
dutenen artean! Informazio gehiago topatuko du-
zue aldizkari honen amaieran.

Uribe Kostako jai gehienek egitarauak jaso ditu-
gu udako zenbaki berezi honetan, baina ez denena,
zoritxarrez. Hainbat arrazoi direla eta, ez duzue he-
men aurkituko ez Lemoizko ez Urdulizko andrama-
rien iragarpenik. Guregana ailegatu ahala, HIRUKA.
EUS-en bitartez zabalduko ditugu egitarauok, baita
gure App-aren bitartez ere. Gainerako arloei dagokie-
nez ere, uda osoan egunero informatzen jarraituko
dugu gure webgunearen bidez.

Amaitzeko, eskerrik beroenak zenbaki berezi hau
egiten lagundu diguten horiei denei: informazioa
eman diguten jai-batzordeei, kultur etxeei eta tal-
deei, publizitatea erosi dutenei, azaleko irudi ederra
egin duen Alex Orberi, eta, noski, proiektu honen
ardatz zaretan HIRUKAren bazkide eta HIRUKA-
lariak. Ez ahaztu egunero-egunero HIRUKA dositxo
bat hartzeaz, eta uda on den-denoi! ◀

Hiruka

Banaketa-lekuak

Sopela

Patukos denda
Volker taberna
Laboral Kutxa
Informazio-puntua Sopela
La Triangu
Laiak taberna
La Croissanterie
Hamilton akademia
Udal euskaltegia
Sopela kiroldegia
Ander Deuna ikastola
Galp gasolindegia
Ugari supermerkatua
Mara-Mara Txiki
Artolozaga anaiak tailerra
Sopela BHI
Tucan Prensa y revistas
Laubide pinturak

Kurtzio kultur etxea
Lurren kafe-taberna
Udal liburutegia
Puertas y Armarios Sopela
Elgezabal okindegia
Udaletxea (hall)
Sopela Osasun Zentroa
Zipiriñe eskola
Maite prentsa
Oinutsik podologia
Larrabasterra
Barinatxe taberna
Zutarri taberna
Uribe Kostako Mankomunitatea
Udal-bulegoa
Miren Denda
Urko Prentsa Yako
Autoservicio Javier
Urko kiroldegia

Barrika

Iparralde taberna
Milagros
Prentsa estankoa, janaria
Itsagane jatetxea
Batzokia
Barrikako liburutegia
Golfo Norte
Osasun Etxea
Eloisa Artaza nagusien etxeko taberna
Barrikako Udala

Getxo

Algorta
Alango kafetegia
Goikoa taberna
Osasun Etxea
“De todo un poco” delicatessen
Kontxi delikatesen
Hire Ondoan
Prensa y Revistas Maite
Egunkariak
Tangora etxea
Batzokia
Jose Antonio Agirre euskaltegia
AitaMari taberna
Her arropa-denda
Muxuz muxu arropa-denda
Kaixo Taberna Gastrobar
Unai Taberna
Damaso eta Lorena kioskoa
Gasolindegia Petronor Algorta
Getxoco
Begotxu arropa-denda
Medikosta
Laiseka estankoa
Nikkou jatetxea
Jolas Aurre kafetegia
Bar Ereatxu
San Nikolas ikastola
Getxo I institutua
Kala
Aterki taberna
Algortako Skaut taldea
Euskara Zerbitzua
Aldai Tapizeria
Ekia Taberna
The Piper’s Irish Pub
Satisfestegi taberna
Burdinola taberna
Saniko taberna
Laubide taberna
Boga taberna
Tres Bien gozotegia
Abian Kultur Elkartea
Trujipan
Osabide hartz-klínika
Patxeko I taberna
Fadura institutua
Elo liburudenda
Igeretxe hotela
Getxoko Turismo Bulegoa
Harategia
Getxoko Udala
Getxoko Hirigintza Arloa
Epaitegiak
Gaztelu taberna (Getxo Rugby)
Alkartetxea
Tximeleta jatetxea
Mexico taberna
Golden Horse
Danena
Fernandos
Arana

AEK Lauaxeta
Aretxaurre taberna
Gaurko
Kukumiku prentsa
Zabala Udal Bulegoa
Zabala eskola
Aldai Patronatua
Ugartena taberna
Prentsa Txutxerriak
Servitec Lacofris
Mungia okindegia
Bodega Otxoa
Fadura kiroldegia
Fadura kiroldegiko taberna
HIRUKA
Lopetxene taberna
Landa taberna
Bar Baster
Itsasbide taberna
Portu Zaharra taberna
Hator taberna
Salsidu taberna
Andres Isasi musika-eskola
La Tahona de Wicha
Mggys Farm
La Plaza
San Nikolas liburutegia
Kioskoa
Ajuria taberna
Patxeko II taberna
Bikain jatetxea
Bodeguilla Butroi
Las Barreras taberna
Taberna Berri
Zodiacos kafetegia
San Inazio autoeskola
Quop
Sonia loradenda
Maga Calzados
Kantxa Kirol Moda
Eskarria mariskeria
Irati moda
Correos Algorta
Pinpiriña apaingarriak
Quetenque tailerra
Lainoa taberna
Getxoko gaztelekua
Villamonteko kultur etxea
Proplanos
Areeta
Kioskoa
La Granja Delicatessen
Cosmopolita kafetegia
Oku Lounge
ELA
Batzoki Ondarreta
Areeta anbulatorioa
La Reja taberna
Getxo Hizkuntza Eskola
Kioskoa
Kukupraka udal-ludoteka
Bai & By

Etxezuri taberna
Kioskoa
Oxford Language School
Plaza Areeta
La Gabarra taberna
Bolibar Liburudenda
The Willows
Juan Mari Harategia
Andres Isasi musika-eskola
Getxolan
Zotz taberna
Aremuna kafetegia
The Health Company
Zubikoa psikoterapia
Andra Mari - Bidezabal
La Txoko
Bidezabal Osasun Etxea
Getxogaso
Getxogaso
Itxas Argia dantza-taldea
Geroa ikastola
Batzokia
Malakate taberna
Eskubeltz Eskaut Taldea
Andra Mari ikastetxea
Getxo III Institutua- Aixerrota
Haizea taberna
Layback Arrigunaga

Ilunabar taberna
Goizean prentsa
Larra taberna
Andra Mari kiroldegiko kultur etxea
Itzurbaltzeta/Romo
Gure Etxea taberna
Branka Herriko Taberna
Mara Mara
La Mona taberna
Vitaldent
Koldo taberna
Udal Euskaltegia

Gobela kiroldegia
Gobela liburutegia
Arenas Berria
Topa taberna
Juantxu fruta-denda
Neguri
Gobela ikastola
Itxas Gane kioskoa
Skipper taberna
Silverns tavern
Neguri Geltokiko kioskoa
Zurikaldai

Urduliz

Regi taberna
Urduliz Osasun Etxea
Txiberri taberna
Elortza eskola
Herriko Taberna
Xiripot kioskoa
Udaletxea
Kultur etxea
Kumara Zentrua
Batzokia
Aioberri sagardotegia
Egan argazki-denda
Tximeleta taberna
Alegria harategia
Gozoki Denda
Las Palmeras jatetxea
Nagusien Etxea
Txozna jatetxea

Gorliz

Udal-eraikina
Noho okindegia
Udaletxea
Turismo Bulegoa
Okindegia, turismo ondoan
Hondartzape
Xurru taberna
Bizkarletti taberna
Nagusien etxea taberna
AEK
Light House Tavern
Batzokia
Trujipan okindegia
New tavern pub
Gorliz anbulategia
Gorliz ikastetxea
Gorlizko ospitalea
Kultur etxea
Kioskoa
Uribe FM

Leioa

Udaletxea
Amaia car
Artaza Romo institutua
Betiko ikastola
Artatza ikastetxea
Autos Amabe / Bikar Motor
S. Bartolome kultur etxeko taberna
Leioa Wagen / Leioa Motor
Lamia AEK euskaltegia
Mercedarias de la Caridad
EHU
Lamiakoko kultur aretoa
CCPI Getxo-Leioa
Leioa Osasun Etxea
Altzaga ikastola
Batzokia
Udal euskaltegia
Txomin Aresti ikastetxea
Laboral Kutxa
Laboragune
Udal Liburutegia
Kultur Leioaren hall sarreran
Euskara Zerbitzua
Pinueta kultur aretoa
Iturribide kioskoa
Jose Miguel Barandiaran
Lore-etxea taberna
Oinazpi zapata-denda
Acuaría Prensa
Sakoneta kiroldegia
Kurkudi Herriko Taberna
Okinder okindegia
C.E.I.P. San Bartolome
J. M. Barandiaran institutua
General Optica (EHU)
Txorierri kultur etxea
EHU Liburutegia
Baserri taberna

Gorrondatxe

Barinatxe

Arrietara

Meñakoz

Billano

Muriola

Barrika

Sopela

Larrabasterra

Getxo

Berango

Fadura

Algorta

Neguri

Areeta

Itzurbaltzeta/Romo

Lamiako

Astrabudua

Unibertsitatea

Goierri

Erandio

Erandiogoikoa

Gorliz

Lemoiz

Elexalde

Andraka

Plentzia

Isuskitza

Uribe Kosta **jaietan**

Lemoiz

Andrakako sagardotegia
Armintza Osasun Etxea
Begotxu jatetxea
Batzokia
Txorrope taberna
Portu Zaharra taberna
Lemoiz eskola
Lemoiz Osasun Etxea
Ama Terra taberna
Arrantzale taberna
Kultur etxea
Udaco Super

Plentzia

Bibi taberna
La kanal taberna, Hotel Kaian
Gorrondona taberna
Socaire taberna
Plentzia gozodenda
Izarraitz taberna
Taberna Plentzia
Udaletxea
Plentziako anbulatorioa
Kultur etxea
AEK euskaltegia
Batzokia
Casa Marinos Hotel
Restaurante
Pirata Matxin denda
Izozkiak denda
Uribe Kosta BHI
Plentziako Liburutegia
Plasentzia Butroi Museoa
Batela taberna
Zua Zua
Txoriona oilaskoak
Santis taberna
Gurea taberna
Iturgitxi taberna
Biritxi taberna
Kurrusku okindegia
Kai Eder
Pauli erretegia
Zubiko kioskoa
Danontzat gaztetxea

Erandio

Altzaga
Udal Euskaltegia
Osasun Etxea
Udala
Euskara Zerbitzua
Jado Compasion ikastetxea
Batzoki
KZ gunea
Ziaboga taberna
Garabiak Tatto
Altzaga ikastola
Moraleja kioskoa
Okindegia Obieta
Izarra taberna
Herriko Taberna
Jado
Erandioko kiroldegia
Tartanga institutua
ANA denda
Astrabudua
Astrabuduako kiroldegia
Ikusi Makusi kiosko
Luberri Basolanak
Osasun Etxea
Batzoki
Etxegorri okindegia
Kultur etxea
Laboral Kutxa
Trabudu taberna
Asua
Kioskoa
Erandiogoikoa
Dandaka taberna
Goierri
Motabarri
Motagane txakolindegia

▶ Berango	
Uztailak 26-28	
SANTA ANA JAIAK	26
Abuztuak 2-5	
SANTO DOMINGO JAIAK	33
Abuztuak 11	
BAKAILAO JAI HERRIKOIA	33

▶ Erandio	
Uztailak 10-14	
SAN KRISTOBAL JAIAK Goierri	12
Uztailak 19-21	
ASUAKO JAIAK	15
Abuztuak 5-11	
SAN LORENTZO JAIAK Astrabudua	38
Abuztuak 14 eta 15	
ANDRAMARIAK Erandiogoikoa	44
Abuztuak 17 eta 18	
SANTIMAMIKO JAIAK	46
Abuztuak 28-irailak 1	
SAN AGUSTIN JAIAK Altzaga	48

▶ Getxo	
Uztailak 12	
BERTSO JAIALDI MUNDIALA	13
Uztailak 25	
AIXERROTAKO PAELLA-EGUNA	22
Uztailak 19-21	
SANTA ANA JAIAK Areeta	27
Uztailak 27-31	
SAN INAZIO JAIAK Algorta	28
Uztailak 28-Abuztuak 4	
ITZUBALTZETAKO JAIAK	34
Abuztuak 10	
SAN LORENTZO AZOKA Algorta	37
Abuztuak 10-15	
PORTU ZAHARREKO JAIAK	40
Irailak 4-29	
GETXOPHOTO JAIALDIA	53

▶ Gorliz	
Uztailak 4-7	
DASTATUARTE	12
Uztailak 24-28	
SANTIAGO JAIAK	24
Abuztuak 2-5	
ANDRAMARIAK	37
Abuztuak 10	
SAN LORENTZO EGUNA	37
Abuztuak 18-20	
UREZARANTZAKO JAIAK	46

▶ Leioa	
Uztailak 28-Abuztuak 5	
PINUETAKO JAIAK	34
Abuztuak 17 eta 18	
SANTIMAMIKO JAIAK	46
Abuztuak 23-25	
SAN BARTOLOME JAIAK	47
Irailak 6-15	
ANDRA MARI JAIAK Ondiz	52
Irailak 10-14	
UDONDOKO JAIAK	52

▶ Lemoiz	
Uztailak 11-16	
KARMEN JAIAK Armintza	18

▶ Plentzia	
Uztailak 6-10	
SAN KRISTOBAL JAIAK	14
Uztailak 8-13	
HISTORIA JARDUNALDIAK	15
Uztailak 13-16	
KARMEN JAIAK	20
Uztailak 20-23	
MADALENAK	20
Uztailak 26 eta 27	
MIKROFILM JAIALDIA	23
Uztailak 29	
SARATXAGAKO JAIAK	32
Uztailak 31	
SAN INAZIO JAIAK	32
Abuztuak 9 eta 10	
AGORRIJAZZ JAIALDIA	46
Abuztuak 29-Irailak 3	
SAN ANTOLIN JAIAK	50

▶ Sopela	
Uztailak 12-16	
KARMEN JAIAK Larrabasterra	16
Uztailak 20	
SANTA MARINA EGUNA	21

▶ Urduliz	
Uztailak 13	
RABU EGUNA	15
Uztailak 20	
SANTA MARIÑEKO JAIAK	21
Abuztuak 24	
ANDRA MARI JAIENTAKO XXVI. NEKAZARITZA AZOKA	44

▶ Argazki-galeria	
SAN JUAN eta SAN PEDRO jaien irudiak	6

▶ HIRUKA app	
APLIKAZIOAREN GAINKO NONDIK NORAKOAK	43

▶ Hirukira Olgetan	
UMEEI BEGIRAKO DENBORA-PASAK	54

▶ Udako Argazki lehiaketa	
BIDALI ZURE ARGAZKIA ETA LORTU SARI ITZELAKI	58



Udako lehenengoek utzitakoak...

Udari ondo-etorria emateko lehenengo jaiak izan dira Leioa eta Barrikako sanjuanak. Bertara gerturatu ginen, horren lekukotza orriotara ekartzeko. Leioan, kuadrillen jaisierako 60 talderen irudiak bildu genituen; Barrikan, berriz, San Juan sutzarra piztu eman aurretik Deabru Beltzak taldeak egindako ikuskizunari eman genion arreta. Azkenik, Sopelako San Pedro jaietako kuadrillak ere harrapatu genituen, haien espektakuluak zuokaz konpartitzeko.

TESTUAK: ERREDAKZIOA ARGAZKIAK: IKER RINCON MORENO · UNAI BREA ►











GORLIZ | Dastatuarte food & art jaialdia

Belarri, begi eta mingainez gozagatzeko aukera paregabea

Iaz estreinaldi arrakastatsua egin ostean, bigarren edizioa egingo du Dastatuarte jaialdiak, gastronomia eta artea uztartzeko errezetari eutsiz. Aurten, gainera, egun bat gehiago izango du ekimenak.

UNAI BREA ►


Umore Gauak eta Dastatu Gorliz ekimenak elkartzetik jaio zen iaz Dastatuarte food & art festibala. Ezin hobeto suertatu zen lehenengo saioa, eta arrakastak bul-tzatuta aurten egun bat gehiago hartzea erabaki dute; hala, eguenetik domekara bitartekoa izango da ekimena. Zoritzarrez, jaialdiaren lehenengo eguna igarota egongo da HIRUKA berezi honek argia ikusi orduko, eta hain zuzen ere horrexegatik ez ditugu egun horretako egitarauak txertatu aldamenen du-zuen egitarauan. Izan ere, programazio mardula du Dastatu-arte, eta gainerako egunetako ekintza gutxi batzuk ere kanpoan utzi ditugu. Edozelan ere, jaialdiaren webgunean kontsulta di-tzakezue modu errazean, baita gure App-ko agendan ere.

Antolatzaileek azaldu dutenez, iaz denbora-faltagatik behar bezala gozatu ezin izan ziren hainbat ekintza sartu dituzte aur-tengo egitarauan, gura duen edonork gozatu ahal izateko. Mul-tzo horretakoak dira, esaterako, talo-tailerra, koktel-txapelketa, Tito Blas artisautzazko garagardo-fabrikara bisita... Artegune Gastrogunea ere izango da berriro, artisautzazko eta gastron-miako hamaika produktu erosteko aukera eskainiko duen gu-nea, San Pedro plazaren inguruan.

EUREKA! GUNEA, BERRIKUNTZETAKO BAT. Aurtengo nobeda-deen artean, berriz, urdaiazpiko-, ostra-, moule- eta ardo-das-taketa, «Txokolatearen Mundua» tailerra eta Sertutxenak koka-tuko duten Eureka! gunea daude. Azken horretan, Makey Makey sormen-esperientzia elektronikoa bizitzeko aukera izango da, baita ere Martin Abrisketaren *El país escondido* liburuaren aur-kezpenean egoteko eta Inés Bermejoren pintura-erakusketa ikusteko. Azken horri dagokionez, uztailaren 1etik 7ra egongo da ikusbide, baina 5ean egingo dituzte inaugurazioa eta bisi-ta gidatua. Azkenik, familiagaz edota lagunakaz dibertitzeko, Rally Ipad Dastatuarte proba-sorta umoretsua izango duzu.

Esan barik doa gauetan ez dela ikuskizunik faltako. Bari-kuan, berbarako, Dastatuarte Reggae Night musika-emanaldia izango da, eta zapatuan Juanma Gonzalez mentalistaren ikuski-zuna, «*Got Talent*-eko epaimahaia ere liluratu zuena», jaialdi-aren antolatzaileen berbetan. Musika-ikuskizun ederra eskaini-ko dute ere Karla Imbertek eta Amaia Arrizabalagak, baina ez gauez, domeka eguerdian baizik. Ahots biko duoa osatzen dute Imbertek eta Arrizabalagak, gitarra akustikoagaz eta kutxa fla-menkoagaz lagunduta.

DEMEKAN, SALMENTA SOLIDARIOAK. Jaialdiaren akabuko eguna da, era berean, Dastatuarte elkartasunerako aukeratu duena. Alde batetik, akuarela bat margotzen irakatsiko dute, eta egindako koadroa zozkatuko egingo dute ondoren, txartela hiru euroan salduz. Geroxeago, bazkalorduan, paella solidarioa ba-natuko dute euro baten truke. Modu bi horietan batutako dirua adingabeko transexualen familiek osatutako Naizen elkarteari emango diote. ◀



© EZ DOK HIRU

Uztailak 5, barikua

- 17:00** Rally IPAD Dastatuarte, Ibarreta plazan. Aldez aurretik izena eman beharra dago. 18:00etan eta 19:00etan ere egingo da.
- 18:00-21:00** Itsuan egindako izozki-dastaketa, Ibarreta plazan. Aldez aurretik izena eman beharra dago.
- 18:00** Tailerra: txokolatearen mundua. Aldez aurretik izena eman beharra dago. San Pedro plazan.
- 18:30** Martin Abrisketaren *El país escondido* liburuaren aurkezpena, Sertutxenako Eureka! gunean.
- 19:00** Inés Bermejoren erakusketaren inaugurazioa, Sertutxenako Eureka! gunean.
- 19:30** Dastatuarte kalejira, Ibarreta plazatik.
- 20:00** Talo-tailerra eta ondoren salmenta, elizako plazan. Aldez aurretik izena eman beharra dago.
- 20:00** Munduko saltxitxa-ogitartekoak, elizako plazan.
- 20:30** Ardo- eta pintxo-dastaketa musikatua, herriko hainbat tabernatan. Aldez aurretik izena eman beharra dago. 12 euro.
- 22:00** Dastatuarte Reggae Night, Elizako plazako karpan. Aiala abeslaria & Glamity Sound, Krianza Sound eta Weepah Sound System.

Uztailak 6, zapatua

- 10:00** Gosari kontzientea, *mindful eating*. Pinudian. Aldez aurretik izena eman beharra dago.
- 11:30-13:30** Makey Makey, Sormen elektronikoko esperientzia. Sertutxenako Eureka! gunean. Ordu erdiko lau saio egingo dira. Aldez aurretik izena eman beharra dago.
- 12:30** Moda jasangarriko umeen desfilea, Jose Antonio Agirre plazan (Osasun Etxea).
- 12:30 eta 23:00** Tito Blas Brewing. Upeleko garagardoa dastatzea eta fabrikara bisita. Sagastikoetxe poligonoan. Kaña 1,5 euroan.
- 12:30** Itsuan egindako dastaketa: ezagutu jaki eta

edariak begiak itxita. San Pedro plazan. Aldez aurretik izena eman beharra dago. 7 euro.

- 19:30** Frutadun plater artistiko eta osasungarriak egiteko tailerra, Ibarreta plazan.
- 19:30** Step Up dantza-eskolaren ikuskizuna, Ibarreta plazan.
- 19:30** Kokteleria-tailer eta txapelketa herrikoia, Elizako plazan. Aldez aurretik izena eman beharra dago. 6 euro.
- 20:00** Talo-tailerra eta ondoren salmenta, elizako plazan. Aldez aurretik izena eman beharra dago.
- 20:00** Munduko saltxitxa-ogitartekoak, elizako plazan.
- 20:30** Lirain abesbatzaren kontzertua, San Pedro plazan.
- 22:00** The Mentalist: Juanma Gonzalez. Eliz plazako karpan.

Uztailak 7, domeka

- 11:00** Berbaldia: «Kimikoei beldurra eta elikagai guztiz naturalak», Olatz Bilbao Lasaren eskumenez, udal-bilkuren aretoan.
- 12:00** Urdaiazpiko eta ezkur-paleta iberiarraren ebaketa-erakustaldia eta dastaketa. Eliz plazako karpan. Aldez aurretik izena eman beharra dago. 4 euro.
- 12:30** Akuarela-masterclassa, elizako plazan. Koadroa zozkatuko da (txartela 3 euroan). Lortutako dirua Naizen elkarteari emango diote.
- 12:30** Hitzordu itsua liburu batez, Literohituraren eskumenez. Eliz plazako karpan.
- 13:30** Kontzertua: Karla Imbert & Amaia Arrizabalaga. Elizako plazan.
- 14:00** Paella solidarioa, euro batean. Lortutako dirua Naizen elkarteari emango diote.
- 14:30** Gitarra-ikuskizuna, elizako plazan.

GETXO | Bertso Jaialdi Mundiala

Puntako bertso ikuskizuna, uztailaren 12an, Algortan

Aurten ere, puntako sei bertsolarik jardungo dute ALBE bertso-eskolak antolatutako Bertso Jaialdi Mundialean. Hitzordua Muxikebarri Antzokian ipini dute, uztailaren 12an, 21:00etatik aurrera.

IKER RINCON MORENO ▶

Hogei urte pasako dira aurten Algortako Bertso Eskolak Bertso Jaialdi Mundiala antolatzen hasi zenetik. Lehenengo saioa 1999an egin zuten, beti ere «zerbait desberdin» egiteko asmoagaz. Oraingo honetan, Alaia Martin (Oiartzun), Sustrai Colina (Urruña), Jon Maia (Zumaia), Julio Solo (Gorriti), Unai Iturriaga (Durango) eta bertoko Imanol Uria izango dira sei protagonistak. Ohi denez, gai baten inguruan garatuko da saioa, baina antolatzaileek ez dute azken momentura arte jakinaraziko zein izango den gai hori. Horretarako ardura Arrate Illarok izango du.

Antolatzaileek jakinarazi dutenez, daborduko eskuragarri daude bertso-saioa joateko gonbidapenak; hala ere, pertsona bakoitzak bi eskuratu ahal izango ditu gehienez. Sarrera horietakoren bat eskuratu gura dutenek Villamonteko edo Romoko kultur etxeetara jo beharko dute, gune bi horien udako ordutegiaren barruan. Era berean, berandu dabiltzanek saioaren egunean bertan ere eskuratu ahal izango dute horietakoren bat, takila saioa hasi baino ordu bi lehenagotik egongo baita zabalik. Jesarlekuak ez dira zenbakituta egongo, arduradunek argitu dutenaren arabera.



Aurtengo saioa Algortako Muxikebarri Antzokian izango da.

Gonbidapenak Villamonte eta Romoko kultur etxeetan jaso daitezke, doan.

Azken egunotan iragarri bezala, «herriaren mundiala izango da aurtengo», ohartarazi dute antolatzaileek, «herritarren presentzia, saioaren aurretik zein saioan zehar, inoiz baino garrantzitsuagoa izango baita». Hori dela eta, bertso-saio *mundial* horretara hurbiltzeko eta horretan, nolabait, parte hartzeko deia egin diete algortar zein inguruko herritar denei: «Herriaren mundialak herri mundialaren indarra behar du!». ◀

getxo
FOLK
BBK 2019

35. Nozioarte Folk Jaialdia
Festival Internacional de Folk

iraila 5-8 septembrie

Areetako geltokia
plaza
Estación de Las Arenas

**ORDAINPEKO SAIOAK
CONCIERTOS DE PAGO**

5 osteguna / jueves 10€
THE NAGHASH ENSEMBLE
+ Alos Quartet 20:00

6 ostirala / viernes 8€
MARTA GÓMEZ
+ Javier Rubial 21:00

7 larunbata / sábado 25€
MARIZA 21:00

8 igandea / domingo 10€
SKERRYVORE 20:00

ABONAMENDUA / ABONO 45€

ORDAIN SAIOAK CONCIERTOS GRATUITOS

5 osteguna / jueves 18:00
ALOS QUARTET

6 ostirala / viernes 19:00
CA NHO

7 larunbata / sábado 19:00
OWENNYN

8 igandea / domingo 18:00
MC ONAK

Munduko terraza
ROMO
Terraza del mundo

6 ostirala / viernes
MARICHA 20:00

7 larunbata / sábado
SANTU KOLONE 18:00
Banda osasuntsuak eta besteak eta beste

8 igandea / domingo
TALLER UERLER 15:00
Bertsoa osasuntsuak eta besteak eta beste

GAINERA: BANDEN DESFILEAK, MUNDUKO ESKULAREN AZOKA, GUNE SOLIDARIOA ETA MUNDUKO TERRAZA.

ADIBES: DESFILES DE BANDAS, MERCADO DE ARTESANIAS DEL MUNDO, ESPACIO SOLIDARIO Y TERRAZA DEL MUNDO.

SAITORIAK / PUNTOS DE VENTA
Algortako Kultur Bidea, Villamonte, 4-5 - 94 491 40 80
Romoko Kultur Bidea, Santa Eugenia, 1 - 94 565 00 22

www.getxo.eus | kulturak@getxo.eus

prentsa euskaraz, pentsa euskaraz!

Zu zara giltza!

Egunero abentura egin ederragoan murgiltzen gara euskal prentsa egiten dugunok. Bidaia herretan ezinbesteko lagun Zeitugu zu, euskaraz bizi, euskaraz amastu, euskaraz pentsatu gura duzun hori. Izan zaituzte gure bidaide, izan zaituzte HIRUKAlegun!

Abentura honetako kide izateko: administrazioa@hiruka.eus

hiruka

ERANDIO | San Kristobal jaiak

Goierri auzoari dagokio txanda

Ekainean hasten da Erandioko auzoen jai-maratoia, eta uztailean ere ez du etenik izaten. Lehenengo aste-akabuan Arriaga da festa-giroan murgiltzen dena, eta Goierrik hartzen dio erreleboa San Kristobal egunaren bueltan. Zehazki, Madalena auzoko basilizaren inguruan egiten dituzte jaiak. Goierriin egonda, ezin soka-tirarik falta, eta ez edozelangoa gainera: Lur Gaineko Euskadiko Txapelketaren tiraldiak egingo dituzte 560 kiloko mailan. Erandioko Goiherri eta Akelarre klubez gainera, Mutriku, Getxo eta Laukizko Gaztedi A eta Gaztedi B taldeek jardungo dute lehiaketa horretan. Azken egunean egingo dute proba hori, uztailaren 14an; aipatzekoa da, bestalde, egun berean egingo den auto eta moto klasikoen topaketa eta ibilbidea.

**Uztailak 10, eguaztena**

12:30 Meza.
13:00 Hamaiketakoa, auzoko nagusientzat.

Uztailak 12, barikua

18:30 Suziri-jaurtiketa.
18:30 Umeen igoera Ibarresetik San Kristobalera.
19:00 Jagoba Bilbaoren omenezko XIV Txinbera Lehiaketa.
00:00 Musika txosnan.

Uztailak 13, zapatua

18:00 Puzgarriak.
19:00 Gazteen herri-kirolak.
21:00 Saiheski-jana. Doakoa. Goiherri sokatira-taldeak eta Jai Batzordeak antolatuta.
21:30 Kontzertua: Enbata.
23:00 Gaupasa Bidean taldeagaz.
02:30 Disko-festa: DJ Markelin.

Uztailak 14, domeka

09:00 Kotxe eta moto klasikoen topaketa: izen-ematea.
11:30 Lur Gaineko Euskadiko Soka-tira txapelketa: 560 kiloko maila.
12:00 Ibilgailuen ibilaldia.
12:30 Eliz ospakizuna.
13:00 Dantzak Goi-Alde taldearen eskutik.
14:00 Helmuga eta sari-banaketa.
18:00 «Olgetan solas», familia-arteko kirol-jolasak.
18:30 Asto-probak.
21:00 Jaien amaiera.

PLENTZIA | San Kristobal jaiak

Udari hasiera emango diote Gatzamiñen



Itxas Eder dantza-taldeak emanaldia egingo du San Kristobal egunean, uztailaren 10ean. HODEI TORRES

Iruñean baileuden, uztailaren 6 eta 7ko aste-akabua aukeratu dute Plentziako Gatzamiñe auzoan San Kristobalen omenezko jaiak hasteko.

ERREDAKZIOA ►

Festen hasiera San Kristobal egunaren aurreko aste-akabuan egitea erabaki dute Gatzamiñeko jaien antolatzaileek. Honenbestez, giro apartean igarotzeko egun bi izango dira uztailaren 6a eta 7a, gastronomiaren protagonismo handiagaz eta globo aerostatikoan igotzeko aukera eta guzti. Martitzenean eta eguaztenean bueltatuko dira jaiak. Santuaren omenezko eguna, eguaztena, bereziki mamitsua izango da; azpimarratzekoa da, besteak beste, iluntzean egingo den Got Talent Gatzamiñe saioa, norberak barruan daraman artista plazaratzeko aukera emango duena, hain zuzen ere. ◀

Uztailak 6, zapatua

11:00 Txupinazoa.
11:30 IV. Familien arteko tortilla- eta entsalada-lehiaketa.
13:30 Tortillen eta entsaladen aurkezpena.
16:30 Familien arteko jokoak.
18:30 Herri-kirolen tailerra.
20:00 Tortillen eta entsaladen lehiaketaren sari-banaketa.
20:30 Parrillada, prezio herrikoian.
22:00 Zezensuzkoa.
22:30 Los Cuatro Jinetes taldearen kontzertua, txosnan.
23:30 Rockteke eta mozzorro-lehiaketa, txosnan.

Uztailak 7, domeka

11:00 Diana.
11:00 San Kristobal/Kendal Kopa trofeoa, Errotabarrin.
11:30 Ur-jolasak.
13:00 Igel-toka, txosnan.
14:00 Paella herrikoia, eta bazkalostean animazioa: bingoa eta dominoa.
17:00 IV. Mus Lehiaketa.
17:00 Umeentzako tailerra eta aurpegi-margotzea.

19:00 Globo aerostatikoa, Itsasmendin.
20:30 Mus-txapelketaren sari-banaketa.
22:00 Zezensuzkoa.

Uztailak 9, martitzena

22:00 Zinema eta txokolate-jana, landan (euria egitekotan, ekintza hau bertan behera geratuko da).

Uztailak 10, eguaztena

11:00 Diana.
11:30 Kristobal Deunari agurra eta lore-eskaintza.
12:30 Jubilatuentzako luncha.
19:00 Dantzak, Itxas Eder taldeagaz.
20:00 Kantagunea.
20:30 Sardina-jana.
21:00 Got Talent Gatzamiña (eman izena 17:00etatik aurrera, txosnan, eta erakutsi zer dakizun egiten)
21:00 Disko-festa.
22:00 Zezensuzkoa.
22:15 Jaien amaierako traka.

ERANDIO | Asuako jaiak

Erandioko jaien kateari segida, uztail erdian

Iaz baino astebete beranduago izango dira aurten Asuako jaiak, Goierriko sankristobalakaz bat ez egitearren. Honenbestez, uztailaren 19tik 21era bitarteko aste-akabuan gozatuko dute bertan jai-giroaz.



Musikaz gozatzeko aukera izango da hiru egunez Asuan. Zapatu arrastian DJ Xaiborrek alaituko du giroa.

ERREDAKZIOA ►

Sankristobalen ostean, festak Goierritik Asuara jauzi egingo du Erandion; uztailaren 19ko arrastian hasiko dituzte jaiak auzo horretan. Lehenengo egunean, Loiuko Danontzat Elkartek izango du protagonismoa: alde batetik, umeak sukaldaritzan trebatzeko Txiki Chef saioa antolatuko dute, eta horren ostean txitxi-burruntzi solidarioa egingo dute; batutako dirua ongintzazko elkarteren bati eman-go diote, ohitura dutenez. Jaien gainerako egunetan ere ez da faltako gastronomiarako tarterik, zapatu goizeko paella-txapelketari arrastiko txorizo-dastaketak hartuko dio erreleboa. Betekada hartu arren oraindino mugitzeko gogoia dutenek, umeek batez ere, horretarako aukera izango dute DJ Xaibor nekaezinaren erritmoari segika. Horrez gainera, mariatxiak izango dira zapatu iluntzean, 21:30etik aurrera, eta Iratzar taldearen kontzertua egun luzeari amaiera emango dio. Domekan, aldiz, Udal Musika Bandak jarriko dio doinua egunari. ◀

Uztailak 19, barikua

- 19:00 Txupinazoa eta kalejira.
- 19:30 «Olgetan Solas», familia-arteko kirol-jolasak, eta Txiki Chef, Danontzat Elkartek antolatua.
- 21:00 Txitxi-burruntzi solidarioa, Danontzat Elkartek antolatua.
- 23:00 Disko-festa, DJ Epsilonen eskumenez.

Uztailak 20, zapatua

- 13:00 Trikitixa, enparantzan.
- 14:00 Paella-txapelketa.
- 18:00 Dantzak.
- 19:00 DJ Xaibor.
- 21:00 Txorizo-dastaketa.
- 21:30 Mariatxiak.
- 00:00 Kontzertua: Iratzar.

Uztailak 21, domeka

- 12:00 Meza.
- 12:30 Erandioko Udal Musika Bandaren kontzertua.
- 13:00 Luncha.
- 15:00 Herri-bazkaria.
- 17:30 Dantzaldia.

PLENTZIA | Historia Jardunaldiak

Historia eta natura berbabide



Uztailaren 8tik 13ra bitartean historian eta kulturaren murgilduko da Plentzia. Lehenik eta behin, hilaren 8tik 10era, XII. Plentzia eta Uribe Kostako Historia Jardunaldiak egingo dituzte, eta ondoren II. Kantauri Itsasaldeko Kultura Biltzarren txanda izango da. Biak ala biak Plasentia de Butron Museoko Etnografia Taldeak antolatu ditu. Historia Jardunaldien saioak arrastiko 19:30etik aurrera egingo dituzte, Udaletxean. Besteak beste, ehun urte bete dituzten Aramburu farmazia eta Gorlizko erietxea ekarriko dituzte gogora. Industrializazioaren aurretik Lemoizen zeuden errota eta burdinolak ere izango dira berbabide, hala nola orain mende bat egindako *Magdalena* ontziaren uretaratzea. Jardunaldien akabuan Uribe Kosta eta Uribe Butroeko baliabide naturalen gaineko lana aurkeztuko dute, eta Isuskitzako lursailen berreskurapen-prozesuaren berri emango dute baita ere.

URDULIZ | Rabu Txapelketa

Lapiko arteko egun-pasa itzela

Tradizio luzekoa da buztan erregosia prestatzeko Urdulizko txapelketa: 53. edizioa izango da aurtengoa. Ohi denez, Txori Alai kirol eta eta kultur elkarteak antolatuko du Landan egiten den jai ospetsua. Oso goiz hasiko da eguna, eta bazkalordura arte txistulari eta trikitilariak alaituko dute ingurua. Kuadrillei ere egokituko zaie giroa sortzea; are gehiago, hori ere kontuan hartuko da sariak erabakitze orduan.

Uztailak 13, zapatua

- 07:30 Txupinazoa.
- 09:00 Txistulariak eta izen-ematea.
- 12:30 Iratxo Gorria dantza-taldea.
- 12:45 Izena emateko epearen amaiera.
- 13:30 Kazolen aurkezpena.
- 17:30 Sari-banaketa, eta ostean Burrunba elektro-txaranga.

SOPELA | Larrabasterrako Karmen jaiak

Musika eta jolasa nagusi Urgitxietan

Egutegiaren apetak behartuta, aste-akabuan hasi eta martitzenera arte luzatuko dituzte aurten karmengo jaiak Larrabasterran. Emaizta, primerakoa: mota askotako ekitaldiz gozatzeko bost egun.

ERREDAKZIOA ►

Dena prest dago Larrabasterrako jaiak abiarazteko. San Pedro jaien ajea ahaztuta, karmenak hartuko du jaien lekukoa, herriko kaleak kolorez eta alaitasunez betetzeko asmoz. Ohi den legez, Udalak, elkarteek, kua-drillek eta auzokideek osatzen duten jai-batzordeak askotariko programa osoa prestatu du, eta, goraipatu duenez, festen izaera parte-hartzailea eta herrikoia bultzatu gura dute. Nabarmendu dutenez, aurtengo erronka urte guztietakoa izan da: adin denetakoentzako moduko egitaraua osatzea.

Inongo *pikerik* sustatzeko asmo barik (barka egiguzue txantxa merkea), azpimarra dezagun egun bat gehiago izango dutela Larrabasterrako jaiak Sopolako sanpedroek baino, karmeneko egitaraua hain gizena ez bada ere. Bost axola guri, batzuek zein besteez gozatzeko asmoa dugunoi, uztailaren 12ko arrastitik hasita. Mozorro-kalejira eta pregoiaren irakurketa izango dira festen abiapuntua. Ondoren, *Epa Txiki* musika-ikuskizuna eta, beranduago, Urrats taldearen kontzertua izango dira Urgitxietan plazan, jaien epizentro betean.

URGITXIETATIK URKORA. Zapatuan etorriko da aurtengo jaien berrikuntza nagusietako bat: Ugeraga klubak antolatutako Emakumezkoen Futbol-7 Txapelketa, Urko zelaian. Arrastiko 18:00etan izango da hori; lehenago, eguerdian, ume eta gazteek edukiko dute gozatzeko aukera Urgitxietan. Eurentzat beren-beregi ipinitako jolas-parkeez gainera, sukaldaritzan trebatzeko Txiki Txef tailerra izango dute.

Domeka osoan Urko ingurua izango da jaiaren gune nagusia, baina kasu honetan ez futbolagatik, marmitako-lehiaketagatik baino. Urtero legez, han emango dute egun gehiena kua-drillek, iluntzean plazara joan aurretik. Batzuek, beharbada, behin hasita ikusiko dute *Kale Gorrian*, Cía Barsanti konpainiak eskainitako kale-antzezlan. Ostean musikak hartuko du protagonismoa. Lehenik eta behin, jotaren maitaleek primeran pasatuko dute Corrientes Navarras taldeak Iberrota plazan egingo duen emanaldiagaz. Gauean, berriz, Queen banda inge-



Emakumeen Futbol-7 Txapelketa izango da aurtengo berrikuntza nagusietakoa.

lesaren omenezko kontzertua izango da Urgitxietan, Play The Game taldearen eskumenez.

Astelehenean jaiak ez dute etenik izango. Askok lanera bueltatu beharko dute egun horretan, ez ordea ume eta gaztetxoek, eta haiei begirakoa izango da egitarauaren zati handi bat, goiz eta eguerdi aldean batez ere. Bestelakorik egongo da hala ere, berbarako 13:00etan hasiko den Los Txikis taldearen bilbaina-



KULTUR ELKARTE & TXOKO EUSKALTZALEA
BAZKIDE IZAN GURA?
WWW.AZEBARRI.EUS / EUSKAL HERRIA 14, ALGORTA



Cafeteria
Elizpe



Sopela

Eleizalde Kalea, 1
Tel. 946 764 484

Pafeteria
GOXO BREAK
Ogizenda

GOXO BREAK GOXO BREAK DESHUSTIZADURA



- ama oreaz esindako ogia
- gosari bereziak
- PINTXOAK

946 76 31 12
Gatzamne, 14 A-Lonba, Larrabasterra

tako iturriaren inguruan



Uztailak 12, barikua

- 18:30** Parrilada Jubilatuen Etxean.
- 19:00** Jaien hasiera: Arrainak kalejira. Erdu moztortuta! Loiola Ander Deuna kaletik hasita (Surflariaren eskulturaren).
- 20:00** Pregoia eta txupina Sopelako Ostalaritza Zerbitzu eta Merkatarikartaren eskutik.
- 20:30** *Epa Txiki*, musika denentzat, Urgitxieta plazan.
- 22:00** Suzko Zezena.
- 23:00** Kontzertua: Urrats. Urgitxieta plazan.

Uztailak 13, zapatua

- 11:00-14:00 eta 17:00-20:00** Umeentzako jolas-parkea Urgitxieta plazan: puzgarriak, ludoteka, tren txikia...
- 11:00-14:00 eta 17:00-20:30** Gazteentzako jolasak Urgitxieta plazan: puzgarri erraldoiak.
- 11:00-14:00** Txiki Txef Ekintzak Urgitxieta plazan: bizkotxoak eta fruta-zukuak egiteko tailerra.
- 12:00** Kalejira Sopela Kantariren eskutik.
- 18:00** Tiragoma-txapelketa, Peña Bizkaia de Tiragomas elkartearen eskutik, Iberrota plazan.
- 18:00** Emakumezko Futbol-7 Txapelketa, futbol-zelaian. Antolatzailea: Ugeraga Futbol Taldea.
- 19:00-21:00** Dantza-plaza Saltoka taldeagaz, Urgitxieta plazan.
- 23:00** Kontzertuak Urgitxieta plazan: Down The Ladder + Modus Operandi.

Uztailak 14, domeka

- 10:00etatik aurrera** Marmitako-lehiaketa Urkon (14:00etan kazolen aurkezpena eta 15:00etan sari-banaketa).
- 11:00-14:00 eta 16:30-20:00** Umeentzako eta gazteentzako jolas-parkea Urkon: ludoteka, puzgarri erraldoiak, ur-puzgarriak, pedaleko-itsasontziak... Ekarki bainu-jantzia!
- 16:30** Bitsaren jaia Urkon.
- 17:00-20:00** Denentzako disko-festa (familiak, umeak, gazteak...) Urkon.
- 18:30** Boxeo, kick-boxing eta txikibox erakustaldia, Iberrota plazan, Basakick klubaren eskutik eta Zipiriñeko Txikibox taldeko umeakaz.
- 20:00** Kale-antzerkia: *Kale Gorrian*, Cia. Barsanti konpainiaren eskutik, Urgitxieta Plazan.
- 21:15** Jotak, Corrientes Navarras taldeak eskainita, Iberrota plazan.

- 23:00** Queen taldearen omenezko Play The Game taldearen kontzertua, Urgitxieta plazan.

Uztailak 15, astelehena

- 11:00-14:00** Umeentzako jolas-parkea Urgitxieta plazan: puzgarriak, ludoteka, tren txikia...
- 11:00-14:00** Gazteentzako jolasak Urgitxieta plazan: puzgarri erraldoiak.
- 11:00-13:00** Txiki Txef Ekintzak Urgitxieta plazan: txokolatzeko piruletak, gofreak, ponpoizko giltzari-tailerrak eta jokoak.
- 13:00** Bilbainadak, Los Txikis taldeak eskainita, Iberrota plazan.
- 17:00-20:00** Umeentzako jolas-parkea Urgitxieta plazan: puzgarriak, ludoteka, tren txikia...
- 17:00-20:30** Gazteentzako jolasak Urgitxieta plazan: puzgarri erraldoiak, jumping...
- 18:00-20:00** Txiki Txef Ekintzak Urgitxieta plazan: txokolatzeko piruletak, gofreak, ponpoizko giltzari-tailerrak eta jokoak.
- 20:30** Kale-antzerkia: *Turisteando*, Trapu Zaharra konpainiaren eskutik, Iberrota plazan.
- 22:30** Suzko Zezena.
- 23:00** Kontzertua: Puro Relajo. Urgitxieta plazan.

Uztailak 16, martitena

- 11:00-14:00 eta 16:30-20:00** Umeentzako eta gazteentzako jolas-parkea Urgitxieta plazan: puzgarriak, ludoteka, tren txikia, jumping...
- 12:00** Meza nagusia Karmengo elizan. Ondoren, Sopelako Lagun Artea abesbatzaren kontzertua eta ohorezko aurrekua.
- 13:00** Barinatxe txistu-taldearen kalejira Karmengo elizatik Urgitxieta plazara. Ondoren, Sopelako Eguzkilore eta Meñakoz dantza-taldeen emanaldia Urgitxieta plazan.
- 17:00-20:00** Txiki Txef Ekintzak Urgitxieta plazan: krispetak eta gailetak egiten ikasteko umeentzako tailerrak eta retro jolasak.
- 18:00** Sokatira-erakustaldi mistoa Gaztedi taldearen eskutik. Ondoren, Karmen Jaletako II Sokatira Txapelketa Herrikoia, Iberrota plazan.
- 21:00** Kontzertua Urgitxieta plazan: Korrontzi. Gonbidatuak: Oinkari dantza-taldea (Villabona), Itxas Eder dantza-taldea (Plentzia) eta Eguzkilore dantza-taldea (Sopela).

da-kantaldia. Eta arratsaldean, berriro kale-antzerkia izango da gozagarri, kasu honetan Trapu Zaharra konpainiaren eskainitako *Turisteando* obra. Gaueko kontzertua Puro Relajo taldeak emango du.

Karmengo amabirjinaren egunean amaituko dira jaiak. Egurdiko mezaren ostean, ohorezko aurrekua eta Sopelako Lagun Artea abesbatzaren kantaldia izango dira, eta horren

Korrontzi folk-talde ezagunak emango die amaiera Karmen jaiari, martitzenean.

ondoren Eguzkilore eta Meñakoz bertako taldeek eskainiko dute euskal dantzen erakustaldia. Beste erakustaldi bat, baina oraingoan sokatira mistoarena, arrastian egingo dute Gaztedi taldeko kideek, Karmen Jaletako II. Sokatira Herrikoia-aren aurretik hain zuzen. Eta jaiak amaitzeko Korrontzi folk-talde ezagunak emango du kontzertua Urgitxietan, hainbat dantza-talderen parte-hartze eta guzti. ◀

ARTOLOZAGA

Tailerrak

ANAIK

Mekanika · Karrozeria · Elektronika

Sopelan
Gatzarrine z/g
94 676 00 13
94 676 38 14
www.talleresartolozaga.com

Sestaon
Miguel Servet, 6
94 472 13 74

Jatorrizko bermea mantentzen dugu!

HAMILTON Play-School

Ikastolak

Enpresak

ENGLISH SATURDAY Play-School

hAMILTON

IDIOMAS

SOPELAN, Dr. Landa 6.
LARRABASTERRAN, Ibero 9.
946 763 012 - info@hamiltonidiomas.com

INGELES
ALEMANIA
FRANTSES

Taldea, enpresak eta partikularrak
Eskolaz kanpoko ekintzak
Maila guztiak
Ingeles hiru urtetik aurrera
Taldea txikiak
Inglateran egonaldiak

LEMOIZ | Armintzako jaiak eta Txapel Reggae jaialdia

Txapel Reggae, musika buruan!

Uztailak 13, zapatua

- 12:00** Rasta-poteoa, Batukale Samba (Euskal Herria) perkusio-taldeagaz.
13:00 Ragga Cooping Skate erakustaldia.
14:30 Dancehall klasea, txosna aurrean.
16:00 Musika-emanaldiak, Dub Stage agertokian, skate-parkean:
Ziztada eta Raperu
Santa & Vega
Laize
Aiala e Lyrikan
Endika Lahaine i Rufoh
Backed by: BassHerri
Weepah
Ziribulio kolektiboa
Pantx Official Selectors
Powered by: King Burning Sound System.
20:00 Sardina-jana, txosnan.
23:30 Kontzertuak, Txapel Reggae - Biobizz Portua Stage-an:
Fantan Mojah & Jahvolution Band (Jamaika / Herbehereak)
Un Rojo Reggae Band (Costa Rica)
High Paw e Elephants Yard (Galizia)
Deskarats (Katalunia)
Suaia eta Ama Rebel (Euskal Herria).

Jamaikar jatorriko musikaz goatzeko aukera egongo da zapatuan, uztailaren 13an, Armintzako portuan.

Jai-giroan blai egingo dute armintzarrek uztail erdian

Reggae-musikaz gozatzeaz gainera, aurreko egunetan ere jai egiteko bestelako hamaika aukera izango dituzte armintzarrek, esaterako herri-bazkariak, dantzaldiak, umeentzako jolasak eta kalejirak.

ERREDAKZIOA ►

Aurten ere, musika jamaikarra ardatz duen jaialdia hartuko dute Armintzako Karmengo jaiek. Festok oso ezagunak dira Euskal Herrian, Txapel Reggae jaialdia dela eta; hala ere, adin denentzako beste hamaika aukera ere eskaintzen dituzte ospakizunok. Uztailaren 11n emango diete hasiera karmenei, 18:30ean, txupinaren jaurtiketaz. Ondoren, triatloi herrikoia, bertso-triki-poteoa eta langostino-jana izango dituzte aukeran herritarrek. Azkenik, egunari amaiera emateko, kontzertua egongo da txosnan, ingurua alaitzeko. Hurrengo egunetan, Lemoizeko kostaldeko auzo horretara hurbilduko diren denentzako makina bat ekitaldi egongo da, berbarako umeentzako jolasak, puzgarriak, tortilla-lehiaketa, pala-partida, bingo jolasak eta auzotarrentzako txapelketak.

Zapatuan, uztailaren 13an, aldiz, Bizkaiko reggaeren hiri-buru bihurtuko da Armintza, beste urte batez. Aurtengo Txapel Reggae jaialdiak gurera ekarriko ditu munduan ezagunak diren artistak, esaterako Fantan Mojah & Jahvolution Band jamaikarrak eta Un Rojo Reggae Band costarricarrak. Gertuagoak diren Galiziako High Paw e Elephants Yard eta Kataluniako Deskarats taldeak ere hurreratuko dira Armintzara euren musika aurkeztera. Horiez gainera, bertoko taldeek ere lekua izango dute: Suia eta Ama Rebel talde gasteiztarraz. Kontzertuak Biobizz Portua Stage gunean izango da, hau da, Armintzako portuaren inguruan.

Bestetik, Armintzekaldeko skate-parkearen ondoan egongo da Dub Stage agertokia; ohi den legez, horixe izango da egunean zeharreko topalekua. Bertan, skate-erakustaldia egin ondoren, zuzeneko MC saioak egingo dituzte Txapel Reggae bhotza girotu eta bibrarazteko; gaueko kontzertuetarako beroketa ezin hobea izango da hori. ◀



Uztailak 11, eguna

18:30 Suziria botatzea eta jaien hasiera.
19:00 XIII. Triatloi herrikoia.
20:30 Bertso-triki-poteoa.
21:30 Otarrainxka-jana, txosnan.
23:00 Kontzertua, txosnan.

Uztailak 12, barikua

12:00 Umeei begirako puzgarriak, frontoiaren ondoan.
14:00-15:00 Tortilla-txapelketan izena emateko epea, txosnan.
16:00 Puzgarriak frontoi ondoan.
17:30 Tortilla-txapelketaren aurkezpena.
18:00 Umeentzako jolasak eta tailerra.
19:00 Pala-partidua.
20:00 Tortilla-txapelketaren sari-banaketa.
21:00 Txitxiburruntzi-jana, txosnan.
23:00 Laiotz erromeria, txosnan.

Uztailak 14, domeka

12:00 Bizirik dirautenentzako poteoa.
18:30 Umeentzako bingo herrikoia.
19:00 Helduentzako bingo herrikoia.
21:00 Antzinako bideo eta argazki emanaldia.

Uztailak 16, martitza

12:00 Umeentzako herri-kirolak, portuan.
13:00 Nagusientzako hamaiketako, txosnan.
18:00 Karmengo Amabirjinaren omenezko meza. Itsasora prozesioa egingo dute txistulariak. Ondoren, ur-jolasak egingo dituzte.
20:00 Sardina-jana, txosnan.
21:00 Otarrainaren zozketa, txosnan.
22:00 Txokolatada, txosnan.
23:00 Jai amaierako traka.

KAIA
taberna

Portubidea Kalea, 17
48620 Armintza

Tel. 946 87 98 65

Ondo pasa jaietan!

farmacia
Loda. Paula González Pérez

946 879 341
farmacia.armintza@gmail.com
Portubidea, 7 48620 ARMINTZA

Dastatu gure pizza artisauak...

...osagai naturalak eta hurbilekoak!

BATZOKI LEMOIZ

ATALAYA, 6 • TEL. 683 605 553
ARMINTZA • LEMOIZ

PLENTZIA | Karmen eta Madalena jaiak

Jaiz eta ospakizunez beteta datoz uztaileko aste-akabuak

Uztailaren 13tik 23ra bitartean, plentziarrek zortzi festa-egun izango dituzte gozatzeko, karmenetan eta madalenetan launa. Askotariko hainbat ekitaldi antolatu dituzte bertakoak zein kanpotarrak murgil daitezen.

ERREDAKZIOA ►

Jai eta jai artean, uztailean atsedenerako tarte gutxi hartzen dute Plentzian. Iaz sei egun eskaini zizkioten Karmen eta Madalenei. Hori nahikoa ez nonbait, eta aurreneko badaezpada egun bana erantsiko diote bakoitzari, nahiz eta ez preseski ekitaldiz gainezka, dena esatera.

Karmenak ailegatuko dira lehenengo, eta uztailaren 13tik 16ra, hau da, Karmengo Amabirjinaren egunera bertara bitartean iraungo dute jaiak. Itsasoari lotutako jaia izanda, aipatzekoak dira lehenengo egunean egingo diren marmitako-txapelketa alde batetik, eta heriotzarik gabeko korrokoi-arrantzarena. bestetik. Domekan ere agerian geratuko da Plentziak itsasoa-gaz duen harreman estua: batel-estropada egingo dute Kanalean eta, indarra berreskuratzeko, sardina-jana ondoren. Kantuan jarriko dira gero, Plentzia Kantaguneagaz.

Karmen egunean tradiziozko meza eta itsas prozesioa egingo dituzte, ohorezko aureskua baino lehen. Ohituraz, mota horretako ekitaldiak eguerdiz izaten badira ere, Plentzian gurago izaten dute birjina arrastiz ateratzea paseoan. Horren ostean, zezensuzkoak emango dio amaiera jaiari.

Madalenak lau egun geroago hasiko dira, uztailaren 20an. Eguerdian, suziria bota bezain laster, triki-poteoa egingo dute Madalentxuakaz, eta arrastian Euskal Herriko Sound System Topaketa egingo dute bigarren aldiz. Domekan gastronomia izango da nagusi, paella-txapelketa antolatuko dute eta. Horrez gainera, dantza-erakustaldia izango da Plazatxoan, eta arrastian kantu-jira egingo dute Alde Zaharrean barrena.

Uztailaren 22a da santuaren eguna, eta honenbestez meza egingo dute eguerdian, Madalentxuen eta Udalbatzaren elkarretaratzearen ostean, eta herriko banderari omenaldia egin baino lehen. Arrastian, Oihan Vega izango da giroa pizteko arduraduna, disko-festa gidatuz. ◀



Mota askotako ekintzak egingo dituzte Plentzian uztail erdialdeko jaietan.

Karmenak

Uztailak 13, zapatua

10:00 Txupinazoa.
10:00-13:00 Marmitako lehiaketarako izen-ematea.
12:00 Heriotzarik gabeko korrokoi arrantza-lehiaketa.
13:00-13:30 Marmitakoen aurkezpena.
14:30 Sari-banaketa.
20:00-21:30 Disko-festa.
22:00 Zezensuzkoa.
22:15-23:30 Disko-festa.

Uztailak 14, domeka

10:00 Diana.
12:00 Ergometro-lehiaketa (Txurrua tabernaren aurrean).
17:00 Batel-estropada, Kanalean.
19:00 Sardina-jana.

20:00 Kantujira portuko tabernetan.
22:00 Zezensuzkoa.

Uztailak 15, astelehena

21:30 Al Tran Tran, musika-inprobisazioa.

Uztailak 16, martitzena

10:00 Txupinazoa.
10:00 Artisautza-azoka.
16:30 Karmengo Ama Birjinaren ohorezko meza.
17:00 Karmengo Ama Birjinaren itsas-prozesioa.
19:00 Karmengo Ama Birjinaren omenezko aureskua, eta dantza-ekitaldia Plentziako Itxas-Eder taldearen eskutik.
22:00 Zezensuzkoa eta jaien amaiera.

Madalenak

Uztailak 20, zapatua

11:00 Umeentzako parkea.
12:00 Suziria botatzea.
12:30 Triki-poteoa Madalentxuakaz.
18:00 II. EHko Sound System Topaketa.
22:00 Zezensuzkoa, Ontzian.
22:30 Kontzertua Eleiz enparantzan.

Uztailak 21, domeka

10:00 Diana txistulari eta buruhandiakaz.
10:00-11:00 Paella-lehiaketa.
12:30 Dantza-erakustaldia, Plazatxoan.
13:00-13:30 Paellen aurkezpena.
17:00 Sari-banaketa.
18:00 Eskupilota-txapelketa.
19:30 Kantujira, Eleiz Enparantzatik.
20:00 Erromeria.
22:00 Zezensuzkoa, Ontzian.

Uztailak 22, astelehena

10:00 Diana txistulari eta buruhandiakaz.
11:00 Artisautza-azoka, Ontzian.
11:30 Madalentxuen eta Udalbatzaren elkarretaratzea, Ontzian.
12:00 Meza.
13:00 Plentziako Banderari omenaldia.
13:00 Musika Banda, Ontzian.
14:00 Madalen koktela.
19:00 Disko-festa, Oihan Vegagaz.
22:00 Zezensuzkoa, Ontzian.
22:00 Rock-kontzertua.

Uztailak 23, martitzena

17:00-19:00 Umeentzako jolasak.
17:00-19:00 Lorezaintza-tailerra.
18:00 Padel Lehiaketaren finala.
20:00 Padel Lehiaketaren sari-banaketa.

SOPELA | Santa Marina eguna

Haitzen magaleko jaia



Dantzariak Santa Marina basilizara igotzen, jaiaren aurreko edizio batean.

Ohiturari jarraituz, egun osoko egitaraua prestatu dute sopeloztarrek Santa Marina eguna ospatzeko uztailaren 20an. Goizeko 10:00etan hasiko da basilizara igotzeko kalejira.

ERREDAKZIOA ►

Uztailaren 20a heltzean, usadioari jarraituz, dozenaka sopeloztar igoko dira Sopela eta Urduliz artean dagoen Santa Marina basilizara. Debozioa eta jai-tradizioa uztartzen dituen hitzordua da Santa Marina eguna; hala, meza nagusia entzuteaz gainera, jai-giroaz gozatzeko eta dantza egiteko aukera izango dute bertaratuko diren den-denek. Goizeko hamarretan suziria bota, eta kalejiran abiatuko

Erromeria egingo dute 18:00etan, besteak beste.

dira udaletxeko enparantzatik Santa Marina, txistularien doinuek lagunduta. Ordu-bete beranduago, basilizara egingo den meza nagusiaren ostean, ohorezko aurrekua dantzatu eta lore-eskaintza egingo dute, Fernando Ansoleaga zenaren omenez. Haren izena duen plazan egingo dute hori, eta, horren ondoren, hamaiketako egingo dute, trikiti-doinuak entzunez.

Gosez geratuz gero, tripa guztiz ase ahal izango dituzte 14:00etan Fernando Ansoleaga parkean bertan egingo den herri-bazkarian, eta badaezpada, tortilla-lehiaketa egingo dute arrastiko 17:00etan. Azkenik, jai-giroaz gozatzeko eta dantza egiteko aukera izango dute bertaratuko direnek, 18:00etan hasiko den erromerian; hala ere, antolatzaileek ohartarazi dute aurtengoa ez dela dantza-plaza izango. ◀

URDULIZ | Santa Mariñe

Prest urteroko hitzordurako!

Iaz barikuan egokitu zen Santa Mariñe eguna, eta aukera aprobetxatu zuten urduliztarrek jaia bikoizteko. Alegia, bariku eta zapatu artean banatzeko. Aurten normaltasuna berreskuratu eta egun bakarrekoa izango da jaia ostera ere; ekitaldi denak mantenduta, hori bai. Ohiturak agintzen duenez, Santa Mariñe basilizaren inguruan hasiko da eguna, eta Antsonekoa plazara jaitsiko dira jaia biribiltzeko.

Uztailak 20, zapatua

- 11:30** Igoera elizaren aurretik Santa Mariñe basilizaraino, udal-agintariak batera, txistulariek lagunduta.
- 12:00** Meza nagusia.
- 12:30** Tortilla-lehiaketarako izen-ematea, 13:30ak arte.
- 13:00** Ohorezko aurrekua, azken urtean ama izan diren emakumei eskainia.
- 13:15** Hamaiketako, fanfarreak alaitua.
- 14:00** Tortillen aurkezpena.
- 16:00** Koadrillen jokoak. Sari berezia egongo da kuadrilla irabazlearentzat.
- 18:00** Santa Mariñetik Antsonekoa plazaraino jaitsiera, Amilotx (Mungia), Zasi Eskola (Itzurbaltza) eta Iratxo Gorria (Urduliz) dantza-taldeakaz. Ondoren, talde horiek dantza-erakustaldia egingo dute Antsonekoa plazan.
- 20:00** Tortilla-lehiaketaren sari-banaketa.
- 20:30** Txokolatea banatuko dute. Nork bere katilua eroateko eskatu dute, plastikozko ontzi gutxiago erabiltzeko (katilua daroatenei emango zaie lehenik txokolatea).
- 21:30** Erromeria: Ozen.

Tortilla-lehiaketaren oinarriak:

- Sua egiteko egurra banatuko dute; butanoa ere erabil daiteke.
- Patatak, arrautzak, olio eta gatza dira erabil daitezkeen osagai bakarrak.
- Lehiaketak maila bi izango ditu: 16 urtetik gorakoena eta adin horretatik beherakoena.

TXOZNA JATETXEA

Torre Barri bidea, 3
Urduliz

94 676 34 71
645 77 68 23

txozna@gmail.com
www.restaurantetxozna.es

OSABIDE
Hortz-Klinika
Arantza Etxebarria

Odontologia orokorra
Ortodontzia

Periodontzia
PADI

Bidebarri 27, behea eskuina - ALGORTA

944 307 696

GETXO | 64. Nazioarteko Paella Lehiaketa

Segurtasunean koska bat harago egingo dute paellek

Uztailaren 25ean (eguna) Nazioarteko Paella Lehiaketaren 64. edizioa egingo dute, Getxoko Aixerrotako landan. Iaz segurtasunaren aldetik hasitako bideari jarraipena emango diote aurten.

ERREDAKZIOA ►

Urtero legez, aurten ere milaka lagun batuko dira Getxoko Aixerrotako landetan, algortarrentzako eta kanpotar askorentzako garrantzi handiko jai-eguna denaz gozatzeko asmoz. Uztailaren 25ean egingo dute lehiaketaren 64. edizioa, data hori berriro jai-eguna izango dela baliatuta. Hala, betiko legez Algortako gazteek eta ez hain gazteek ilusio handiz hartuko dute egun osoko ekitaldi ospetsu hori. Batzuk zain daude Itxas Argia elkarteak lehiaketa-egunean erabiltzeko banatuko dituen olanak edo toldoak hartzeko. Jai-eremutik kanpo egongo direnek, oster, euren txokoak atontzeko azken lanak egiten dihardute. Hala ere, denek kontuan hartu beharko dute segurtasun-arauei dagokienez iaz ezarritako aldaketek bere horretan dirautela, eta aurten gehiago izango direla, gaur idazteko momentuan antolatzaileek oraindino berrikuntza denak zehaztu ezin izan ez badizkigute ere. Edozelan, datozen egunetan jakinaraziko dituzte aldaketak, iragarri dutenez.

Orain dela urte bi, eztanda batek erredura latzak eragin zizkien bost emakumeri, eta horietako bat larri zauritu zen, gorputzaren %60 erre zuen eta. Ondorioz lehiaketaren segurtasun-arauak aldatu ziren iaz; harrezkeroztik, olanak jasotzean pertsona batek zinpeko aitorpena izenpetu behar du, NANA aurkeztuz. Aurten, gainera, Eusko Jaurlaritzako Joko eta Ikus-kizunen Zuzendaritzaren aginduz, toldo denek suaren aurkako materialez egindakoak izan beharko dute, Itxas Argiak argitu digunez. Bestela esanda: denak izango dira berriak, eta zaharrak Itxas Argiari bueltatu beharko zaizkio, ezin izango dira gehiago erabili eta.

BANAKETA ETA ZOZKETARAKO DATAK. Toldo berrien banaketa uztailaren 15ean eta 16an egingo dute Itxas Argiaren egoitzan,



Uztailak 25, eguna

08:00-09:30 Ibilgailuak sartzea baimenduta egongo da, parte-hartzaileek eguna igarotzeko behar duten material dena euren kokalekura hurbil dezaten.
10:30 Lehiaketan izena ematea.
12:00 Txalaparta, UKTEST taldea.
12:05 Aurrekua.
12:10 Dantza-emanaldia, Itxas Argia dantza-taldearen umeena.
13:30-14:30 Paellen aurkezpena.
17:30 Sari-banaketa.
18:30 Erromeria: Oxabi.
Egun osoan zehar Umeentzako jolasak Naturgyren eskumenez.

19:00etatik 21:00etara, aurretik bazutenentzat. Banatu gabeko olanen zozketa, berriz, hilaren 18an izango da, leku berean, 21:00etan (19:00etatik joan ahal izango da txartela hartzera). Jaiaren ostean, uztailaren 26an eta 27an egongo da olanak Itxas Argiari atzera emateko abagunea, lehenbiziko egunean 11:00etatik 13:00etara eta 19:00etatik 21:00etara, eta bigarrenegun 11:00etatik 13:00etara.

Toldo berriak garestiagoak dira, eta hori ere igarriko da. Toldo erdia, orain arte 45 euroan zegoena, 60 euroren truke hartu ahal izango da aurrerantzean; osoa hartzeko, berriz, 120 euro ordaindu beharra egongo da (lehen 90 euro ziren). Horrek esku-bidea ematen du egurra eta arroza jasotzeko antolatzaileen aldetik. Horrez gainera, ohi denez, 25 euroko fidantza utzi beharra dago, toldoa egoera onean itzuliz berreskuratuko dena. ◀



LXIV NAZIOARTEKO PAELLA LEHIAKETA

UZTAILAK 25 OSTEGUNA

Ondo pasa!



PLENTZIA | Mikrofilm Short Festival

Film laburren betekada, elizako atarian

Uztailaren 26an eta 27an egingo da Mikrofilm Short Festival, Plentziako nazioarteko film laburren lehiaketa. Zortzigarren edizioa izango da aurtengoa, eta, beti bezala, bestelako ekitaldiak ere eskainiko dituzte.

UNAI BREA ▶

Beste behin, Plentziako elizako plazan hitzordua izango dute zinemazaleek uztail amaieran. Hamazazpi film laburrek parte hartuko dute Alex Aranaren omenez antolatzen den Mikrofilm nazioarteko lehiaketan; ohi denez, pantaila kanpoko aldera aterako dute, plazan bildutakoek emandiez goza dezaten. Filmez gain, kontzertuak eta erakusketak ere egongo dira.

Lehiaketari dagokionez, bederatzi film eskainiko dituzte barikuan (uztailak 26) eta zortzi zapatuan, beti ere suspensea eta genero beltza ardatz. Egileak hainbat herrialdetakoak dira, baina Espainiako Estatukoak dira gehienak. Euskal Herriak ere izango du ordezkaria: Tamara Lucariniren *No es coma* emango dute lehenengo egunean, eta Norma Vilaren *El fin de todas las cosas* bigarrenegun.

Ohiko lehiaketaz aparte, jaialdiak Mikroexpress ekimena antolatuko du hirugarrenez. Zapatuan, goizeko 10:00etan elkartuko dira parte-hartzaileak, Goñi Portalen; gaia proposatuko zaie, eta 19:00etan aurkeztu beharko dute minutu biko film bat,



Jende ugari batzen da Santa Maria Magdalena elizaren aurreko aldean, jaialdiak ematen dituen filmez gozatzeko.

Mikroexpress lehiaketan, 9 ordu izango dira minutu biko filma sortzeko.

gauerdi aldean proiektatuko dutena. Ondoren sari-banaketa izango da. Gehienez zortzi taldek eman ahal izango dute izena, uztailaren 19ra bitartean.

Filmez gainera, pelikulen karteletan zentsurak egindako al-daketei buruzko erakusketa izango da ikusbide aurtengo Mikrofilmaren. Jaialdiaren egitarau osoa mikrofilmfestival.com webgunean kontsulta daiteke. ◀


IRAILAK 4 SEPTIEMBRE
(asteazkena / miércoles)

BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA

MUXIKEBARRI 19:30
Ereaga aretoa / Sala Ereaga



zuz. / dir.: Rafael Sánchez-Araña
saxofoia / saxofón: Patricia Aller



10€

SALMENTA / VENTA

Algortako Kultur Etxea
Tel.: 94 491 40 80
Romo Kultur Etxea
Tel.: 94 466 00 22



www.kutxabank.es

Ortatarako kutxazainak
Cajeros multiservicio

GORLIZ | Santiago jaia

Jaieen doinua dantzatuko du bost e

Santiago jaiez gozatuko dute gorliztarrek, eta ez direnek, uztailaren 24tik 28ra bitartean, iaz baino egun bat gutxiago beraz. Denok gozatzeko moduko ekitaldi ugari antolatu ditu aurrean ere jai-batzordeak.

ERREDAKZIOA ►

Uztailaren 24ko eguerdian hasiko dira santiagoak Gorlizen, baina esan daiteke arrastiz izango dela jaieen «benetako» hasiera, txupinazoa bota, pregoia irakurri eta Taldeen Jaitsiera Nagusia egiten denean Itsasbide kalean behera. Betiko moduan, kuadrillek «laguntzaile» asko izango dute aldamenean: trikitilariak, erraldoiak, buruhandiak, txistulariak, joaldunak... Jaitsieran parte hartu gura duten taldeek uztailaren 19a izango dute izena emateko azken eguna. Sariak jaieen akabuan emango dizkiete, uztailaren 29ko gauean. Izan ere, horixe izango da festen azken ekitaldia.

Buelta gaitezen hasierara ordea. Kuadrillen jaitsiera amaituta, eta mariatxien emanaldia hasi baino lehen, zezensuzkoa izango da gaueko 22:00etan, elizako plazan. Domekan izan ezik, gauero izango da hitzordu hori (zapatuan, ordu erdi beranduago); hori bai, jai-batzordeak ohar berezia egin du, aurreko urteetan bezala: zezenari ez dakiola inor hurbildu lau metro baino gutxiagoko distantziara.

Santiago eguna ospatzeko, lehenik eta behin Nekazaritza Azoka egongo da goiz osoan zehar. Ospe handiko ekimena da hori Gorlizen, ez baitu alferrik beteko 33. edizioa. Artzelu plazan izango da hitzordua, eta haregaz batera apurka-apurka bidea egiten dabilen beste bat: XII. Elkartasun Liburu Azoka. Horiek iraun bitartean egingo dituzte meza eta aureskua Santiagoren ohorez, baita Gorlizko Aratz dantza-taldearen emanaldia ere. 15:00etan, pintxo-lehiaketarako prestatu dituzten mokaduak txosnetan aurkeztu beharko dituzte kuadrillek, eta ordu berean hasiko da herri-bazkaria San Pedro plazatxoan.

Hirugarren egunerako, jaiak bete-betean sartuko da aste-akabuan, eta ekimen ugari izango da bertako zein kanpo-koentzat. Aipatzeko modukoak dira, esate baterako, barikuko play-back txapelketa, saio bitan banatua: ume eta nerabeena lehenengo, eta 16 urtetik gorakoena ondoren. Musikak etenik izan ez dezan, gauean 80 eta 90eko hamarkadetako disko-festa egingo dute Ibarretan. Zapatuan, berriz, bizkaitar erako bakailao-txapelketa nabarmendu beharra dago (41. edizioa), Haba-



Uztailaren 24ko arrastian irakurriko dute pregoia, Taldeen jaitsiera hasi baino lehen.

Zapatu gauean
sexu-erasoen aurkako
gunea ipiniko dute
elizako plazan.

nera eta Euskal Polifonia jaialdiaren 25. edizioa ahaztu barik. Gau horretan Jai Stand gunean paratuko dute eliz plazako autobus-geltokian. Kontsumo arduratsua sustatzea eta sexu-erasorik bako gunea eraikitzea dira horren helburuak. Besteak beste, informazioa emango dute sexu-harreman seguruak izateko, eta prebentziozko alkoholemia-kontrolak ere egingo dituzte. ◀

J.A. AGIRRE EUSKALTEGIA

Heldu euskarari!



UDAN ERE EUSKARAZI!

6 -16 URTE BITARTEKOENTZAT UZTAILA

Matrikula zabalik uztailean!

16 URTETIK GORAKOENTZAT UZTAILA ETA IRAILA (B1 - B2 - C1)

Bulego ordutegia: 09:30-14:30
Horario de oficina: 09:30 - 14:30

Algortako etorbidea 104 48991 Algorta (Getxo)

944 606 671

idazkaritza@jagirre.eus

www.jagirre.eus



gunez Gorlizek, gelditu barik

Uztailak 24, eguaztena

- 14:00** Jai-giroa, Elutxa txarangaren eskutik.
15:00 Herri-bazkaria. Txartelak kultur etxean eros daitezke, hilaren 19a arte edo agortu arte.
16:30 Jokoak gazteentzat, elizako plazan.
19:45 Pregoia eta txupinazoa, elizako plazan.
20:00 Taldeen Jaitsiera Nagusia, Itsasbide kalean behera, Ondarganaraino. Erraldoiak, buruhandiak, txistulariak, dantzariak, joaldunak, hankaluzeak eta trikitilariak egongo dira besteak beste. Uztailaren 19a izango da kuadrillek kultur etxean izena emateko azken eguna (jaien azken eguneko igoeran parte hartuko duten adierazi beharko dute). Sari-banaketa azken egunean izango da, uztailaren 29an.
22:00 Zezensuzkoa, elizako plazan. Lau metro baino gutxiagora ez hurbiltzeko eskatu dute antolatzaileek.
22:30 Mariatxiak: Los Charros. Ibarreta plazan.
23:00 Kontzertua: Akerbeltz. Elizako plazan.

Uztailak 25, eguna

- 10:30-15:00** XXXI. Nekazaritza Azoka + XII. Elkartasun Liburu Azoka, Artzelu plazan.
11:00-15:00 Umeentzako parkea, Itsasbide kalean.
11:45 Triki-kantu-dantza-poteoa, elizako plazatik. Denok baserritarrez janztea eskatu dute.
12:00 Meza Santiago patroiaaren ohorez, Lirain abesbatzak kantatua.
12:30 VI. Gorlizko Kronoeskalada. Azken izen-emateak.
12:40 Ohorezko aureskua eta Aratz taldearen dantzaldia, elizako plazan.
14:30 Kuadrillen pintxo-txapelketa, txosna-gunean. Izen-ematea.
15:00 Herri-bazkaria, San Pedro plazatxoan. Txartelak Kultur Etxean eros daitezke hilaren 19a arte edo agortu arte.
15:00 Pintxo-txapelketa: aurkezpena. Txosna-gunean.
18:00 Sagardotegi ibiltaria, San Pedro plazatxoan.
19:00-22:00 Orkestra elektro-txaranga herri-gune osoan zehar.
20:00 *Brotos líricos en la Bahía* errezitaldi poetiko musikatua. Sertutxenan.
20:00 Bigantxak adin guztietakoentzat. Ondarganan.
21:00 Kontzertua: Los 4 Jinetes. Xurru tabernak antolatua. Hormazalanda.
21:30 EinGo taldea, San Pedro plazatxoan.
22:00 Zezensuzkoa, elizako plazan. Lau metro baino gutxiagora ez hurbiltzeko eskatu dute antolatzaileek.
22:15 Afaia eta karaokea. Txosna-gunean. Afaia norberak ekarri behar du, mahaia eta aulkiak bertan.
01:00 Megafesta, Bak Produccionesek antolatua. Elizako plazan.

Uztailak 26, barikua

- 11:30-14:30** Eskubaloitailerra, Ibarreta plazan.
12:00 Madalena-tailerra gaztetxoentzat, Los Urris taldearen eskutik. Itsasbide kalean.
12:00-15:00 Ur-puzgarri irristagarria. Itsasbide kalean.
13:30 Perkusio-emanaldi ibiltaria. Herri-gunean.
16:30 VIII. Xake partidak, Artzelu plazan.



- 18:30** Kaleko antzerkia herri-gunean: Babo Royal (Ganso&Cía).
19:30 Play-Back, Ibarretan. Adina: 0-6, 7-11, 12-15 urte. Amaitzean sariak banatuko dituzte. Izena emateko azken eguna, uztailaren 19a.
21:30 Play-Back, Ibarretan. 16 urtetik gorakoentzat. Amaitzean sariak banatuko dituzte. Izena emateko azken eguna, uztailaren 19a.
22:00 Zezensuzkoa, elizako plazan. Lau metro baino gutxiagora ez hurbiltzeko eskatu dute antolatzaileek.
22:00 80 eta 90eko hamarkadetako disko-festa, Ibarreta plazan.
22:30 Gorliz Pine-Groove Festival jaialdia. Elizako plazan.

Uztailak 27, zapatua

- 09:00** Bizkaiko erara egindako 41. Bakailao Txapelketa, Estratakoetxe Parkean.
11:00-14:00 XXXIII. Eskulangintza + XII. Elkartasun Liburu Azoka, Artzelu Plazan.
11:30-13:30 Zezen eta zaldi puzgarriak entzierroan. Elizako plazan eta Itsasbide kalean.
12:30 Tortilla-txapelketa gazteentzat (13 urtetik gora). Estratakoetxe parkean.

- 13:00** Bakailaoaren eta tortillen aurkezpena.
14:30 Txapelketa gastronomikoen sari-banaketa.
17:00-20:30 Eskulangintza Azoka, Artzelu plazan.
18:30 XXIV. Mozorro Lehia-Desfilea: Itsasbideetik behera. Aratz Taldeal lagunduta. Izena emateko azken eguna: uztailaren 19a. Fanfarreak egongo dira.
20:00 Txistorra-jana Los Urris taldaren eskutik. San Pedro plazatxoan.
20:00 Errezitaldi poetiko musikatua: *Hegoameriketako bertsoak*. Sertutxenan.
20:00 Bigantxak adin guztietakoentzat. Fanfarreakaz. Ondarganan.
20:00 XXV. Habanera eta Euskal Polifonia Jaialdia. Abesbatzak: Mendi Abesbatza (Doneztebe), Caiscantum (Cascante), Lirain (Gorliz). Ibarreta plazan.
22:00 Mozorro-txapelketaren sari-banaketa. Elizako plazan.
22:30 Zezensuzkoa, elizako plazan. Lau metro baino gutxiagora ez hurbiltzeko eskatu dute antolatzaileek.
23:30 Kontzertuak: Skakeitan (Elizako plazan) + Five Directions (Ibarreta plazan).
23:30 Jai Stand Gunea, elizako plazako autobus-geltokian. Jai-gunea segurua izate aldera, matxismoa kolokan ipini eta jaiak eraso barik bizi gura dituztenei zuzendutako espazioa da Beldur Barik Gunea. Informazioa emango dute kontsumo arduratsua eta ganorazko sexu-harremanak izateko. Prebentziozko alkoholemia-kontrolak ere egingo dituzte.

Uztailak 28, domeka

- 10:30** Zumba-erakustaldia, Elizako plazan.
11:00-15:00 Umeentzako parkea Ibarretan: puzgarriak, jolasak... 13:00etan bitsa!
11:30 Aikido-erakustaldia, Elizako plazan.
12:00 Boxing-erakustaldia, Elizako plazan.
12:00-15:00 Txu-txu tren. Irteera eta helmuga: Elizako plaza.
13:00 Erretiratuentzako luncha, Jubilatuen Etxean.
17:00 Rally barregarria, Ibarreta plazan. Izena emateko azken eguna: hilaren 19a. Akabuan, sari-banaketa.
19:00 Bertso-saioa: Uxue Alberdi, Uxue Alberdi, Kerman Diaz, Aitor Mendiluze, Julio Soto. Gai-jartzailea: Beñat Vidal. Elizako plazan.
19:00-21:00 Dantzak eta kantzak adinekoentzat, San Pedro plazatxoan.
20:00 Bigantxak eta Euskal Herriko Errekortariak. Fanfarreak lagunduta. Ondarganan.
22:00 Kuadrillen igoera. Izena emateko azken eguna: uztailaren 19a. Fanfarreak eta Deabru Beltzak taldeak giroa. Itsasbideetik elizako plazara.
23:00 Kuadrillen jaitsieraren sari-banaketa, eta jaien akabua, *Urri* erreta. Lau metro baino gutxiagora ez hurbiltzea eskatu dute antolatzaileek.



EROSKI center Gorliz
Pol. Sagastikoetxe, manzana 1
Tel. 946 774 101

EROSKI city Gorliz
Iberre Zeharbide, 1
Tel. 946 774 220

EROSKI city Plentzia
Areatza, 1 - Tel. 946 774 281



Ebeko pintxoak
Askotariko konbinatuak
Garagardo eta ardo eskaintza zabala
Ostegunetan...pintxo-pote!

☎ 605 721 172 / 944 346 974
✉ newtavern@outlook.com
cafe.pub.newtavern.multipacioswell.com



araiarkitektura
Aitsiber Olatte Bidaurreasaga

www.araiarkitektura.com
94 677 34 36 | 652 747 584
Hormazalanda 3, 2 lokala. Gorliz

BERANGO | Santa Ana jaiak

Nostalgikoen gustuko gauak

Santa Ana jaiak, Berangon



Uztailak 26, barikua

11:00-12:00 Kalejira txistulariakaz.

12:00 Meza.

13:00 Hamaiketakoa eta euskal dantzak, Otxandategi taldeko umeakaz.

18:00 Asto-probak.

18:30-21:00 Umeentzako herri-kirolak.

20:30 Kantu-kalejira Berango Kantarigaz.

23:30 Kontzertua: Gozategi.

01:00 Disko-festa: Zerbikide.

Uztailak 27, zapatua

11:00 Txirrindularitza-lasterketa.

12:00-15:00 Umeentzako parkea.

18:00 Asto-probak.

19:00-20:00 Umeentzako emanaldia: Larima Cool.

23:30 Queen taldearen omenezko kontzertua: Capitán Mercury.

01:00 Disko-festa.

Uztailak 28, domeka

12:00 Tortilla-txapelketa eta bazkaria.

19:00-21:00 Disko-festa, Urko disc-jockeya.

21:00 Sardina-jana.

21:00-22:30 Mariatxiak: Los Gavilanes taldea.

Iaz bezala, uztailaren 26tik 28ra izango dira Berangoko Santa Ana jaiak. Musikari dagokionez, Gozategi talde beteranoa nabarmendu beharra dago.

ERREDAKZIOA ▶

Jaiaren lehenengo eguna santuarena bera izanda, ez da zaila igartzea haren ohorezko mezagaz hasiko direla aurren Santa Ana auzoko jaiak. Ohitura denez, horren ostean adineko pertsonentzako hamaiketakoa prestatuko dute, eta Otxandategi dantza-taldeko umeek haien omenezko eta han bilduko diren denen gozamenerako dantzaldia eskainiko dute. Arratsaldean asto-probak eta umeentzako herri-kirolak egongo dira, eta ostean, 20:30ean, kantu-jira hasiko da Berango Kantariren eskumenez.

Gauean dantza egiteko giroa, berriz, Gozategi talde ospetsuak ipiniko du. Haien emanaldiaren ondoren jaia ordu txikietara arte luzatu gura duenak horretarako aukera ere izango du, Zerbikidek eskainitako disko-festari esker.

Zapatu goizean Santa Anako egitarauko beste ekitaldi klasiko bat egongo da: txirrindularitza-lasterketa. Umeek, bien bitartean, eurentzat beren-beregi ipinitako parkean jardun ahal izango dute olgetan. Arratsaldean, berriz, emanaldia izango da haientzat, asto-proben ondoren.

QUEEN TALDEAREN KANTUAK. Modan daude aspaldiko rock-banda handiei gorazarre egiten dieten taldeak, eta horientzat ere izango da tarterik Santa Anan. Iaz itzelezko arrakasta izan zuen AC/DCren kantuak bikain jo zituen Bon Spirit boskoteak, eta aurren beste talde mitiko baten txanda izango da: Queen. Haiei omenaldia egiteko eta entzuleak gozarazteko asmoz igoko da oholtzara Capitán



Hiru eguneko festak hartuko ditu Santa Ana auzoak.

Zapatu gauean Queen taldearen bertsioak eskainiko ditu Capitán Mercury bandak.

Mercury, Espainiatik etorritako taldea. Eta bezperan legez, kontzertua amaitutakoan disko-festak emango dio segida jaiari.

Apalagoa izango da jaiaren hirugarren eta azken eguneko egitaraua. Eguerdian tortilla-txapelketan parte hartzera eta prestatutakoa inguruan bazkaltzera deituta daude bertakoak eta kanpokoak. Bazkalosteak luze joko du, eta 19:00etan itzuliko da jaia, Urko disc-jockeyak eskainitako disko-festagaz; ondoren, 21:00etan, sardina-jana egingo dute. Azkenik, Mexiko aldeko doinuak ekarriko dituzte Los Gavilanes mariatxiek, 2019ko Santa Ana jaiari agur esateko. ◀

Roke Deuna 25 - Getaria. T. 943.140.143 www.siazgetaria.com

XV. mendeko dorretxe gotikoa!

AREETA (GETXO) | Santa Ana jaiak

Areetarrak ere ospakizunez gozatzeko gogoz eta prest daude

Areetako Santa Ana auzoan ere dena prest izango dute honezkero, bertoko jaiak uztailaren 19tik 21era arte izango dira eta. Bertoko jai-batzordeak adin eta gustu guztiei begirako ekitaldiak antolatu ditu.

ERREDAKZIOA ►

Areetako Santa Ana auzoa festaz jantziko da uztailaren 19tik 21era bitartean, iazkoaren oso antzeko egitarau batez. Egun horietan, bertakoak diren denentzako eta kanpotik doazenentzako ekitaldi ugari egongo dira, umeentzat, gazteentzat zein helduentzat. Jaiak barikuan hasiko dira, uztailaren 19an. Arrastiko 19:00etan izango da txupinazoa, baina hori baino lehenago, 17:00etatik hain zuzen, neska-mutilek puzgarri eta bestelakoetan jolasteko aukera izango dute, baita zapatuan (goizez zein arrastiz) eta domekan goizean ere.

Suziria amatu bezain laster buruhandiak kalerik kale ibiliko dira, han eta hemen harrapatuko dituztenak astintzeko asmoz. Iluntzeko 20:30ean sardina-janaz tripak ase ahal izango dira, eta gero Yao! taldearen doinuak entzungo dira Santa Ana enparantzan. Haien ostean musikak jarraitu egingo du, disko-festa izango baita ordu txikietara arte.

OHIKO EKITALDIAK. Hurrengo egunean, zapatuan, Magic karta-jokoan lehiatzeko aukera egongo da 10:00etan, eta ondoren, euskal dantzen ohiko erakustaldia egingo du Berantzagi taldeak, 13:00etan. Bitartean, umeak jolas-gunean ibiltzeko modua izango dute, eta bazkalordura hurbiltzean tortilla-txapelketaren tartea ailegatuko da.

Arrastian, Areetako Santa Ana auzoan ezinbesteko hitzordu bihurtu diren lehiaketa bitan parte hartu ahal izango dute bertara joaten direnek. Igel-tokan eta txapel-jaurtiketan, hain zuzen ere. Bitartean, magia-erakustaldiaz gozatu ahal izango dute txikienek, arrastiko 19:00etan. Gaua ailegatzean, 22:30ean, La Tokokera eta Kulto Kultibo taldeek kontzertuak eskainiko dituzte, baina horren aurretik indarra hartzeko aukera egongo da saiheskia janez.

Uztailak 19, barikua



- 17:00** Umeentzako jolasak eta puzgarriak.
- 19:00** Txupinazoa eta buruhandiak.
- 20:30** Sardina-jana.
- 22:30** Kontzertua: Yao! Ondoren, disko-festa.

Uztailak 20, zapatua

- 10:00** Magic jokoaren txapelketa.
- 11:00** Puzgarriak.
- 11:30** Umeentzako jolasak
- 13:00** Berantzagi Taldeak eskainitako euskal dantzen erakustaldia.
- 13:45** Tortilla-txapelketa.
- 17:00** Umeentzako jolasak eta puzgarriak.
- 18:00** Igel-toka eta txapel-jaurtiketa.
- 19:00** Magia-erakustaldia.
- 20:30** Saiheski-jana.
- 22:30** Kontzertua: La Tokokera + Kulto Kultibo.

Uztailak 21, domeka

- 11:00** Hiruko futboleko txapelketa.
- 11:30** Umeentzako jolasak eta puzgarriak.
- 12:00** Zumba.
- 13:00** Paella-txapelketa.
- 17:00** Ur-guda.
- 17:30** Bits-festa.
- 18:30** Herri-kirolak.
- 19:30** Sari-banaketa.
- 20:00** Karaokea.
- 23:00** Zinema.



Adin eta gustu denentzako egitaraua prestatu dute aurten ere.

DOMEKA, UR ETA BITS ARTEAN. Jaietako azken eguna hasteko hiruko futboleko lehiaketa hainbat eta hainbat, goizeko 11:00etatik aurrera. Ordubete geroago, berriz, gorputzari astindua emateko bestelako modua egongo da, zumba-saioaren bitartez. Eta horren ostean, bezperan bezala, beste lehiaketa gastronomiko bat. Paellarena, kasu honetan.

Bazkalosterako tarreak 17:00ak arte iraungo du, eta orduantxe izango da bustitzeko momentua, ur-guda ailegatuko baita. Ordu erdi geroago, berriz, bitsaren festaz gozatu ahal izango dute umeak eta hain ume ez direnek. Behin eguzkiak lehortuta (eguraldiak lagundu egingo duela espero dezagun), herri-kirolen erakustaldia ikusteko parada egongo da, eta ostean, 19:30ean, jaietan egindako lehiaketen sariak banatuko dituzte. Irabazleek karaokean kantatuz ospatu ahal izango dute garaipena 20:00etan, eta galtzaileek modu berean kontsolatuko dute euren burua beharbada. Azkenik, urteroko ohitura den legez, zine-emanaldi batez igaro ahal izango dira jaietako azken momentuak. ◀



INDARlan
OBRAS Y EVENTOS S.L.L.

GURE BEZEROEN ESKURA HONAKOAK JARTZEN DITUGU:

EKITALDIETAN:

Komuna-eramangarriak, modulu aurrefabrikatuak, txoznak, hesiak (itxiera, izuaren aurkakoak, oinezkoentzakoak...).

ERAIKUNTZA-ZERBITZUAK ETA BESTELAKOAK:

- Modulu aurrefabrikatuak (komunak, bulegoak, aldagelak), eskorak, segurtasun elementuak, itxiera-hesiak.
- Komuna automatikoak eta mantentze-lan berezituak.

Bermeo bidea, 5. Mungia. 94 471 14 41 - indarlan@indarlan.biz

ALGORTA (GETXO) | San Inazio jaiak

Saninazioen suziria bost egunez

Uztailak 27, zapatua

- 18:00** Pregoia irakurriko du Pitololo taldeak, iazko kuadrilla-txapelketaren irabazleak, San Nikolas plazan; ikurrinari omenaldia egingo diote; eta suziria botako dute Getxo Rugby taldeko neskek, liburutegiko balkoitik.
- 18:30** Kuadrilen jaitsiera irekia (kuadrillen txapelketan parte hartzen duten taldeentzako nahitaezko proba), San Nikolas plazatik hasita Telletxeko plazara arte.
- 20:00** Kaleko Urdangak, Gatz eta Jess y los Extenders, Tellagorri plazan, Aterki tabernaren eskumenez.
- 20:30** XVII. Jota eta Arin-arin Txapelketa, Telletxen.
- 22:00** Zezensuzkoa, Telletxeko errepidean.
- 23:00** Niña Coyote eta Chico Tornado eta Wet Cactus taldeen kontzertuak, San Nikolas plazan.
- 22:30** Kontzertuak, Kasino plazan.
- 23:00** Kontzertuak, txosna-gunean.
- 23:00** Sound System, Telletxen.

Uztailak 28, domeka

- Egun osoan** Zirkua, herriko plazetan.
- 08:30** XX. Txipiroi Lehiaketaren izen-ematea, Biotz Alai Abesbatza plazan.
- 09:30** Diana, kalerik kale.
- 10:00** III. Algortagraff grafiti-txapelketa herrian zehar eta umeentzako grafiti-tailerra San Nikolas plazan: Musika Eskolaren plaza (kamioia), Telletxe (autobusa), Zabalako kalea Julia Learra aurrean (furgoneta) eta Alkartetxe aurrean (autokarabana).
- 11:00** Umeentzako tailerrak eta puzgarriak, Telletxen.
- 11:00** XXIV. Kantxa Kirol Moda Herri Krossa.
- 11:30** Umeentzako talo-tailerra.
- 12:00** Txalaparta-saioa eta omenaldi berezia, Kasino plazan.
- 12:00** Zumba solidarioa, San Nikolas plazan.
- 12:00** Kantujira, Azebarritik abiatuta.
- 12:30** Igel-toka eta tiragoma-jokoak, Katean.
- 12:30** Kuadrilentzako tortilla-txapelketa irekia, Amezti inguruan.
- 13:00** Bertso-saioa, Kasinon.
- 13:00** Txalaparta-tailerra Uktest elkartearen eskutik, Telletxen.
- 13:00** XX. Txipiroi Txapelketako lapikoen aurkezpena, Biotz Alai Abesbatza plazan.
- 15:00** Bazkaria, Azebarrin.
- 17:30** Txipiroi-txapelketako sari-banaketa, Biotz Alai Abesbatza plazan.
- 18:00** Magia-ikuskizuna.
- 19:00** Buruhandiak, Sarrikobasotik abiatuta. Ibilbidea: Sarrikobaso, Algortako Etorbidea, San Nikolas, Tellagorri, Torrene, Telletxe eta buelta Sarrikobasora.
- 19:00** Janari-guda: zeinek jan lehenago 1,5 kilogramo odoloste? Baster tabernaren eskutik, Kasino plazan.
- 19:00** XXI. Zutik Eneko Caballero Futbito Txapelketa.
- 20:30** Wrong Strings taldearen kontzertua, Tellagorri plaza, Aterki tabernaren eskutik.
- 21:00** Giro berezia Amezti inguruan, DJ Lasaren eskutik, gau osoan zehar.



San Nikolas
IKASTOLA

KALITATEABIKAINTASUNAINNOVA
CIÓN**CALIDAD**DESDE1963**EXCELEN**
CIABERRIKUNTZAIDIOMASSOCIALS
CIENCESDBH**GUARDERÍA**JANTOKIA
KIROLAKDANTZAAUZOLANKOOPE
RATIBOAMUSIKABERTSOLARITZA

www.sanikolas.eus || 94 430 54 78 || Areneazpi, 15 - Algorta

murgilduko du Algorta jaietan



22:00 Zezensuzkoa, Telletxeko errepidean.
22:30 The Wizards eta Furies taldeen kontzertuak, San Nikolas plazan.
23:00 Kontzertuak, txosna-gunean.

Uztailak 29, astelehena

Egun osoan Zirkua, herriko plazetan.
09:30 Diana, kalerik kale.
11:00 Umeei eta gazteei begirako ekintzak, tailerrak eta puzgarriak, Telletxen.
Saharar herriari elkartasuna adierazteko ekitaldia: tearen zeremonia eta henna- eta maskara-tailerrak egingo dituzte, goiz osoan zehar.
Palestinako artisautza-erakustaldia eta idazketa-tailerra, Biladi elkartearen eskumenez.
12:00 Umeentzako moto-lasterketa, Tellagorri plazan.
12:00 Gazteentzako errugbia eta hockeya, Telletxeko errepidean.
12:30 Kuadrillentzako Herri Kirolak, San Nikolas plazan.
13:00 Bertso-saioa, Kasino plazan.
15:00 Gazte-bazkaria (lekua zehazteke). Ondoren, poteo animatua.
18:00 Nagusien luncha, Zabala eskolan.
18:30 Umeen jaitsiera, Areatxu fanfarreagaz, San Nikolas plazatik abiatuta Telletxera (Algortako Etorbidea-Torrene-Telletxe).
19:00 Nagusien dantzaldia, Trio Menta taldeagaz, Zabala eskolatan.
19:30 Umeentzako txokolate-jana eta dantzaldia, Telletxen.
20:00 Broken Brothers Brass Band, Katea ingurutik hasita San Nikolas plazara arte.
21:00 D'Capricho taldearen kontzertua, Azebarrin.
21:00 Bertoko taldeen kontzertuak eta plater irekia saioa, txosna-gunean.
22:00 Zezensuzkoa, Telletxeko errepidean.
22:00 Gazteentzako Dja, Telletxen.
22:00 DJ Plan B eta Magaz In Fernu taldeen kontzertuak, San Nikolas plazan.
23:00 Kontzertua, Kasino plazan.

Uztailak 30, martitzena

Egun osoan Zirkua, herriko plazetan.
09:30 Diana, kalerik kale.
11:00 Umeei begirako tailerrak eta puzgarriak, Telletxen.
12:00 Rally-desafioa (nahitaezko proba kuadrillen txapelketan parte hartzen duten taldeentzat), Telletxeko errepidean.
12:30 Umeentzako bits-festa, Telletxen.
13:00 Bertso-saioa, Kasino plazan.
15:00 Gazteen eta helduen kuadrillen bazkaria (nahitaezko proba kuadrillen txapelketan parte hartzen duten taldeentzat), San Nikolas plazan.
18:00 Umeentzako herri-kirolak, Getxo Herri Kirolak taldearen eskutik, Telletxen.
20:00 Saninazioetako jaitsiera tradizionala, Lau Bidetik Ereaga hondartzako barraketaraino. Heltzean, txistulariak, trikitilariak eta zezensuzkoa, Isidroren omenez (nahitaezko proba, kuadrillen txapelketan parte hartzen duten taldeentzat).
22:00 Crap eta State Alerta taldeen kontzertuak, Tellagorri

plazan, Aterki tabernaren eskutik.
22:30 Willis Drummond, Sua eta Aukera Okerra taldeen kontzertuak San Nikolas plazan.
23:00 Erromeria tradizionala, Kasino plazan.
23:00 Pintxada jatorra, txosna-gunean.

Uztailak 31, eguaztena

Egun osoan Zirkua, herriko plazetan.
09:30 Diana, kalerik kale.
09:30 74. Getxo Zirkuitua & 19. Ricardo Ochoa Memoriala. Irteera eta helmuga Arkotxan egongo dira, Foruen kalean.
11:00 Umeentzako puzgarriak eta tailerrak, San Nikolas eta Musika Eskolako plazetan.
11:00 Ponpa-tailerra.
11:30 Dantzari-taldeen bilkura, Kasune kalean.
12:00 Dantzari-taldeen kalejira. Ibilbidea: Kasune, Salsidu, Bolue eta Telletxe kaleak.
12:00 Meza nagusia eta ohorezko aureskua, San Inazio elizan.
12:30 Euskal dantzen agerraldia, Telletxe plazan.
13:00 Umeentzako ur-gerra, Musika Eskolako plazan.
13:00 Bertso-saioa, Kasino plazan.
15:00 Bertso-maratoia.
17:30 Erraldoien eta buruhandien konpartsen bilkura, Kasune kalean.
18:30 Herri-kirolak: Bizkaiko Herri Kirol ligaren jardunaldia Getxo HKT taldearen eskutik eta Bizkaiko Zaku Eroate Txapelketa, Telletxeko errepidean.
18:00 Erraldoien eta buruhandien konpartsen kalejira. Ibilbidea: Kasune, Sarrikobaso, Katea (erraldoien lehenengo dantzaldia), San Nikolas plaza (erraldoien bigarren dantzaldia), Algortako Etorbidea, Kasino plaza (erraldoien hirugarren dantzaldia), Basagoiti Etorbidea, Torrene, Telletxe errepidea (erraldoien laugarren dantzaldia).
18:00 XXI. Zutik Eneko Caballero Futbito Txapelketaren 3. eta 4. postua.
18:00 Screemers & Sinners taldearen kontzertua, Tellagorri plazan, Aterki tabernaren eskutik.
19:00 XXI. Zutik Eneko Caballero Futbito Txapelketaren finala, Batzokiko patioan.

Egitarau hau behin-behinekoa da; aurrerantzean, aldaketaren bat egon liteke.

20:00 Kuadrillen erakustaldi-saio irekia (nahitaezko proba kuadrillen txapelketan parte hartzen duten taldeentzat), San Nikolas plazan.
20:30 Larrain-dantza, Kasino plazan.
22:00 Zezensuzkoa, Telletxeko errepidean.
22:00 XXI. Zutik Eneko Caballero Futbito Txapelketaren eta kuadrilla-lehiaketaren sari-banaketak; ostean, dantzaldia Bidean erromeria taldeagaz, San Nikolas plazan.
23:00 Su artifizialak, Vulcano pirotekniaren eskumenez, Ereaga hondartzan.


Taberna Berri
Sarrikobaso 4. ALGORTA
94 430 64 93
*Giro ona eta pintxo goxo-goxoak.
Oso ondo pasa jaietan!*

AUTODEFENTSA FEMINISTA

HAZIK
Algeriako Erakunde Gaste Feministak

Etxean nahi ditugulako!

Salsidu, 20 ALGORTA

BAR GOIKOA

GOIKOA TABERNA
Alango 14, Algorta
946 025 393
1979. urtean sortutako

ALGORTA (GETXO) | Pititolo kuadrilla

«Garaikurrak ez du gure erritmoa aguantatu»

IKER RINCON MORENO ▶

Pititolo kuadrilla 24 eta 27 urte arteko hamabi mutil inguruk osatzen dute. Joan den urtean, kuadrilla-txapelketa irabazi zuten, Algortako San Inazio jaietan, festetako proba-lehiaketan izen horregaz parte hartzen zuten lehenengo aldiari, hain zuzen ere. Kontuak hala, 2019ko pregoia irakurriko dute, Getxo Rugbyko neskek jaiei hasiera emango dien txupina jaurti aurretik.

Gogotsu ospatuko zenuten iaz kuadrilla-txapelketa irabazi izana, ezta? Gehiegi agian... Kuadrilla-txapelketan irabazi genuen garaikurrak ez zuen gure erritmoa aguantatu.

Zeintzuk izan ziren irabazteko gakoak? Hasiera batean ez genuen irabazteko espektatibarik, baina jaitsiera irabazi genuela konturatu ginenean hurrengo probak gogotsuago hartu genituen, betiere garrantzia ondo pasatzeari emanda.

Aurten pregoia irakurriko duzue, zer mezu helarazi gura duzue horregaz? Jaietan parte hartzeraz gona bidatu nahi ditugu kuadrilla guztiak, generazio berriak zein betikoak. Jaiak, jai bereziak eta herrikoiak bihurtzea gure esku dago.

Aurten ere irabazteko asmorik duzue? Ez da gure helburu nagusia, baina saiatu beharko dugu.

Zer nabarmenduko zenukete Algortako San Inazio jaiak? Egunean zehar egoten diren ekintzak, probak eta bazkariak. Giro polita egoten da eguneko 24 orduetan.

Zeintzuk proba dira gustukoen dituzuenak? Tortillak eta kuadrillen jaitsiera, zer edo zer esatearren. Egia esan berdin zaigu zein proba egin, berdin-berdin disfrutatzen ditugu.

Zer nahiago duzue jai horietan, eguna ala gaua? Gutako gehiengoak eguna nahiago dugu; hala ere, gure artean badago bihurriren bat ere, eta nahiago dute gau-giroa.



Iazko kuadrilla-txapelketaren irabazlea izan zen Pititolo taldeak irakurriko du Algortako saninazioetako pregoia.

San Inazio jaiak
«Egunean zehar askotariko ekintzak egoten dira, hala nola probak eta bazkaria. Giro polita egoten da eguneko 24 orduetan»

Eguna ala gaua?
«Gutako gehiengoak eguna nahiago du; hala ere, gure artean egon badago bihurriren bat gaua nahiago duena»

Zelan baloratzen duzue festak prestatzen dabilen jai-batzordearen lana? Lan paregabea egiten dabilta. Egia esan, orain dela ez horrenbeste urte, Algortako jaiei ez genituen gogo handiz itxaroten, baina azken urte hauetan gauzak aldatu egin dira eta jai-batzordearen lanak horrekin zerikusi handia izan duela uste dugu.

Pertsona gutxik parte hartzen dute batzordean. Etorkizun hurbilean zuen burua ikusten duzue jaiak antolatzen? Asko zor diegu jai-batzordean dabilen jendeari, baina ez dugu gure burua ikusten horretan parte hartzen. Lan-karga handia da eta hori arintzeko beharra dutenean laguntzeko prest egongo gara, baina ez partaide izateko.

Egun horietan Algortara hurbilduko direnei zer esango zeniekete? Berandu ez etortzea, txosnek ez baitute berandura arte irauten zabalik.

Zer esango zeniekete Getxoko Udalari txosnak beranduagora arte zabaltzeko baimena eman dezan? Gure ustez, herri hau ez dago gazteentzat prestatuta, inola ere. Gazte asko gara, eta herrian bertan parranda egiteko gogoak daukagula argi dagoen arren, urtean zehar parranda on bat egiteko beti Bilbora joatera behartuta gaude. Hori dela eta, uste dugu Algortako jaietan gutxienez parranda luzea herrian egiteko aukera eduki beharko genukeela. Badakigu ere, lo egin behar dutenentzat ez dela erreza, baina urtean bost gau izanda ez dugu uste horrenbeste denik... ◀




ALGORTAKO ETORBIDEA, 53 | ALGORTA
944 040 680 | heralgorta@gmail.com

HERalgorta




ALGORTAKO ETORBIDEA, 59 | ALGORTA
653 721 056 | osoalgorta@gmail.com

OSOalgorta



ILE-APAINDEGIA ETA ESTETIKA

UMEEI ILEA EBAKITZEA 6€
AURPEGI HARI-DEPILAZIOA

Ordutegi jarraia:
Asteazkenean, 9:30-19:00
(astelehenak itxita)
Zapataz, 9:00-14:00



ALANGOETA 6, ALGORTA
TEL. 944 608 222
www.peluqueriamarsun.es



San Inazioetan...
egin topa
desmilitarizazioaren alde
gure txosnan!

ALGORTATIK HANKA
indar okupatzaileen
kontrako mugimendua

31.
Marboarteko Jaiak
Festival Internazional



Getxo & Blues

2019. UZTAILAK 18-20 JULIO

MUXINEBARRI (Arrigunaga Aretoa / Sala Arrigunaga) Basagoti etorbidea, 77 - Algorta

OSTEGUNA 18 JUEVES

ERIC BIBB

20:00 10€

OSTIRALA 19 VIERNES

**PAUL LAMB AND
THE KING SNAKES**

21:00
10€

LARUNBATA 20 SÁBADO

**TRUDY LYNN AND
HER BLUES BAND**

21:00
15€

OSTIRALA 19 VIERNES

DETRACTORS

20:30 - 00:30

The Piper's Irish Pub
(Algorta)

LARUNBATA 20 SÁBADO

BLUE BIRD

15:00 Kint Portua - Puerta Deportivo

FRANK BLACKFIELD BAND

23:00 The Piper's Irish Pub (Algorta)

GRANUAS A TODO

RITMO STREET BAND

15:00 Algorakoa Caltokale Plaza


20:00 Plaza Estación / San Nikolas Plaza

IGANDA 21 DOMINGO

MISSISSIPPI QUEEN AND THE WET DOGS

15:00 Kint Portua - Puerta Deportivo

ALBUERNE



www.getxo.org
kulturtresas@getxo.org

SARREREN SALMENTA / VENTA DE ENTRADAS

Algorakoa Kultur Etxea
Vitoriano, 40 T. 945 101 40 40

Romero Kultur Etxea
Santa Eugenia, 1 T. 945 101 40 40



PLENTZIA | Saratxagako jaiak eta San Inazio Eguna

Plentziarren ospakizun bikoitza uztailari agur esateko



Egun osoko ospakizuna egingo dute Santa Maria Magdalena elizaren aurreko plazan, uztailaren 31n.

Egun bakarreko jai bi ekarri ohi ditu uztailaren amaierak Plentziara. 29an Saratxaga auzoan egingo dute ospakizun xumea, eta San Inazio egunean, berriz, elizaren aurreko plazan izango da hitzordua. Batean zein bestean, ez da ondo pasatzeko aukerarik faltako.

ERREDAKZIOA ►

Uztailari agur esan aurretik, jai-egun biz goatzeko egundoko aukera izango dute plentziarrek eta itsas hiribildura hurreratuko direnek. Batetik, uztailaren 29an, astelehenean, Saratxaga auzoan izango da ospakizuna. Eguerdia pasata hasiko da jaia, 12:30ean; ordu horretan meza emango dute, baina ez eliza barruan (halakorik ez dago eta), aire zabalean baino. Meza ez dute santu jakin baten ohorez egingo, elizarik ezean patroirik ere ez baitute Saratxagan. Beharrik ere ez, antza; urtez urte, uztailaren 29ko data daukate gordeta auzoko jaia egiteko, santu barik bada ere, eta horregaz pozik.

Uztailak 29, astelehena Saratxaga auzoa

12:30 Meza, aureskua eta luncha.

Uztailak 31, eguaztena San Inazio Eguna

11:00 Txupinazoa.**12:00** Dantza-saioa Plentziako Itxas Eder taldearen eskutik.**13:00** Meza.**18:00** Umeentzako jolasak.**20:30-23:00** Disko-festa.**22:00** Zezensuzkoa Azurtegiendon.

AURTENGOAN HERRI-BAZKARIK EZ. Mezaren ostean ohorezko aureskua dantzatuko da, eta azkenik luncha prestatuko dute bertara joango diren denentzat. Horixe izango da egitarau osoa aurrean. Hau da, ez da herri-bazkaririk egingo, ezta dantzaldirik ere, iaz egin zuten moduan (orduko hartan domekan egokitu zen ospakizuna).

SAN INAZIO EGUNA, ELIZA INGURUAN. Egun bi geroago, uztailaren 31n (eguaztena) San Inazio eguna ospatuko dute Plentziako Santa Maria Magdalena eliza aurreko plazan. Txupinazoa 11:00etan botako dute, eta ordubete geroago Itxas Eder dantza-taldearen emanaldia hasiko da. 13:00etan, berriz, eliza barrura sartu eta meza egingo dute Bizkaiko patroia- ren ohorez. Arratsaldeko 18:00etan itzuliko da festa plazara, umeentzako jolasak egingo baitituzte ordu horretan. Iluntzea hurbildu ahala, 20:30ean zehazki, disko-festa hasiko da. Gaueko 23:00ak arte iraungo du musikak, edo hala dio behintzat egitarau ofizialak; gero, gerokoak. Hori bai, gaueko 22:00etan etentxoa egingo du musikak, ume eta ez hain umeek zezensuzkoagaz goza dezaten Azurtegiendon. ◀

BERANGO | Santo Domingo jaiak eta Bakailao Jai Herrikoia

Lau eguneko jaiak Berangon, eta azkenbururako, bakailaoa

Santo Domingotxu eguna (abuztuak 5) astelehenean egokitu dela eta, berriro ere lau egun izango dituzte aurten Berangoko santodomingoek. Ondorengo domekan egingo dute Bakailao Jaia, ohitura denez.

ERREDAKZIOA ▶

Iaz baino egun bat gehiago izango dute Santo Domingo jaiak 2019an. Abuztuaren 2tik 5era egingo dituzte, hain zuzen. Bariku arrastian, kuadrillen jaitsierak emango die hasiera ospakizunei, Aldats elektro-txaranga lagunduta. Ordu batzuk geroago, 23:30ean, Ze Esatek taldearen kontzertua izango da eliza ondoko agertoki nagusian. Agur esateko bira egiten dabil aurten talde gipuzkoarra, eta Berango da azken emanaldiak egiteko aukeratutako lekuetako bat.

Aurreko urte bietan bezala, herri-bazkaria antolatuko du Berango Kantari taldeak, aurretik Sabino Arana kalean kantu-jiran ibili ostean. Aurten, baina, abuztuaren 3an egingo dute, zapatuagaz, eta ez Santo Domingotxu egunean. Eguerdiko 13:00etan hasiko da kantu-ibilbidea, eta 15:00etan bazkaria. Ondoren bingoa izango da, eta 20:00ak aldera umeei begirako emanaldia egongo da. Drindots taldearen erromeriak biribilduko du zapatua. Abuztuaren 4an, ohi denez, meza eta nagusientzako hamaiketako izango da, Otxandategi dantza-taldeko umeen emanaldi eta guzti. Familiagaz bazkaldu ostean, arrastiko 19:00etan bueltatuko dira berangoztarrak jaira. Besteak beste, bilbainadak entzuteko aukera eduko dute Los Txinberos taldearen eskumenez, eta gero hanburesak banatuko dituzte, doan, indarra berreskuratzeko, The Old Timey String Band taldearen kontzertuari gogoz aurre egin ahal izateko.

Santo Domingotxu egunean amaituko dira jaiak. Egun garrantzitsua izaten da Berangon, baina aurten, astelehenean egokituta, egitaraua meheagoa izango da beste batzuetan baino. Ume eta gazteei begirako hainbat ekitaldiren ostean, Otxandategi dantza-taldea ikuskizuna eskainiko du 20:00etan, Xabi Aburruzaga trikitilariak jo aurretik. Eta ohiturak lege, santodomingoak amaitu osteko domekan egingo dute, leku berean, pil-pilean prestatutako Bakailao Jai Herrikoia.



Abuztuak 2, barikua

18:00-21:00 Kuadrillen jaitsiera eta Aldats elektro-txaranga.
19:30-21:00 Disko-txiki: DJ Kaktus.
23:30-01:00 Kontzertua: Ze Esatek (agur esateko bira).
01:00-04:00 DJ Tama.

Abuztuak 3, zapatua

12:00-14:00 Umeentzako parkea.
13:00 Berango Kantari, Sabino Arana kaletik abiatuta.
15:00 Herri-bazkaria, Berango Kantarik antolatua.
17:00 Bingoa.
17:00-20:00 Umeentzako parkea.
19:30 Eskuz binakako pilota-partiduak.
20:00 Umeentzako emanaldia.
23:30 Erromeria: Drindots.
03:30 Disko-festa.

Abuztuak 4, domeka

11:00 Kalejira, albokari eta pandero-joleakaz.
11:00 Berangoko pala txapelketaren VI. edizioa, emakumezko eta gizonezkoentzat.
12:00 Meza.
13:00 Nagusientzako hamaiketako, Otxandategi Dantza Taldeko umeen emanaldiak alaitua.

18:00 Gomazko pilota-partiduak (emakumeenak).
18:30-20:30 Umeentzako tailerrak.
19:00 Playback-txapelketa: Got Talent.
19:30 Idi-probak.
20:00 Bilbainadak: Los Txinberos.
21:00 Hanburesa-jana.
22:00 Kontzertua: The Old Timey String Band.
23:15 Disko-festa.

Abuztuak 5, astelehena

13:00 Bitsaren jaia.
17:00-20:00 Gazte-parkea.
18:30 Umeentzako erromeria: Begira taldea.
19:30 Txokolate-jana.
20:00 Otxandategi dantza-taldearen emanaldia.
21:30 Kontzertua: Xabi Aburruzaga.

Abuztuak 11, domeka Bakailao Jai Herrikoia

Egun osoa Elexalden igaroko dute kuadrillek, bakailaoa pil-pil erara prestatzeko.
11:30-13:30 / 16:00-18:00 Umeentzako ur-puzgarriak.
18:00 Dantzaldia: El Último Guateque.



**NEBARREBAK
TABERNA**

ONDO PASA JALETAN!

Sabino Arana 20, Berango
946 68 07 80

**FRONTOI
TABERNA**



Sabino Arana Kalea, 25 • BERANGO
Tel. 946 682 604

sano goxo
BASERRIKO
denda

LANTZARTE ALIZOA, 13 BERANGO
BARRIO LANTZARTE, 13 BERANGO
699 81 12 89

SERVICIO A DOMICILIO
ETXERAKO ZERBITZUA

SERVICIO A COLECTIVIDADES, TXOKOS Y GRUPOS DE CONSUMO
KONTSUMO TALDE TXOKO ETA KOLEKTIBITATEI ZERBITZUA

Baserriko sasoiko produktuak
Productos de caserio de temporada

Produktu ekologikoak
Productos ecológicos

Goi-mailako produktuak
Productos selectos y gourmet

Valentziako zitrikoak
Cítricos valencianos

Sasoiko fruta ekologikoak
Frutas de temporada ecológicas

Opari egiteko otzaran-egokituak
Cestas de regalo personalizadas

Produktuak Km0
Productos Km0

GETXO/LEIOA | Itzurbaltzeta/Romo eta Pinuetako jaiak

Festak eta algarak blaituko dituzte

Uztailak 28, domeka

Nezakari Eguna

- 10:00** Play-back-eko Cda edo Pendrive-a eman beharra dago. Kalamua kalean.
10:00 Nekazaritza eta artisau azoka, Kalamua kalean.
12:00 Tabernen arteko Futbito Txapelketaren finala, Gobela kiroldegian.
12:00 Poteo girotua kalez kale, Zasi Eskolaren eskutik.
12:15 Pintxo-lehiaketa: Romoko VI. pintxoaren bila.Tabernetan.

Uztailak 30, martitzena

Goitibehera Eguna

- 10:30** Gizonezkoen igel-toka txapelketa, Ibar Nagusien Etxeak antolatuta, euren egoitzan.
13:00 Plater irekia: izen-ematea. Cervantes plazan.
14:30 Plater irekia: aurkezpena. Cervantes plazan.
16:00 Plater irekia: sari-banaketa. Cervantes plazan.
19:00 Goitibeheren elkarretaratzea, txosnagunean.
19:30 Goitibeheren kalejira.
21:00 Goitibeheren igoera, Txistulariaren aldapan.
22:30 Txistorra-jana, Dolores Ibarruri plazan.
23:30 Erromeria: Oharkabe. Dolores Ibarruri plazan.

Uztailak 31, eguaztena

Txupin Eguna

- 10:30** Emakumezkoen igel-toka txapelketa, Ibar Nagusien Etxeak antolatuta, euren egoitzan.
11:30 Txikigunea, Santa Eugenia plazan.
12:00 Poteoa txosnagunetik abiatuta, Mandangax eta Notxuk antolatuta.
13:00 Txosnen irekiera.
14:30 Herri-bazkaria, Getxoko etorkinen plataformak antolatua, txosnagunean.
16:30 Kuadrillen arteko Olinpiadak, txosnagunean.
17:30 Txikigunea, Santa Eugenia plazan.
18:30 Txistularien kalejira.
19:00 Elkartasun-taloak, Gobelondo kalean.
19:30 Pregoia eta txupin jautiketa, Haszten elkartearen eskutik, Kolas plazan.
19:45 Kalejira.
20:30 Dantza-erakustaldia, Zasi Eskolaren eskutik eta Berantzagi dantza-taldearen parte hartzeagaz, txosnagunean.
22:00 Transformismoa: Las Fellini, Dolores Ibarruri plazan.
22:30 Gure itzalak zuen amets gaiztoak izango dira. Gora borroka feminista! manifestazioa, IEA eta Kresala taldeek antolatuta, txosnagunetik.
22:00 Zinema, Texas tabernari esker. Pinuetan.
00:00 DJ Bull, Dolores Ibarruri plazan.

Abuztuak 1, eguena

Sonbreru Eguna

- 11:30** Txikigunea, Santa Eugenia plazan.
12:00 Trikitixa-kalejira, txosnagunetik abiatuta.
12:00 Zezen mekanikoa, La Burra Salvaje tabernaren eskutik, Amalloa kalean.
13:00 Herri-parrilada Baste tabernaren eskutik. Kresaltxu kalean.
15:00 Elkartasun bazkaria, txosnagunean.



ERRROMOKO XIV. HERRI KROSA

Txikiak (3-9 urte)
450m

Gazteak (10-15 urte)
900m

Nagusiak eta beteranoak
4.000m

ABUZTUAK 1 DE AGOSTO
19:45EAN GANETA PLAZAN

IZEN ERATEA/ INSCRIPCIÓN
17:30etik 19:30era Ganeta plazan
De 17:30 a 19:30 en la plaza Ganeta

Se adaptarán recorridos y se establecerán apoyos de acompañamiento para personas con diversidad funcional, si fuera necesario

INFORMARSE PREVIAMENTE EN HASZTEN:
699 609 588

e auzoko txoko denak astebetez



- 17:30** Txikigunea, Santa Eugenia plazan.
17:30 Futbolin-txapelketa jarraia, Topa tabernaren eskutik. Santa Eugenia kalean.
18:30 El Despiste fanfarrea.
19:00 XIV. Herri Krosa, Ganeta plazan.
19:00 Txontxongilo-tailerra, Pedrito litxarrerria-dendaren eskutik. Gobelondo kalean.
19:00 Labanagaz moztutako urdaiazpiko-dastaketa, Ibaiondo harategiaren eskutik. Ibaiondo kalean.
19:00 Elkartasun-taloak, Gobelondo kalean.
19:30 Txorizo-jate herrikoia, Gobela tabernaren eskutik. Zubietako kalean.
20:00 Musika klasikoa: Georgina Barrios (piano-jotzailea), Ameli Rodriguez (sopranoa), Roberto Rodriguez (tenorra), Jose Angel Fernandez Zurdo (baritonoa) eta Txus Diharce (aurkezlea). Romo Kultur Etxean.
20:30 X. Txapel Lehiaketa, Andros tabernaren eskutik. Amalloa kalean.
21:00 Bertso-jira: Alaia Martin eta Igor Elortza. Txosnagunetik abiatuta.
21:00 Tekno Gaua, Dolores Ibarruri plazan.
21:00 Café Cubano taldearen kontzertua, Azkena tabernaren eskutik. Kalamua kalean.
21:30 Clowerwind taldearen kontzertua, Museo tabernaren eskutik, Kalamua kalean.
21:30 Ready Aim Fire taldearen kontzertua, Metal Urdin tabernaren eskutik. Kresaltxu kalean.
22:00 Zinema, Texas tabernari esker. Pinuetan.
22:30 Kontzertuak: Modus Operandi + bertoko talde bat, txosnagunetan.
00:00 Gazte Mugimenduaren ekitaldia, txosnagunetan.

Abuztuak 2, barikua

Felix Arnaiz Eguna

- 11:30** Txikigunea, Santa Eugenia plazan.
12:00 Txistularien kalejira, kalez kale.
12:00 Umeentzako eskulan-tailerra, Txabiruren Aulkian.
12:00 Erretiratuen bazkaria, Ibar Nagusien Etxean.
12:00 Zezen mekanikoa, La Burra Salvaje tabernaren eskutik. Amalloa kalean.
12:30 Felix Arnaizi omenaldia, Ibaiondo kalean.
13:30 Muztio rallya, txosnagunetik abiatuta.
17:00 52. Poteo Rallya, txosnagunetik abiatuta.
17:30 Txikigunea, Santa Eugenia plazan.
18:00 Buruhandiak eta txistulariak, Agurraren eskutik. Kalez kale.
18:30 Fanfarrea, kalez kale.

- 18:30** Txitxarrilloa, Ganeta plazan.
19:00 Herri-kirolak: Inaxio Perurena harri-jasotzailea eta Burdin Gazteak (Urtuella) eta Kabiezes (Santurtzi) taldeetako harri-zulataileak, Maiatzaren Bata kalean.
19:00 Elkartasun-taloak, Gobelondo kalean.
20:00 Bertso-saioa: Amets Arzallus, Onintza Enbeita, Iratxe Ibarra eta Inazio Vidal. Gai-jartzailea: Peru Vidal. Txosnagunetan.
20:00 Gran Perro taldearen kontzertua, Zer Nahi tabernak antolatuta. Kalamua kalean.
20:00 Tacoma taldearen kontzertua, Lolas eta Anaia tabernekin antolatuta. Urkizu kalean.
20:30 Five Direction taldearen kontzertua, La Mona, Tudelilla eta Arotza tabernekin antolatuta. Gobelondo kalean.
20:30 J.O.E. Rockband taldearen kontzertua, Baste eta Amaya tabernekin antolatuta. Kresaltxu kalean.
21:00 Los Malvadiños taldearen kontzertua, Andros tabernak antolatuta. Amalloa kalean.
21:30 Lion Heart taldearen kontzertua, Metal Urdin tabernak antolatuta. Kresaltxu kalean.
22:00 Playback, Dolores Ibarruri plazan.
23:00 Kontzertuak: Zoo + bertoko talde bat, txosnagunetan.
23:00 Kurloi Ezkertiarren Esnea, Ganeta plazan.
23:00 Mojito disko-festa, Gure Etxea eta Basajaun tabernaren eskutik. Aurrezki Kutxa kalean.

Abuztuak 3, zapatua

Putxera Eguna

- 09:00** IX. Putxera Lehiaketa: izen-ematea. Ganeta plazan.
12:00 Kantuz Itzurbaltzetan, kalez kale.
12:00 Erromoko Kantariak, kalez kale.
12:00 Trikitixa, kalez kale.
12:00 Zezen mekanikoa, La Burra Salvaje tabernaren eskutik. Amalloa kalean.
12:00 Umeentzako Bizikleta eta Molto Motorren ginkana, Ciclos Olabarrietaren eskutik, Gobelaurre plazan.
13:00 Aerobica, txosnagunetan.
13:00 Igel-toka txapelketa, Koldo tabernaren eskutik, Kresaltxu kalean.
13:00 Kantu-jira ibiltaria, La Monatik abiatuta.
14:00 IX. Putxera Lehiaketa: aurkezpena, Ganeta plazan.
15:00 Etxe Merke Eguna, Etxe Merkeetan.
15:00 Kantu-jiraren bazkaria. Lekua zehazteke.
15:30 IX. Putxera Lehiaketa: sari-banaketa, Ganeta plazan.

- 17:00** Mus-txapelketa ofiziala. Lekua zehazteke.
17:00 Tiragoma-saioa, Gobelondo kalean.
17:30 Boxeo-erakustaldia, Bunkerren eskutik. Txosnagunetan.
18:30 Sorpresazko proba Itzurbaltzeta Gaztetxearen eskutik. Txosnagunetan.
20:00 Txitxarrillo: Ekhy taldea, Ganeta plazan.
20:30 Lomoken Hoboken taldearen kontzertua, Baste eta Amaya tabernaren eskutik. Kresaltxu kalean.
21:00 Show-gaua, Dolores Ibarruri plazan.
21:00 Kontzertuak: Necrocake + Sonámbula. Metal Urdin tabernaren eskutik. Kresaltxu kalean.
22:00 Zezensuzkoa, antzinako barreretan.
23:00 Ska Reggae emanaldia: Pagasarri Sound System + Train to Roots + Scarra Mucci & Heartical Sound. Txosnagunetan.
23:00 Kurloi Ezkertiarren Esnea, Ganeta plazan.
23:00 Mojito disko-festa, Gure Etxea eta Basajaun tabernaren eskutik. Aurrezki Kutxa kalean.
00:00 Elkartasun-kalejira, txosnagunetik abiatuta.

Abuztuak 4, domeka

Tortilla Eguna

- 06:00** Alpargata pertsonaien topaketa, txosnagunetan.
07:00 Tanga-lasterketa, Santa Eugenia kalean.
07:00 Iturri-lasterketa, Santa Eugenia kalean.
08:00 Diana herrikoi ibiltaria, txosnagunetan.
11:00 Puzgarriak, Santa Eugenia plazan.
12:00 Tortillak: izen-ematea. Ezequiel Aguirre, Etxague Jenerala, Aurrezki Kutxa eta Gobelondo kaleetan.
12:30 Tortillak: aurkezpena.
13:00 Parrilada herrikoia, Baste tabernaren eskutik. Kresaltxu kalean.
16:00 Plaza-dantza, Zasi Eskolaren eskutik. Gobelondo kalean.
17:30 Tortillak: sari-banaketa. Ezequiel Aguirre, Etxague Jenerala, Aurrezki Kutxa eta Gobelondo kaleetan.
18:30 Bilbainadak: Los Cinco Bilbainos, txosnagunetan.
19:00 Sardina-jana herrikoia, txosnagunetan.
19:00 Erraldoiak eta buruhandiak, Agurraren eskutik. Kalez kale.
21:00 Sari-banaketa, txosnagunetan.
23:30 Pobre de mí, kalez kale.
23:55 Azken traka, Ganeta zubian.
00:00 Azken afaria eta playback-aren errepikapena, txosnagunetan.

TAPA TABERNA

Ostegun, bariku eta zapatuetan
20:00etatik-23:00ak arte
pizza goxo-goxoak!
...eta gero jai giroa!

SANTA EUGENIA KALEA, 13
ERROMO

Urbe Kostako gazteria saltsan!!

AINGARA

BORDATUAK EUSKAL JANTZIAK

Aurrezki Kutxa, 18 48930 Erromo - GETXO

944 038 953
bordadosaingara.com

GETXO/LEIOA | Itzubaltzeta eta Pinuetako jaietako musika-eskaintza

Bertoko eta nazioarteko taldeen erreferentziazko oholtza

Itzubaltzeta eta Pinuetako jaietan gauez herria jendez gainezka egotea musikari zor zaio hein handian, eta hori ez da egun batetik bestera lortu, lan handia eginez baino. Arduradunetako batek eman dizkigu gakoak.

UNAI BREA ▶

Arrazoi askorengatik dute ospe ona Itzubaltzetako jaiek, eta horietako bat gauetako musika-eskaintza da. Azken urteetan horren ardura izan duen jai-batzordeko kideak horren zenbait gako azaldu dizkigu. Kaki du izena, abizenik gabe. Lanbide nagusia bestelakoa duen arren, eskarmentu handikoa da musikaren munduan, bai bateria-jotzaile modura (orain hamar urte ibili zen Okupando Roma taldean), bai argiztapen-teknikari modura, bai DJ modura, besteak beste.

Azken zazpi urteetan txosna-guneko agertoki nagusian zein Dolores Ibarruri plazan egiten diren kontzertuen produkzioaz arduratu da Kaki. Ez da ahuntzaren gauerdiko eztula: «7-8 hilabete lehenago hasten naiz, taldeak kontratatu eta burokrazia guztia antolatzen dut». Itzubaltzetan jaietan ibili den edonork ondo daki musikaz gozatzeko eskaintza zabalagoa dela aipatutako agertokietan egoten dena baino; barikuan eta zapatuan batez ere, taberna askoren alboan izaten dira emanaldiak. Horiek antolatzea ez da Kakiren zeregina, baina Udalarekiko bai-men-kontuak bideratzen laguntzen die ostalariei.

«Estilo guztiak programatzea da asmoa», dio, «baina asko euskarazko taldeak izaten dira, eta soinu indartsua dutenak». Hala ere, eskaintza askotarikoa izan dadin ahalegintzen direla erakutsi guran, aurtengo joko duen talde baten adibidea ipini du: Zoo valentziarrak. «Ez dute rock klasikoa egiten, rock-rap modukoa baizik, eta valentzieraz kantatzen dute».

TALDE BERRIEI BULTZADA. Barikuan (abuztuak 2) joko du Zook, txosna-gunean, eta euren aurretik oholtzara igoko da jaien aurretik antolatzen den maketa-lehiaketan saritutako taldeetako bat. «Taldea gazteei musika-munduan sartzea erraztu gura diegu, eta hori da lehiaketa egitearen zergatia»,



Ska-Reggae Jaialdia da Itzubaltzeta eta Pinuetako jaien musika-eskaintzan gehien nabarmentzen den ekintza.

Maketa-lehiaketa

«Taldea gazteei eta hasiberriei musika-munduan sartzea erraztu gura diegu, eta hori da lehiaketaren zergatia»

dio Kakik. Sari bi daudela aipatu digu. Bata, txikia, dirutan; «bestea, erraldoia, talde ezagun batek oholtzara igotzea».

SKA-REGGAE JAIALDIA, EGITARAUKO IZARRA. Jaietako eskaintza oparoaren barruan zapatu gaueko Ska-Reggae Nazioarteko Jaialdiak egiten du distira batez ere. Kakiren esanetan, «orain 21 urte hasi ginen egiten, eta oso ezagun bihurtu da dagoneko, reggae-jaialdien katean». Pagasarri Ska All Stars talde santurtziarra izango da aurtengo gonbidatuetako bat, Train To Roots italiarrakaz batera. Jamaikan jaioetako Scarra Mucci kantari frantziarra ere egongo da txosna-guneko oholtzan, beste artista esanguratsu batek: Heartical Sound. Laburbilduz, jaialdiaren fama behar bezala elikatzen jarraitzeko moduko egitaraua izango da aurtengo Itzubaltzetan, Kakiren iritziz. ◀

On-line denda

Bio Zelai

www.biozelai.com

*Elikagai
ekologikoak*

*Ekotzeak
eta banatzaileak*
★
*Etxez etxeko
zerbitzua*

info@biozelai.com | T: 685.798.567 | GATIKA (Bizkaia)


GORLIZ | San Lorentzo

Gauera bitarteko festa-eguna

Urtero legez, Gandia plazan ospatuko dute San Lorentzo eguna Gorlizen, abuztuaren 10ean. Hala, zapatu horretarako egun osoko egitaraua prestatu dute udalerrira hurbilduko diren gizon-emakume denentzat. Goizeko 11:00etan emango diote hasiera ospakizunari, txupina jaurtiz. Ondoren, 11:30ean, umeentzako puzgarriak egongo dira, eta 12:00etan falkoneria-erakustaldia. Zintzurak bustitzeko eta tripak betetzeko saiheski-jana eta sagardo-edana egingo dute ostean, 14:00etan. Arrastian, aldiz, jolasak (18:00), gau-dantza (21:00) eta zezensuzkoa (22:30) egongo dira gozagai. Azkenik, egunari amaiera emateko, gau-dantza egongo da, 22:30etik aurrera.

GETXO | San Lorentzo

Lehiaketa bako merkatu zabala

Abuztuaren 10ean, zapatuan, San Lorentzoko Azoka izango da Algortako San Nikolas eta Biotz Alai Abesbatzaren plazetan. Urtero legez, 52 saltoki kokatuko dituzte eta, antolatzaileek jakinarazi dutenez, aurreten lehentasuna eman zaio eskualdeko ekoizleen presentziari. Azoka goizeko 10:00etatik 14:30era izango da, Getxoko Kultur Etxeak eta BBK-k antolatuta. Aurreten, baina, ez da aurreko urteetan egondako lehiaketarik egingo. Hala, ez dute Idiazabal jatorrizko deiturako gaztarik, barazkirik ezta landararik onenak sarituko. Edozelan, euskal baserrietako produktu tipikoak erosi eta taloak, sagardoa eta bestelakoak dastatu ahal izango dira. Algortako San Lorentzo Bizkaiko azoka garrantzitsuenetako bat da; 18.000 lagun hurreratu ohi dira.

Andramariak Gorlizen Abuztuak 2-5



Abuztuak 2, barikua

18:00 Txupinazoa eta kalejira.
18:30 Umeei begirako jolasak.
20:30 Disko-festa umeentzat.
22:30 Zezensuzkoa.
23:00 Kontzertua Modus Operandi taldeagaz.

Abuztuak 3, zapatua

10:00 32. Herri-krosa, gazteentzat eta helduentzat, auzoan.
11:00 46. Tortilla Txapelketa (umeentzat; barbakoetan egin, lurrean ez).
11:30 Umeen parkea.
12:00 Itxas Eder dantza-taldearen erakustaldia.
13:00 Tortillen aurkezpena, 13:15ak arte,

epaileek dasta ditzaten. Ondoren, sari-banaketa.

17:30 Umeentzako ur-parkea.
22:30 Zezensuzkoa.
23:00 Kontzertua Oxabi taldeagaz.

Abuztuak 4, domeka

11:00 59. Paella Txapelketan izen-ematea.
12:00 Trikitilariak, landaz landa.
13:00 Paellen aurkezpena, landaren erdialdean; 13:30ak arte, epaileek dasta ditzaten.
18:00 Paella Lehiaketaren sari-banaketa.
19:30 Dantzaldia, disc-jockey baten eskumenez.
22:00 Zezensuzkoa.

***Oharra:** Ezin da landetan txabolarik edo antzekorik egin, surik ere ez. Barbakoak baino ezin izango dira erabili; lurrean ez egin surik.

Abuztuak 5, astelehena

11:00 Meza, Agirreko Andra Mariaren omenez.
12:00 Ohorezko aureskua, eta Gorlizko Aratz dantza-taldearen emanaldia.
13:00 Luncha, jubilatuentzat, baselizaren atarian bertan.
18:00 Herri-kirolen saioa: Bizkaiko Euskal Joko eta Kirol Federakundearen eskumenez.
20:00 Bilbotarrak abesbatza.
21:00 Zezensuzkoa eta jaien amaiera.

hiruka web

Plataforma berritua!

Plataforma Digitalaren bertsio berria estreinatu dugu, gailu mugikorrek xede!

Uribe Kostako informazioa modu argi eta ulerterrazean.
Bideoak eta argazki-galeriak.
Iritziak, zorion-agurrak, eguraldia...

Egunero zure pantailetan!

www.hiruka.eus



ERANDIO | Astrabuduko San Lorentzo jaiak

Bost eguneko festez gozatu ahalko

Abuztuaren 7tik aurrera, eten bako egitarau luze batez gozatu ahalko dute Astrabuduko auzokideek: gastronomia-saioak, kirola, dantzak, musika, desafioak... Denetarik egongo da, denontzat.

ERREDAKZIOA ▶



Uribe Kostako ia jai denetan eg

Auzoko txikienean emango diete hasiera Astrabuduko San Lorentzo jaiak eguaztenean, abuztuaren 7an. Hala, bost eguneko festez gozatzeko aukera izango dute Ulpianoren jarraitzaileek. Urtero legez, Astrabuduko jaietako maskota den Ulpiano astoak auzoko kale denak zeharkatuko ditu ospakizunei hasiera emateko; gura duenak beragaz argazkia ateratzeko aukera izango du lehenengo egunean. Horrek eta umeentzako antolatutako ekitaldiek hartuko dute goiza; arrastian, aldiz, Axpurura igoerak, kuadrillen jaitzierak eta 20:30eko txupinazoak inauguratuko dituzte ospakizunak. Gauean, berriz, Oxabi erromeriak jarriko ditu dantzan Erandio-ko auzo horretara gerturatuko diren pertsona denak; ondoren, disc-jockeyen txanda izango da.

Ohi bezala, Mendiguren plazan egongo da kontzertuen ohol-tza nagusia. Eguaztenean bertan, lehenengo egunean, Oxabi erromeria-taldea izango da arduraduna gauari lehenengo musika-notak jartzeko. Ondoren, Martxelin eta Nahikoa disc-jocke-

Jaietan zer edo zer faltan izatekotan denbora izango da, jarduera denetan parte hartzeko.

yek hartuko diote lekukoa erromeriari, 01:45etik aurrera. Hurrengo egunean, nagusien olinpiadako play-back saioak egingo dituzte ohol-tza horretan. Hala ere, jardunaldiari amaiera emateko musika-saioa ez da faltako, Bilbao Tropikal, Jonan DJ eta Tierra Kritikal taldeen eskumenez, 23:00etatik aurrera. Barikuan, abuztuaren 9an, kontzertu bi egongo dira gune horretan: Moonshine Wagon eta Kresala; eta zapatuan, Los de Marras eta DJ Munza. Hala ere, Mendigureneko ez da musika-emanaldiak hartuko dituen plaza bakarra; auzoko hainbat tabernak eta Josu Murueta plazak ere beste hainbat saio hartuko dituzte eguntan, hala nola karaoke eta DJ saioak.

KUADRILLEN ARTEKO NORGEHIAGOKA. Uribe Kostako ia jai denetan egiten den legez, San Lorentzo jaietako kuadrillarik onena sarituko dute Astrabuduan. Izan ere, horien parte hartzea izango da jaietako ardatz nagusia. Horretarako, festek irauten duten bost egunean zehar askotariko probak egongo dira, ber-

o dute Ulpianoren jarraitzaileek



iten den lege, kuadrillak izango dira Astrabuduko San Lorentzo jaietako ardatz nagusia.

tako jai-batzordeak antolatuta. Modalitate bi egongo dira: nagusientzako olinpiadak eta txikientzakoak. Hala, kuadrilla nagusiek bost proba izango dituzte aukeran (jaitsiera, film laburrak, tortillak, padel surfa eta play-backa). Neska-mutil gaztetxoek, ordea, hiru izango dituzte: (proba gastronomikoa, ginkana-jokoa eta askotariko kirolak).

Txikitxoek ere beren lekua izango dute aurtengo jaietan: San Lorentzo kalea. Goizero okupatuko dute, puzgarriak eta bestelako jardueraz gozatzeko. Besteak beste, marrazki-lehiaketa, bitsa eta Molto GP lasterketa izango dituzte gozagai. Josu Murueta plaza, txupina hartzeaz gain, nagusien eremua ere izango da. Aitita-amak dantzaldi bi izango dituzte bertan, eguaztenean eta zapatuan. Domekan, ordea, komediarako agerlekua izango da. Egun horretan, 22:00etan, Boca Beats Comedia taldeak barrez leherraraziko ditu gune horretara hurbiltzen diren denak.

Jaietan zer edo zer faltan izatekotan denbora izango da, jardueraren denetan parte hartzeko, hamaika aukera egongo baita. ◀

Abuztuak 7, eguaztena

- 11:00** Txikien kalejira, Josu Murueta plazatik abiatuta.
- 11:30** Txikien txupinazoa, Mendiguren plazan.
- 11:45** Ulpianori harrera, Mendiguren plazan.
- 11:45** Txikiekua zabaltzea, Mendiguren plazan.
- 12:15** Ulpianogaz argazkiak ateratzea, Mendiguren plazan.
- 18:30** Axpurura igoera.
- 19:00** Kuadrillen jaitsiera (nagusien olinpiada), Axpurutik abiatuta.
- 20:30** Pregoia eta txupinazoa, Josu Murueta plazan.
- 20:30** Txosnak zabalduko dituzte, Mendiguren plazan.
- 20:45** DJ Ulpiano, Josu Murueta plazan.
- 20:45** Larraín-dantza, Mendiguren plazan.
- 22:30** Nagusientzako dantzaldia, Josu Murueta plazan.
- 22:30** Oxabi Erromeria, Mendiguren plazan.
- 23:00** Kapelaren dantza, Josu Muruetan.
- 01:45** DJ Martxelin vs DJ Nahikoa, Mendiguren plazan.

Abuztuak 8, eguena

- 11:00** Txupinazoa.
- 11:00** Kalejira, txistulariakaz.
- 11:00** Txikigunea: puzgarriak, umeentzako tailerrak eta ludoteka. San Lorentzo kalean.
- 11:00** Tortilla-lehiaketan (nagusien olinpiada) izen-ematea, anbulatorio zaharraren sarreran. Tortillak 13:30ak baino lehen entregatu beharko dira.
- 11:00** Film laburren lehiaketan izen-ematea (nagusien olinpiada), anbulatorio zaharraren sarreran.
- 11:00** X. Molto GP lasterketa, Candy Shopek antolatuta, San Lorentzo kalean.
- 12:00** Tarta-lehiaketa (txikien olinpiada), anbulatorio zaharraren sarreran. Tartak 13:00a baino lehen entregatu beharko dira.
- 14:30** Tarta-lehiaketaren sari-banaketa, anbulatorio zaharraren sarreran.
- 16:00** VIII. Poker-txapelketa, Novak tabernan.
- 17:30** Txikien play-backak (txikien olinpiada), Josu Murueta plazan.
- 18:00** Disko-festa, Josu Murueta plazan.
- 20:00** Kontzertuak STOP tabernan.
- 21:30** Ekintza feminista.
- 22:00** Nagusien play-backak (nagusien olinpiada), Mendiguren plazan.
- 23:00** Karaokea, The Sounds Factory-ren eskumenez, Extremeño tabernan.
- 00:00** Bilbao Tropikal taldearen kontzertua, Mendiguren plazan.
- 01:15** Jonan dj, kontzertua.
- 02:15** Tierra Kritikal.

Abuztuak 9, barikua

- 11:00** Txupinazoa.
- 11:00** Kalejira gaita-joleakaz.
- 11:00** Txikigunea: puzgarriak, umeentzako tailerrak eta ludoteka; San Lorentzo kalean.
- 12:00** Ur-aldapa, Madaripe kalean.
- 12:30** Gazte Mugimendua antolatutako tailerrak, Mendiguren plazan.
- 12:30** Zumba-saioa, Mendiguren plazan.
- 14:00** Film laburren entrega (nagusien olinpiadak) jai-batzordearen lokalean.
- 15:00** Betiko Neskak eta Athletic Goitiko Taldeak antolatutako IV Herri Bazkaria.
- 17:00** Ginkana (nagusien olinpiadak), San Lorentzo kalean.
- 17:00** Astrabuduko F.T.-k antolatutako futbol txapelketa, futbol-zelaian.
- 18:30** «Olgetan Solas», familia-arteko kirol-jolasak, Josu Murueta plazan.
- 19:00** Txanpinoi-jana, Batzokian.
- 19:30** Sakatu elektrotzaranga.
- 20:00** Rock klasiko-kontzertua, White Room Band taldeagaz, Extremeño tabernan.
- 22:30** Moonshine Wagon taldearen kontzertua, Mendiguren plazan.
- 23:00** Karaokea, The Sounds Factory-ren eskumenez, Extremeño tabernan.

- 00:00** DJ Mangas Trabudu plazan, Primera Línea, Trabudu eta Mambo tabernekin antolatuta.
- 00:30** Dantzaldia, Kresala taldeagaz, Mendiguren plazan.

Abuztuak 10, zapatua

- 11:00** Txupinazoa.
- 11:00** Kalejira txistulariakaz.
- 11:00** Txikigunea: puzgarriak, umeentzako tailerrak eta ludoteka; San Lorentzo kalean.
- 11:00** Marmitako lehiaketaren izen-ematea, anbulatorio zaharraren sarreran.
- 11:00** Marrazketa-lehiaketa, Mendiguren plazan.
- 11:00** Paddle surf lasterketa ibaian zehar (nagusien olinpiadak).
- 12:00** Meza nagusia.
- 12:00** Kalejira Udal-musika bandagaz.
- 12:00** Askotariko kirolak (txikien olinpiada) Astrabuduko futbol zelaian.
- 12:00** X. Tiragoma lehiaketa, Mendiguren plaza.
- 13:00** Marrazketa-lehiaketaren sari-banaketa, Mendiguren plazan.
- 13:00** Aurreskua elizaren kanpoaldean.
- 13:30** Marmitakoaren entregatzea, anbulatorio zaharraren sarreran.
- 16:00** Marmitako lehiaketaren sari-banaketa, anbulatorio zaharraren sarreran.
- 17:00** Puzgarriak, San Lorentzo kalean.
- 17:00** Igel-toka lehiaketa, Coppi tabernan.
- 18:00** Herri-lasterketa, Astrabudua taldearen eskumenez.
- 19:00** Kick boxing erakusketa, A.K.T.-k antolatuta, Josu Murueta plazan.
- 19:30** Txorizo-jana Astrabudua Taldearen eskumenez, Atxe kalean.
- 19:30** Dantza-erakustaldia, Trabudu Dantzari Taldeak antolatuta, Mendiguren plazan.
- 21:30** Suramiren ikuskizuna, Josu Murueta plazan.
- 22:30** Sutan taldearen kontzertua, Mendiguren plazan.
- 23:00** Guatekea, Josu Murueta plazan.
- 23:30** Erratzaren dantza, Josu Murueta plazan.
- 00:00** Los de Marras taldearen kontzertua, Mendiguren plazan.
- 00:00** DJ Mangas Trabudu plazan, Primera Línea, Trabudu eta Mambo tabernekin antolatuta.
- 2:00** DJ Munza, Mendiguren plazan.

Abuztuak 11, domeka

- 10:00** Txupinazoa
- 10:00** XXV. Arrantza Lehiaketa, ibaiaren dartsenak.
- 11:00** Kalejira txistulariakaz.
- 11:00** Puzgarriak eta tailerrak, San Lorentzo kalean.
- 11:00** Paella-lehiaketaren izen-ematea, anbulatorio zaharraren sarreran.
- 12:00** Ginkana (txikien olinpiadak) Mendiguren plazan.
- 12:30** Kantagunea.
- 13:00** Bits jaia, San Lorentzo kalean.
- 13:30** Paellen entregatzea, anbulatorio zaharraren sarreran.
- 16:00** Lehiaketa pikantea.
- 17:00** Puzgarriak, San Lorentzo kalean.
- 17:00** Igel-toka lehiaketa, Coppi tabernan.
- 17:30** Herri-kirolak, Mendiguren plazan.
- 18:15** Paella lehiaketaren sari-banaketa, Mendiguren plazan.
- 18:20** Txapel-botatze lehiaketa.
- 21:00** Film laburren emanaldia (kuadrillen olinpiadak), Josu Murueta plazan.
- 22:00** Boca Beats Comedien ikuskizuna, Josu Murueta plazan.
- 23:00** Olinpiaden sari-banaketa eta kuadrillei eskerrak ematea.
- 23:45** Ulpianori agurra eta azken traka.

ALGORTA (GETXO) | Portu Zaharreko jaiak

Bost eguneko festak izango dituzte

Abuztuak 10, zapatua

- 17:30** Txupinaren jaurtiketa eta jaien hasiera. Ondoren, kuadrillen jaitsiera Algortako Etorbideko gasolindegitik Portu Zaharrera, errepidetik. Txobek, iazko kuadrilla-txapelketaren irabazleak eroango du Txo panpina.
- 19:30** Sardina-jana Portuko plazaratxoan. Ondoren, Txobe kuadrillak pregoia irakurri eta Txo panpina zintzilikatuko dute.
- 21:00** The Vinilo's taldearen kontzertua, Portuko plazan.
- 21:30** Umeentzako zinema, Pedro Bilbao Doktoarearen plazan.
- 21:30** Musika agertoki nagusian.

Abuztuak 11, domeka

- 11:30** Umeentzako parkea eta ludoteka, beheko errepidean.
- 12:00** Txikientzako txupina.
- 12:15** Umeen kuadrillen jaitsiera, Kasino plazaratik abiatuta.
- 12:30** Herri-kirolak: Euskal Herriko txapelketa, txosna-gunean.
- 13:00** Eusko Diskoteka Paco eta Urtza taldeagaz, Portuko plazan.
- 16:00** Txistularien eta buru-handien jaitsiera, Tellagorri plazaratik Portu Zaharrera.
- 17:00** Umeentzako parkea eta ludoteka, beheko errepidean.
- 18:00** Donibane-zuhaitza (sokamuturra), hondartzatxoan.
- 19:30** Sardina-jana, Portuko plazan.
- 20:00** Sate&Guereñu, Sweet Soul Music saioa, Portuko plazan.
- 21:30** Umeentzako zinema, Pedro Bilbao Doktoarearen plazan.
- 21:30** Zezensuzkoa, agertoki nagusiaren atzean.
- 21:30** Erromeria Oxabi taldeagaz, agertoki nagusian.
- 22:30** Itxas Argiaren dantza-emanaldia, portuko murrutzar handian.

Abuztuak 12, astelehena

San Nikolas Eguna / Txiki Eguna / Arrantzale Eguna

- 11:00** Umeentzako pintura-lehiaketa, Etxetxun. Izen-ematea 12:00ak arte.
- 11:00** Kids&Us Getxo eta Kids&Us Algorta umeentzako jolasak, Portuko plazan.
- 11:00** Gupil-oholean (skate) ibiltzen ikasteko eskolak, La Kantera Skate Skolaren eskumenez, beheko errepidean.
- 13:30** Umeentzako pintura-lehiaketaren sari-banaketa, Portuko plazan.
- 14:00** Umeentzako nasapuntakoa, murrutzar txikian. Helduen nasapuntakoa eta ur-saltoen txapelketa, murrutzar handian. Ondoren ahateak askatuko dituzte.
- 17:00** Txistularien eta buru-handien jaitsiera, Tellagorritik Portu Zaharrera.
- 17:00** Gupil-oholean (skate) ibiltzen ikasteko eskolak eta erakustaldia, La Kantera Skate Skolaren eskumenez, beheko errepidean.
- 18:30** Bits-jaiak eta puzgarriak, beheko errepidean.



GetxoGasol

Urteko 365 egunetan gaude zabalik

- Garbiketa gunea
- Denda eta okindegia
- GnG tallerra
- Solaguren Jatetxea

944 301 500

GetxoGason Euskararekin bat! Getxo eta Berango artean

HANBURGESAK NATXOAK
TALDEENTZAKO MENU BEREZIAK

ekin

ETXEZ ETXERAKO ZERBITZUA:
www.bapobapo.com
946 436 638

UNA!
TABERNA • JATETXEA
ALGORTA • GETXO

Algortako Etorbidea, 96 • 944 661 661

Bolue, 4
ALGORTA

ITASKITEGIA • MARISQUERIA

ESKARRA

TABERNA

MARISCO COCIDO O A LA PLANCHA

Torre, 1 • 48991 Algorta • BIZKAIA
688 776 003

e aurten Portu Zaharrean



- 20:00** Kutxus Areatxu fanfarrea, Aretxondo, Portu Zaharra, Erribera eta Berria kaleen artean.
19:00 Zumba saioa, Rosi, Ylenia eta Ritagaz, agertoki nagusian.
19:30 Sardina-jana, Portuko plazan.
20:00 Bertso-saioa: Jone Uria eta Beñat Gaztelumendi. Portuko plazan.
21:00 Kuadrillen ekitaldiak, agertoki nagusian.
21:30 Zezensuzkoa, agertoki nagusiaren atzean.
21:30 Umeentzako zinema, Pedro Bilbao Doktoarearen plazan.

Abuztuak 13, martitzena

- 11:00** Txistularien eta buruhandien jaitsiera, Tellagorritik Portu Zaharrera.
11:30 Igel-toka eta tiragoma-lehiaketa.
11:30 Umeentzako parkea eta ludoteka, beheko errepidean.
12:00 Umeentzako herri-kirolak, beheko aparkalekuan, Getxo Herri Kirol Taldearen eskumenez.
13:00 Kantu-poteoa, portuan zehar.
15:00 Antzara-jokoa.
19:30 Portu Zaharreko jaiak VI. Boxeo Gaua, Izarrak Boxing Klubak antolatuta, beheko berdegunean.
19:30 Sardina-jana, Portuko plazan.
20:00 Dantza-plaza Dangiliske taldeagaz, agertoki nagusian.
20:00 Musika Portuko plazan.
21:00 Musika agertoki nagusian.
21:30 Zezensuzkoa, agertoki nagusiaren atzealdean.
21:30 Umeentzako zinema, Pedro Bilbao Doktoarearen plazan.

Abuztuak 14, eguaztena

- 09:30** Marmitako-lehiaketan izen-ematea. Gogoratu ezin dela oholtza erabili marmitakoak prestatzeko.
10:30 Umeen arrantza-lehiaketa, arroketara doan pasealekuan.
12:00 Marmitako-lehiaketa. Aurkeztea, 14:00ak arte, Etxetxun. Oharra: ilara eskaileretan behera egin beharra dago.
13:30 Umeen arrantza-lehiaketaren sari-banaketa, portuko plazan.
18:00 Bertsolariak Portuko plazan: Maider Barañano, Unai Mendiburu eta Kerman Díaz.
18:30 Marmitakoen txapelketaren sari-banaketa, Portuko plazan.
20:30 Kuadrillen sari-banaketa, txosnetan.
21:30 Disc-jockeyak agertoki nagusian.
00:00 Erromeria Urrats taldeagaz, agertoki nagusian.

Abuztuak 15, eguena

- 06:00** Txo panpina erreko dute, murrutzar handian. Ostean, jai ei amaiera emateko traka.

Egitarau hau behin-behinekoa da; aurrerantzean, aldaketaren bat egon liteke.



BEREZI

Haur moda eta lentzeria
(Algorta)

 @berezialgorta
 berezi.moda@gmail.com
 944604883
 Tallera 15 - GETXO



ITXASGANE

prentsa • aldizkariak • goxokiak

Getxoko kirol portua • 944 915 321



ALGORTA (GETXO) | Portu Zaharreko Marmitako Eguna



Pijaman eta aire zabalean, marmitakoa kozinatzeko plaza

IKER RINCON MORENO ▶

Askotariko koloredun pijama xelebreak jantzita, edo lo egiteko tradizionalagoak diren arropak soinean, ohikoa bilakatu da Portu Zaharrean marmitakoa kozinatzea lagunartean. Auzo horretako jaien azkenengo egunean izaten da horretarako hitzordua; aurten, abuztuaren 14an, eguaztenagaz. Hala, urtero legez, ehunaka lagunek Portu Zahar osoa hartuko dute Bizkaiko arrantzaleek aspaldi asmatutako platerik onena egiten saiatzeko; Algortakoak ez ezik, Euskal Herriko askotariko txokoetatik hurbildu ohi dira hitzordu gastronomiko horretan parte hartzera. Izan ere, kuadrillan batu eta hegaluzearen zapore gozoaz gozatzeko aukera izateaz gainera, ospe handiko txapelketa gastronomiko bilakatu da egun hori.

Kuadrilla eta parte-hartzaile bakoitzak badu bere sekretua marmitakoa egiteko; hala ere, oraingoan Getxoko Udalak Portu Zaharreko errezeten inguruan 2016an kaleratutako liburuan agertzen dena ekarriko dugu orriotara. Ana Sagastik emandako errezeta da hori, haren amama María Ugartek prestatzen zuen bezalaxe. Goazen bada! Hasteko, kazola batean tipula eta piperrak zati txikitian txikituta eta berakatzatza orri meheetan ebakita ipiniko ditugu. Barazkiok sueztituta

Marmitakoa



Osagaiak:

Kipula, tomate bi, piper berde bat, piper txorizero bi, baratzuri zati bi, hegaluze kilo erdi, patata kilo bat, olio eta gatza.

daudenean, tomateak zatietan moztu eta aurrekoari gehituko diogu apurka-apurka erregosteko; segituan, ura gehituko diogu, gutxika, gehiegi ez lehortzeko.

Barazki horiek ondo eginda daudela ikusten dugunean, puregailutik pasako ditugu eta aterako den saltsan aurrez zatitutako patatak gehitu beharko ditugu. Adi! Patatak aitzoaren laguntzaz puskatu behar dira, ez osorik moztu! Nahasketan osoa ur beroaz (arrain salda bada, hobe) estali, olio eta gatza geure gustura bota eta patatak ondo eginda egon arte irakiten utziko dugu. Denbora hori patata-motaren arabera izango da. Patatak ondo eginda daudela ziurtatzen dugunean, lehenagotik garbitutako hegaluze zatiak sartuko ditugu, azken unean. Kazola estali eta sua itzaliko dugu, beroak berak egosiko du hegaluzea eta bost minutuan zerbitzatzeko prest izango dugu marmitakoa.

Errezeta asko dago plater hori kozinatzeko; batzuek azenarioa ere erabiltzen dute salda egiteko, beste batzuek ardo zuria gehitzen diote, baita pimentoi gozoa ere. Hala ere, denak baliozkoak dira itsasoaren zaporea duen hegaluzedun mokadu preziatua egiteko. Ikusiko duzuenaz, aukera asko dago, betiere hegaluzea eta patatak oinarri hartuta. Ez galdu aukera eta hurbildu Algortako Portu Zaharrera abuztuaren 14an zuen bertsioa prestatzeko eta lehiaketan parte hartzeko, pijaman jantzita, noski! ◀

hiruka *app*

Uribe Kostako informazio guztia eta agendarik osoena!

Udako jaien gida

Agenda


Albisteak

Argazkiak eta bideo albumak

Geolokalizazioa

SOS botoia

Deskargatu!



ERANDIO | Andra Mari jaiak

Egun biko festak izango dira aurten ere andramariak

Erandiogoikoko Andra Mari jaien ekimen denak bi egunean metatuko dituzte aurten ere. Behin-behinekoko egitaraua osatzen dute paella-lehiaketak, dantza-erakustaldiak, erromeriak, ume-jarduerak eta abarrek.

ERREDAKZIOA ►

Abuztuaren 14an hasiko dituzte aurten ere Andra Mariaren omenezko jaiak Erandiogoikoan, eguaztenean, jai-egunaren bezperan. Hurrengo egunean, egue-nean, jaiak amaitu bitartean, askotariko ospakizunenez gozatzeko aukera izango dute bertoko herritarrek eta auzora hurreratuko diren pertsona den-denek. Ohikoa bilakatu den legez, andramarietan ez dira faltako dantza-plaza, txitxi-burruntzi-jana, poteoa tabernaz taberna, auzoko txikienei begirako jolasak eta gaueko dantzaldiak; ezta kuadrillen arteko paella-txapelketa ere.

Eskualdeko gainontzeko jaietan bezala, hemen ere topagune garrantzitsu bihurtu da gastronomia-lehiaketa horren hitzordua; izan ere, ekimen horretan lehia handia egon ohi da auzoko kuadrillen artean, ea nork egiten duen auzoko, herriko eta, beharbada, inguruko paellarik onena; izan arrain, okela edo barazki hutsez egindakoa. Parte-hartzaileek euren osagai sekretuak erabili ahal izango dituzte, nork bere platera osatzeko. Jakina, egindakoa aurkeztu beharko du kuadrilla bakoitzak, jai-batzordeak banatuko dituen sarietakoren bat jaso gura izanez gero behintzat. Bestalde, Goi-Alde dantza-taldeak erakustaldia eskainiko du jaietan. Jai-batzordeak laster iragarriko du behin betiko egitaraua. ◀



© GOI-ALDE

Abuztuak 14, eguaztena

19:00 Trikiti-poteoa, tabernaz taberna.
21:30 Txitxiburruntzi-jana.
23:30 Luhartz erromeria.

Abuztuak 15, eguena

Goizean zehar Umeei begirako puzgarriak.
11:00 Paella-lehiaketaren hasiera; jai-batzordeak arroza banatuko du.

13:00 Goi-Alde dantza-taldearen erakustaldia.

14:30 Paellak aurkezteko ordua.

18:00 Paella-lehiaketaren sari-banaketa.

*** Egitarau hau behin-behinekkoa da.**

Jai-batzordeak jakinarazi digunez, ekitaldi batzuk aldatu egin daitezke, eta hemen aipatzen ez diren beste batzuk agertu.

URDULIZ | Andra Mari jaietako XXVI. Nekazaritza Azoka

Baserritar giroak hartuko du erdigunea

Urdulizko Andramariei hasiera emateko suzuria irailera arte piztuko ez duten arren, herria jai-giroan murgiltzen hasteko Nekazaritza Azoka antolatu dute abuztuaren 24rako, zapatuan.

IKER RINCON MORENO ►

Irailaren hasierako aste-akabu bietan ospatuko dituzte Urdulizko Andra Mari jaiak; Landan, lehenengo, eta Elortzan, ondoren. Ospakizun horien aurretik, baina, Nekazaritza Azoka egingo dute abuztuaren 24an, zapatuan. Arduradunek azaldu dutenez, ospakizunotarako Kultura Zinegotzigoak eta jai-batzordeak elkarlanean antolatutako programazioak «erreferentzia erakargarria izan nahi du auzotarrek jai-egitarauaren jardueretan parte har dezaten». Horretarako, askotariko jarduerak antolatu dituzte, auzoko denentzat atsegingarriak izango direlakoan. Urtero legez, horien artean ba-



Ortuarien, fruten eta landareen kategorietan sariak banatuko dituzte.

serritarren azoka egitea proposatu dute, aipatutako egunean. Hala, XXVI. edizioa beteko duen merkatu horretan euren ortuariak, frutak eta landareak saldu gura dituztenek aldeztu aurretik egin beharko dute izen-ematea, uztailaren 16a baino lehen. Arduradunek azpimarratu dutenaren arabera, parte-hartzaileek «egiaztatu beharko dute eskainiko dituzten produktuak benetan baserrikoak eta bertokoak direla».

Azoka goizeko 10:30ean hasiko da; hala ere, saltzaileak 09:00etatik aurrera hasi ahal izango dira mahaiak eta erakustokiak antolatzen. Bien bitartean, batzorde arduradunak bertoko produktuen benetakotasuna egiaztatuko du. Azoka zabalik egongo da 14:00ak arte, eta ondoren sariak banatzeari ekingo diote. Hiru kategorietan egingo dute sariketa: ortuariak, frutak eta landareak, eta atal bakoitzeko hiru irabazleek 100 euro, 110 euro eta 130 euroko saria eta garaikurra jasoko dituzte, hurrenez hurren.

Andra Mari jaietako Nekazaritza Azoka horretan askotariko produktuez gozatu ahaliko da, baita ekoizpen propioko txerrikiak, sagardoa, txakolina eta norberak birrindutako irinagaz egindako taloa ere, besteak beste. ◀

Getxoko 215 establezimendu gehitu dira Euskararen Laguna sarera

Getxoko ostalaritzako eta merkataritzako 215 establezimendu gehitu dira dagoeneko orain dela urtebete Udalak abian jarritako Euskararen Laguna Saltokien sarera. Aipatutako tokietan euskararen erabilera sustatzea da ekimenaren helburua. Bezeroak euskaraz artatzeko borondatea adierazten duten establezimenduentzat dago irekita Euskararen Laguna sarea, baita beren idatzietan elebitasuna bermatzeko konpromisoa agertzen duten guztientzat ere.

ZERBITZUA HOBETU. «Uste dugu negozioetan euskara erabiltzeak bezeroen eta saltokien arteko gertutasuna areagotzen duela, modu horretan zerbitzu zabalagoa, pertsonalizatuagoa, eta, azken batean, kalitate handiagokoa eskainiko delako», azaldu dute Getxoko Udaleko ordezkariak. «Hori sustatzeko, materialak, zerbitzuak eta laguntzak eskaintzen ditugu dohainik, Euskararen Laguna sare barruko saltokien promozioa hedabideen

eta sare sozialen bitartez egiteaz gain», gaineratu dute.

Getxoztarren erdia baino gehitxoago, %56,35, euskalduna dela edo euskaraz ulertzeko gauza dela dio bertoko Udalak. «Bezeroen eta dendari eta ostalarien arteko zubi-lana egiten ahalegintzen ari gara», adierazi dute, «euskara gehiago entzuteko eta Getxoko egunerokotasunean sartzeko».

LEHEN HITZA EUSKARAZ. Hala, herritarrek animatu gura dituzte denda, taberna eta bestelakoetan euskaraz hitz egitera; «agian, pentsatu baino toki euskaldun gehiago topatuko dute», dio Udalak; «aldi berean, ikusi ahal izango dute merkataria eta ostalaria euskaraz artatzeko egiten ari diren esfortzua». Establezimenduak ere animatzen dituzte, noski. Euskararen Laguna Saltokien sarea ekimenagaz bat egitera.

ERABILERARI BURUZKO DATUAK. Getxoko Udalak emandako datuek erakusten du



Mapa eta katalogoa, webgunean ikusbide

Euskararen Laguna Saltokien sareagaz bat egin duten establezimenduen mapa, ekimenaren gaineko xehetasunak eta sarera batzeko bidea ikus daitezke udal-webgunean kontsulta eginez.

www.getxo.eus/eu/katalogoa/

%30ek dauzkate errotulu nagusiak, baita saltokiko idazkiek osatzen duten hizkuntza-paisaia ere, euskaraz edo elebietan idatzita. Bestetik, %30ek bezeroei arreta euskaraz eskain diezaiekete ordutegi osoan. Saltoki lagunen beste %35ek, berriz, arreta euskaraz eskain dezakete, baina ez ordutegi osoan. Kopuru horiek handitzea da orain Udalaren euskara-arduradunen erronka nagusia.

EUSKARATZEKO LAGUNTZAK. Udalak ematen dituen laguntzei dagokienez, honako datuak aipatu beharra dago: 2018an Getxoko establezimenduek 325 kartel eskatu zituzten euskarazko testuakaz; 487 testu itzuli ziren, eta hogeitasei saltokitako 38 errotulak jaso zuten Udalaren diru-laguntza, euskara hutsez edo euskaraz eta gaztelaniaz ipintzeagatik. Errotuluak, olanak, biniloak, pertsianak eta ibilgailu komertzialetan idatzitakoak euskaratzeko edo elebitan ipintzeko ematen dira diru-laguntza horiek, izan ere.

EUSKARAREN LAGUNA SALTOKIEN MAPA. BILATU ZURE ESTABLEZIMENDUA!

Animatu zaitez euskaraz egiten zure herriko denda eta tabernetan!
Sorpresa ederra hartuko duzu, uste baino gehiagotan artatuko zaituzte euskaraz!

www.getxo.eus/euskararenlaguna



Euskararen laguna saltokia



Comercio amigo del euskera



UDAKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO



PLENTZIA | Agorrijazz**Jazza baino
gehiago da**

Duela urte bi sortu zuen Plentziako Udalak jazz-doinuetan oinarritutako musika-jaialdia, Plentzia Kulturaz ekimenaren barruan. Ibilbide labur horretan, indarra hartzen joan da Agorrijazz ekimena eta aurren hirugarrenez antolatuko dute, abuztuaren 9an eta 10ean. Hala, jazz, soula eta bestelako doinuak entzun ahal izango dira aurren ere Ontziola plazan, aipatutako egun bietan, barikuan eta zapatuan, hurrenez hurren. Barikuan, Rezikletas taldeak perkusio-kontzertu ibiltaria eskainiko du birziklatutako eta berrerabilitako materiala erabilita, 18:00etatik aurrera. Ondoren, Aritza Castro Quartet Bizkaiko jazz-eszenan indarra hartzen dabilen taldeak Ontziola plazako agertokia hartuko du 20:00etan bertaratutako denen gozamenerako. Ondoren, Xabi Aburruzagak hartuko dio lekukoa, 22:00etatik aurrera. Trikitiagaz lagunduta, folk- eta jazz-doinuak nahastuko ditu Aburruzagak. Hurrengo egunean, zapatuan, Bilboko Mississippi Queen & The Wet Dogs soul-boskoteak emango dio hasiera egunari, Ontziola plazan, 20:00etatik aurrera. Talde horrek indarra eta bizitasuna taularatzen ditu zuzenekoetan; disfrutatzea eta disfrutaztea da euren helburua ematen dituzten kontzertu guztietan. Ondoren, Aupa Quartet laukoteak emango dio amaiera 2019ko Agorrijazz jaialdiari, 22:00etan hasita. Laukote horrek musika modernoan oinarritzen du bere jarduna, betiere inprobisazioari leku handia eginez.

Abuztuak 9, barikua

- 18:00** Rezikletas, Erribera kalean.
20:00 Aritza Castro Quartet, Ontziola plazan.
22:00 Xabi Aburruzaga, Ontziola plazan.

Abuztuak 10, domeka

- 20:00** Mississippi Queen & The Wet Dogs, Ontziola plazan.
22:00 Aupa Quartet, Ontziola plazan.

ERANDIO-LEIOA | Santimamiko jaiak**Apurka-apurka
handituz doaz**

Adin eta gustu denentzako egitaraua prestatu dute Santimami auzoko jaietarako. Orain dela hiru urte osatutako jai-batzordeak lanari ekin dio aurren ere, eta ohiko programari eutsi dio, hainbat beritasunagaz batera.

ERREDAKZIOA ►

Abuztuaren 17an eta 18an izango dira aurren ere Santimamiko jaiak. Oier jai-batzordeko kideak azaldu digunez, oraindino ez dute behin betiko egitaraua osatuta, eta, hainbat arazo tekniko direla eta, azken orduko aldaketak egin behar izan dituzte den-dena behar den moduan koadratzeko. Kontuak hala, datozen egunotan egitarau osoaren berri emango dugu HIRUKAko gainontzeko kanaletatik, webgurutik eta App-aren agendatik, hain zuzen. Hala ere, aurreratu ahal izan digunez, adin eta gustu denentzako ekitaldiak hartuko dituzte, hala nola kontzertuak, herri-bazkaria, umeentzako jolasak, igel- eta txinbera-txapelketak eta luncha.

Jaiak desagertzeko arriskuan egon ziren orain dela hiru urte, aurreko jai-batzordeko azken kideek ardura utzi behar izan zuten eta. Hala ere, hori gertatu ezin zitekeelakoan, auzoko lau pertsona batu eta eginkizun horri heldu zioten, gaur arte. Azaldu digutenez, auzoko izaera berreskuratzea lortu dute eta, are gehiago, inguruko gaztetxoek jai horien inguruan interesa agertzen hasi dira apurka-apurka. ◀



Egitarau mamitsua prestatu dute aurtengo jaietarako.

Urezarantzako jaiak Abuztuak 17-18**Abuztuak 18, zapatua**

- 12:00** Puzgarriak, kiroldegian.
13:00 Herri-luncha, trikitiakaz.
16:30 Kirol-, briska-, tute- eta tortilla-txapelketak, kiroldegian.
17:30 I. Tiragoma Txapelketa.
20:00 Aratz Taldearen dantzaldia.
21:00 Disko Gaua.
22:30 Zezensuzkoa.
22:40 Disko Gaua.

Abuztuak 20, domeka

- 10:00** 49. Sukalki Txapelketa, Okarantxun. Antolatzaileek iragarri dutenez, barbakoak eta gasezko sukaldeak bakarrik erabili ahal izango dira. Ibilgailuek Artebiondo estratatik sartu eta txosnako estratatik irteten beharko dute.
12:00 Ur irristagarria.
12:00 Trikitixa.
13:00 Sukalki Txapelketaren aurkezpena.
17:00 Sukalki Txapelketaren sari-banaketa.
17:30 Kanta eta Dantza, EinGo taldeagaz.
18:00 Herri-kirolak: txingak, abarketarena eta sokatira.
20:30 Jaien amaiera.



LEIOA | San Bartolomeko jaiak

Parrandarako prest eta kantari, auzoko baselizaren inguruan

Leioako San Bartolome auzoko jaiak abuztuaren 23tik 25era izango dira aurten. Ohiko jarduerakaz jolastu da jai-batzordea, den-denak hiru egunean trinkotuz, festez gogotsu eta indartsu gozatzeko.

ERREDAKZIOA ►

Gogotsu helduko diete beste urte batez Leioako San Bartolome auzoko bizilagunek gune horretako jaiari. Aurten ere, hiru eguneko festak antolatu ditu jai-batzordeak; duela hiru urte sei egunekoak izan ziren ospakizunak. Hala, abuztuaren 23an emango diete hasiera jaiari, 11:00etan, txupina jaurtiz eta Txirlori omenaldia eginez. Ondoren, umeei begirako askotariko jarduerak egongo dira aukeran, hala nola puzgarriak, margo-txapelketa, jolasak eta igel-toka lehiaketa. Aurten ere ez da egongo kuadrilla-kalejirarik, eta iaz proposatutakoari eutsiko diote: mozorro-jaiak. Lehenengo egunari amaiera ematearen arduraduna Urrats taldea izango da, hark joko baitu gaueko erromerian.

Hurrengo egunean, zapatuan, Luhartz izango da iluntzean giroa piztuko duen taldea; hala ere, hitzordu hori baino lehen hamaika ekintza egongo da aukeran. Horien artean nabarmen-tzekoa da auzokide denak batzeko antolatu duten herri-bazkaria. Horretaz gozatu gura duenak txartela erosi beharko du; horretarako, jaiak hasten diren egunetik egongo dira salmentan, txosna handian. Bazkalostean, musean adituek horretan jokatzen txapelketa arina izango dute aukeran; gainontzekoek zumban gerrikoa astindu edo tortilla onena egiteko erronka izango dituzte aukeran, besteak beste.

Azkenengo egunean, domekan, tradizio handikoa den marmitako-lehiaketa azpimarratu beharra dago, 54.a izango da eta. Urtez urte murriztu egin da norgehiagoka gastronomiko horren parte-hartzea, baina giroari eusteko saiakera egingo dute aurten ere. Are gehiago, beste urte batez, umeentzako marmitako-masterklasa eskainiko dute. Auskalo, neska-mutiltxo horiek helduko diote gaur egungo nagusien ohiturari eta erronka gastronomikoari; hori horrela, hasiera-hasieratik prestatu beharra daukate. ◀



Askotariko mozorroak egongo dira ikusgai barikuan.

Abuztuak 23, barikua

11:00 Txupinazoa eta Txirlori omenaldia.
11:30 Umeei begirako puzgarriak.
11:30 Margo-txapelketa.
13:00 IX. Igel-tokaren txapelketa.
14:30 Margo-txapelketaren sari-banaketa.
18:30 Zuresku egur-jolasak.
18:30 Asto-probak.
20:30 Elektro-txaranga eta mozorro-jaiak.
21:00 Sardina-jana.
23:00 Gau-jaiak, Urrats erromeriagaz.

Abuztuak 24, zapatua

Goiz osoan Trikitilarien kalejira.
11:30 Puzgarriak.
12:00 Meza eta ohorezko aurreksua.
12:45 Nagusientzako luncha.
13:00 Kantu-txosne herrikoia.
15:00 XI. Herri bazkaria (tiketak salgai egongo dira jaien lehenengo egunetik txosna handian).

17:00 XIV. Mus txapelketa arina.
19:00 Zumba.
19:30 XV. Tortilla txapelketa.
20:30 Gazteentzako DJ saioa.
21:00 Tortillen aurkezpena eta sarien banaketa.
23:30 Gau-jaiak Luhartz taldeagaz.

Abuztuak 25, domeka

Goiz osoan Trikitilarien kalejira.
11:00 LIV. Marmitako txapelketa.
11:00 Marmitako klase magistrala (izena emanda).
11:30 Umeentzako puzgarriak.
13:30 Bits-jaiak (eskolako atean).
13:30 Lapikoen aurkezpena.
17:30 Gazteentzako herri-kirolak.
18:00 Marmitako txapelketako sari-banaketa.
18:30 Uren pistola-guda.
18:30 Asto-probak; amaitutakoan, sari-banaketa.
20:30 Txokolate-jana.

Renuevate Berritu

30% eko DSK. 30% DTO

Eguzkitako betaurreko guztietan
GAFAS GRADUADAS y GAFAS DE SOL

Telletxe kalea, 7 • Algorta Campus EHU-UPV • Sarriena auzoa, z.g. • Leloa Mayor kalea, 10 • Areeta

ERANDIO | Altzagako San Agustin jaiak

Jai-giroan bete-betean murgilduko



Auzoko kaleetan jende ugari eta giro ezin hobia egotea espero da Altzagan egunotan.

Bilboko Aste Nagusia igarota, abuztutik irailerako bidea giro onean egiten lagunduko digute, aurten ere, Erandioko Altzaga auzoko sanagustinek. Ohitura denez, protagonismo handia izango dute bertoko kuadrillek.

ERREDAKZIOA ►

Normaltasunera eta errutinara itzultzearen sinonimoa izaten da irailean sartzea; Altzagan, aldiz, jai-usaia da nagusi egunotan. Abuztuaren 28tik irailaren 1era arte iraungo dute aurten San Agustinen omenezko jaiak, eta ohi denez, auzoko kaleetan jende ugari eta giro ezin hobia egotea espero da.

Urtero legez, ezin dizuegu aurkeztu jai-egitarau osoa, tabernetan izango den musika-eskaintza ez baita abuztura arte eza gutzen. Dagokionean emango dugu horren berri, honenbestez; bien bitartean, Udalak eta jai-batzordeak daborduko iragarritakoa nahikoa da erandioztarrek eta kanpokoek gozatzeko aukera ugari izango dutela aurreikusteko.

Abuztuaren 28ko eguerdian egingo du eztanda jaiak. Kuadrillek izena eman eta gura dutenek santuaren ohorez egingako meza entzun ostean, *flashmoba* egingo da Irailaren 23a

Kuadrillek egunez egun lehiatu beharko dute, eta zapatu arratsaldean emango dizkiete sariak, ohi denez.

plazan, udaletxearen aurrean, pregoia irakurri aurretik hain zuzen ere. Eta arrastian, kuadrillen jaitsierak kolorez eta algaraz beteko ditu kaleak.

Musika entzuteko edo dantzatzeko gune nagusiak Irailaren 23a plaza eta Txorierri kalea izango dira, betiko eran. Umeen-tzat, aldiz, Europa plaza izango da txoko kutuna, hantxe gozatu ahal izango baitute puzgarri, jolas, tailer era bestelakoez, egunero-egunero. Elektro-txarangak Erandioko jaien beste osagarri klasiko bat, eguen eta zapatu arrastiz ibiliko dira kalez kale primerako giroa sortzen.

Gastronomiari dagokionez, sukaldari modura trebezia erakusteko aukerak ez dira faltako. Eguenean tortillak, barikuan paellak eta zapatuan putxerak; egunez egun konplikatur joango da kontua, ikus dezakezuenez, edo behintzat luzatuz. Eta jatekoa, prestatu ez ezik, dastatu ere egin beharra dagoenez, herri-bazkaria egongo da barikuan, Irailaren 23a plazan, eta zapatuan gazteena, leku bertsuan baina kasu horretan txosnaren inguruan.

Kuadrillek egunez egun lehiatu beharko dute, eta zapatu arrastian izango da sari-banaketa, ohi denez. Azken egunerako, domekarako, geratuko da goitibehera-lasterketa, entrenamendu ofizial eta guzti, baita ere herri osoan zeharreko altxorren bilaketa-jolasa, jaiak itxiko dituen azken traka erre baino lehenago. ◀

da Altzaga bost egunez

Abuztuak 28, eguaztena

- 12:00** Kuadrillen lehiaketan izen-ematea, udaletxeko etxabeen.
- 12:00** Meza nagusia eta aurrekoa, San Agustin elizan.
- 12:30** Flashmoba, Irailaren 23a plazan.
- 12:55** Zapi-lehiaketaren sari-banaketa, udaletxeko balkoian.
- 13:00** Pregoia eta txupinazoa, udaletxeko balkoian.
- 13:15** Erraldoien kalejira, Irailaren 23a plazatik.
- 15:00** Urdaiazpikoaren zozketa, Jado kalean.
- 17:00** Txupinazo txikia, Golokagaz. Irailaren 23a plazan.
- 19:30** Kuadrillen jaitsiera, herri osoan zehar.
- 20:30** Kuadrillen *photocalla*, Txupinegaz batera. Irailaren 23a plazan.
- 22:00** Zezensuzkoa, Irailaren 23a plazan.
- 22:30** Diskoteka: 70-2000. Irailaren 23a plazan.

Abuztuak 29, eguena

- 11:30** Puzgarriak, Europa Plazan, 14:00ak arte.
- 11:30** Tortilla-lehiaketan izen-ematea, Irailaren 23a plazan.
- 11:30** Umore txuri-urdina, Europa Plazan.
- 13:00** Tortillak aurkeztea, Irailaren 23a plazan.
- 16:30** Txirindulazko zinta-lasterketa, Irailaren 23a plazan.
- 17:00** Umeentzako puzgarriak, jolasak eta tailerrak, Europa Plazan. 19:30ak arte.
- 17:00** Kayak-lasterketa (kuadrillen lehiaketa). Malekoian.
- 17:30** Minimoto-lasterketa, Irailaren 23a plazan.
- 18:30** Bilbainadak: Los Tximberos. Irailaren 23a plazan.
- 19:00** Dantza-txokoa, metro-geltokiaren aurrean.
- 19:00** Disko-festa: Arima. Txorierri kalean.
- 20:00** Elektrotzaranga, herrian zehar.
- 22:00** Zezensuzkoa, Irailaren 23a plazan.
- 22:30** Gazte-afaria, txosna-gunean.
- 23:00** Kontzertua: Havana 537. Txorierri kalean.
- 00:30** DJ Bull, txosna-gunean.
- 01:00** DJ Johnny Zen, Txorierri kalean.

Abuztuak 30, barikua

- 11:00** EKA malda, Ategorriko aldan. 13:00ak arte.
- 11:30** Puzgarriak, Europa plazan. 14:00ak arte.
- 12:00** Paella-lehiaketan izen-ematea, Irailaren 23a plazan.
- 12:30** Kuadrillen ginkana, Irailaren 23a plazan.
- 13:00** Jubilatuentzako luncha.
- 13:30** Bitsaren jaia, Txorierri kalean.
- 13:30** Paellak aurkeztea, Irailaren 23a plazan.
- 15:00** Herri-bazkaria, Irailaren 23a plazan.
- 17:00** Umeentzako puzgarriak, jolasak eta tailerrak, Europa plazan, 19:30ak arte.
- 17:00** Igel-toka lehiaketa, Benjamin Anaia plazan.
- 18:00** Dantza-erakustaldia, Uztargi taldearen eskumenez, Irailaren 23a plazan.
- 18:00** Boxeo-erakustaldia, metro aurrean.
- 19:30** Playback, Irailaren 23a plazan.
- 22:00** Gora Herria, Irailaren 23a plazan.
- 01:00** DJ Markelin, Irailaren 23a plazan.

Abuztuak 31, zapatua

- 09:00** Putxera-lehiaketarako izen-ematea, Obieta kalean.
- 09:30** 3x3 txapelketa, metroaren aurrean.



- 11:00** Piñata, Europa plazan.
- 11:30** Puzgarriak, Europa plazan. 14:00ak arte.
- 12:00** *Guarrindongadak* (kuadrillen lehiaketaren barruan), Irailaren 23a plazan.
- 13:00** Putxerak aurkeztea, Obieta kalean.
- 13:15** Rallya (kuadrillen lehiaketaren barruan), Irailaren 23a plazan.
- 15:00** Gazteen bazkaria, txosna-gunean.
- 17:00** Umeentzako puzgarriak, jolasak eta tailerrak, Europa plazan, 19:30ak arte.
- 17:00** Mus-txapelketa, La Plaza tabernak antolatua. Irailaren 23a plazan, txosna-gunearen ondoan.
- 17:00** Kukaina, Malekoian.
- 17:30** Aurreku-lehiaketa, Irailaren 23a plazan.
- 19:00** Bertso-saioa, Malekoian.
- 19:30** Elektrotzaranga, herrian zehar.
- 19:30** Txitxarrilloa, Irailaren 23a plazan.
- 20:00** Dantza-txokoa, metro-geltokiaren aurrean.
- 20:30** Kuadrillen sari-banaketa, Irailaren 23a plazan.
- 22:30** Kontzertua: Tocan2 La Polla. Irailaren 23a plazan.
- 00:00** ETS, Irailaren 23a plazan.

- 01:00** DJ Jon, Irailaren 23a plazan.
- 03:00** Kulero- eta galtzontzilo-lasterketa, txosna-gunetik.

Irailak 1, domeka

- 11:30** Puzgarriak, Europa plazan. 14:00ak arte.
- 12:00** Ur-guda, Egurtegia.
- 12:00** Dantza-erakustaldia, Irailaren 23a plazan.
- 13:00** Urezko zezena, Irailaren 23a plazan.
- 16:00** Goitibeheren entrenamendua, Obieta kalean.
- 16:30** Altxorraren bilaketa, herri osoan zehar.
- 17:00** Umeentzako puzgarriak, jolasak eta tailerrak, Europa plazan, 19:30ak arte.
- 17:00** Goitibehera-lasterketa, Obieta kalean.
- 19:00** Mariatxiak, Irailaren 23a plazan.
- 21:30** Zezensuzkoa eta jaien amaierako traka, Irailaren 23a plazan.

Egitarau hau behin-behinekoa da; jaiak hurbildu ahala ekimen gehiagoren berri emango da.



URIBE KOSTAKO AEK

- Leioa**
944 64 60 63 - lamia@aeak.eus
- Gebxo**
944 30 47 34 - lauaxeta@aeak.eus
- Plantzia**
946 77 36 07 - jentilbaso@aeak.eus
- Gorliz**
946 77 36 46 - jentilbaso@aeak.eus

www.facebook.com/UrbeKostako-AEK
www.aek.eus/blogak/urbeKosta/

www.aek.eus
673 200 100 - 946 464 000

PLENTZIA | San Antolin jaiak

Madalentxu eta Antolintxu hiribila

Abuztuaren 29an hasiko dira sanantolinak, Madalentxuri eta Antolintxuri ondo-etorria eginez. Ostera, aurreko zapatuan ere festa egingo dute; orduan aurkeztuko dituzte herri-bozketaz aukeratutako plentziarrak.

ERREDAKZIOA ►

Plentziako udako azkeneko jaiak helduko dira Antolin Deunako ospakizunakaz. Abuztuaren 29tik irailaren 2ra bitartean, hiribildukoak alkandora urdinez jantziko dira Antolintxu eta Madalentxuri ondo-etorria emateko, eta eurakaz batera, inguruak alaitzeko. Tarte horretan, Plentzia-ko eta inguruetako bisitariak hamaika ekitaldiz gozatzeko aukera izango dute: bazkariak, kontzertuak, dantzaldiak, txapelketa gastronomikoak, jolasak, kirol-lehiaketak, kantaldiak eta mozerro-lehiaketak, besteak beste. Hala ere, jaien lehenengo egunaren aurreko zapatuan, abuztuaren 24an, sanantolinetako pertsonaia nagusien papera nork beteko duen aurkeztuko dute. Madalentxuren eta Antolintxuren omenezko egun horretan, tradizioak agintzen duen legez, aurreko urteetako festa-pertsonaiak izandakoak batuko dira, eta aurtengoak, nagusiak eta txikiak, aurkeztuko dituzte. Ondoren, hurrengo eguenetik aurrera, sei eguneko festez gozatzeko aukera egongo da.

Ohitura handiko jarduerak ere mantenduko dituzte, zelan ez, aurreko ere. Berbarako, egunero aterako dute zezensuzkoa udalerriko erdigunera, neska-mutilen gozamenarako. Erromeria Zuria ere egingo dute, egunean, abuztuaren 29an. Hurrengo zapatuan, abuztuaren 31n, marmitakorik onena nork prestatzen duen norgehiagoka egingo dute; hala, sukalde inprobisatuz beteko da egun horretan hiribildu osoa. Irailaren 1ean, gainera, tradizio handiko eskualdeko nekazari eta abeltzainen azoka egingo dute, 09:00etatik aurrera. Azoka horrek 127. edizioa beteko du aurreko, eta horren ostean, euskal jantzien erakustaldia egingo dute, 12:00etan. Arrastian bertso-larien txanda izango da; aurreko bosgarren aldiz egingo dute San Antolin bertso-jaialdia. Urtemuga hori ospatzeko, honako bertsolariak gonbidatu dituzte Ontziola plazan kantatzera: Jone Uria, Alaia Martin, Andoni Egaña eta Eneko Lazkoz. Irailaren 2an, berriz, ospe handia hartzen ari den Antolin Deunako koktel-lehiaketa egingo dute eta irailaren 3an, jaien azken egunean, Antolintxuri eta Madalentxuri agur esango diete, kalejira baten ondoren. ◀



Areatza, 54 · Plentzia

Gorrondona

☎ 94 407 69 18

f Gorrondona

dura bueltatuko dira laster!



Abuztuak 24, zapatua

Madalentu eta Antolintxu Eguna

- 11:00** Denak elkartuko dira Plazatxoan; kalejira egingo dute Eleiz plazara, orain arteko Antolintxuakaz eta Madalentuakaz.
Ondoren, meza, Madalentu eta Antolintxu enomena.
- 13:00** Aurtengo Madalentu, Antolintxu, Madalentu Txiki eta Antolintxu Txikiren aurkezpena. Aurrekoa eta dantza-erakustaldia.

Abuztuak 29, eguna

- 14:00** Gazte-bazkaria, Ontziola plazan.
17:30 Txistulariek harrera egingo diete Madalentu eta Antolintxu, Ontziola plazan.
- 18:00** Txupinazoa.
18:00 Dultzaineroen igoera Andra Mariraino, eta bertan, aurrekoa eta zahagi-dantza.
- 20:00** Dantza-saioa, Itxas Eder taldearena, Ontziola plazan.
22:00 Zezensuzkoa, Ontziola plazan.
23:00 Erromeria Zuria, Ontziola plazan.
23:00 Photocall udaletxean.

Abuztuak 30, barikua

- 10:00** Diana.
11:00 Puzgarriak, Ontziola plazan, 14:30ak arte.
- 18:00** Nagusientzako arrastia, bingo eta briska jokoakaz.
21:30 Zezensuzkoa, futbito zelaian.
22:15 Helduen play-back txapelketa Ontziola plazan.
Ondoren, Disc-jockey gaua.

Abuztuak 31, zapatua

- 10:00** Diana.
10:00 Plentziako 49. Marmitako Txapelketan izen-ematearen hasiera, 11:30ak arte.
- 11:00** Umeentzako olinpiadak, futbito-zelaian.
13:30 Marmiten aurkezpena, 14:00etara arte.
17:00 Marmitako-txapelketaren sari-banaketa.
18:30 Umeen play-back lehiaketa, Ontziola plazan.
- 19:30** X. Plentzia Kantari. Kantu-jira, Plentzia Kantagunegaz, Plazatxotik Eleiz plazara, kalez kale.
22:00 Erromeria, Eleiz enparantzan.
22:00 Zezensuzkoa, futbito-zelaian.
22:00 Disc-jockey gaua, Ontziola plazan.

Irailak 1, domeka

- 09:00** Eskualdeko Nekazaritza eta Abeltzaintzaren 127. Azoka.

- 10:00** Diana txistulariakaz eta buru-handiakaz, kalerik kale.
12:00 Euskal Jantzi Tradizionalen Erakustaldia Erribera kaletik, Plazatxotik abiatuta. Madalentu, Antolintxu, Madalentu Txiki eta Antolintxu Txiki gerrikoak eta buruzapiak banatuko dituzte, janzkera ona aitortzeko.
- 13:00** Dantza-plaza, Ontziola plazan.
16:00 Artisautza-azoka, Ontziola plazan.
17:30 V. San Antolin bertso-jaialdia, Ontziola plazan; bertsolariak: Jone Uria, Alaia Martin, Andoni Egaña eta Eneko Lazkoz.
- 19:00** Helduen moztorro-lehiaketa, Ontziola plazan.
22:00 Bakarrizketa-gaua, Eleiz plazan.
22:00 Zezensuzkoa, futbito-zelaian.
23:00 Kontzertuak (zehazteke dauden bi taldek joko dute).

Irailak 2, astelehena

- 10:00** Diana txistulariakaz eta buru-handiakaz, kalerik kale.
10:00 Plentzia La Gallarda II. Familien arteko Herri Krosa, Plazatxotik.
- 11:30** Madalentu eta Antolintxu Udalbatzagaz elkartuko dira Ontziola plazan, Eleiz plazara igotzeko.
- 12:00** Meza nagusia, Antolin Deunaren omenez, eta aurrekoa.
13:00 Udal Musika Bandaren emanaldia.
14:00 Koktel-txapelketa, fanfarreak eta elektro-txaranga alaituta.
- 18:00** Umeentzako erromeria.
22:00 Zezensuzkoa, futbito-zelaian.
23:00 Berbena, Ontziola plazan.

Irailak 3, martitzena

- 10:00** Diana.
10:00 Heriotza bako lantzo-arrantza, Ontziola plazan; izen-ematea, udaletxean.
- 10:00** Tortilla-lehiaketa, umeentzat, Ontziola plazan; izen-ematea, udaletxean.
10:00 Entsalada-txapelketa, umeentzat, Ontziola plazan; izen-ematea, udaletxean.
- 13:30** Tortillen eta entsaladen lehiaketen sari-banaketa, Ontziola plazan.
17:30 Umeen eta familien moztorro-lehiaketa, Ontziola plazan. Ondoren, moztorroren sari-banaketa eta Urrezko Abarkak saria ematea; Madalentu eta Antolintxuren agur-kalejira egin ondoren biak joango dira itsasadarrean barrena; hala amaituko dira jaiak, zezensuzkoaren entzierroaz.
- 00:00** Gazte-olinpiadak, Ontziola plazan.

Centro Mixto
Ile-apaindegia eta estetika

Nobedadeak!
Gorputz eta aurpegi-tratamenduak
Depilazioak: hotza, beroa eta laser

946 774 147 • Erribera 23 • PLENTZIA

G.B. Gorriz Bikar
Pol. Sagastikoetxe Artzeta, 15 • GORLIZ

DENDA ETA KONPONKETA-LANTEGIA • MARKA GUZTIAK

Tel. 946 774 859 • www.gorlizbikar.com • info@gorlizbikar.com

NEW BIBI

Egunero eta asteakabuko menuetan berezitua.
Tradiziozko eskaintza eta pintxoak.

Erribera kalea, 42 • Plentzia 946 588 530

Erribera, 30
946 770 344
PLENTZIA

cafeuriola@gmail.com

- Cafeteria -
URIOLA

Ondizko jaiak Irailak 6-15



© LEIOAKO UDALA

Irailak 6, barikua

18:00 Txupinazoa. Umeei begirako puzgarriak eta tailerrak.
20:00 Sardina-jana.
23:30 Erromeria eta mozerro-lehiaketa.

Irailak 7, zapatua

Andra Mari Eguna
18:00 Umeentzako puzgarriak eta tailerrak.
22:30 Kontzertua.
23:30 Disko-erromeria.

Irailak 8, domeka

Andra Mari Eguna
11:00 Txistularien kalejira.
12:00 Meza eta ohorezko aurrekua.
13:00 Nagusientzako luncha.
18:00 Puzgarriak eta tailerrak.

19:00 Ondizko XII. Emakumezkoen Aurreku-txapelketa eta Bizkaiko 59. Aurreku-txapelketa.

Irailak 9, astelehena

Andra Maritxu Eguna
09:30 Meza eta ohorezko aurrekua.
11:00 Txistularien kalejira.

Irailak 15, domeka

Errepikapena
08:00 Txapelketa: bakailaoa bizkaitar erara. 53. edizioko lursailen zozketa.
10:00 Txistularien kalejira.
13:30 Bakailao-kazolen aurkezpena.
16:00 Igel-tokako txapelketa eta kuartan-lehiaketa.
18:00 Erromeria eta sari-banaketa.
22:00 Jaien amaiera.

Udondoko jaiak Irailak 10-14



Irailak 10, martitzena

09:00 Txupinazoa.
12:00 Mesa Nagusia Ondizko baselizan.
13:00 Aurrekua eta ikurriñaren igoera.
19:30 Udondoko Txikiteroen poteoa.

Irailak 13, barikua

10:00 Txupinazoa eta kalejira.
19:00 Gure Ohiturak dantza-taldea.
20:00 Txokolate-jana eta umeen mozerro-lehiaketaren sari-banaketa.
20:30 Bentazaharreko Mutiko Alaien emanaldia eta mozerro-gaua.
23:00 Kontzertua: Xabi eta Iñigo.

Irailak 14, zapatua

08:00 Txupinazoa.
09:00 XVI. Arrantza Txapelketa. Sariak, txapelketaren amaieran.

09:30 X. Paella Txapelketaren hasiera.

10:30 Nekazaritza-produktuen erakusketa.
11:00 Haize Berriko txistularien kalejira.
11:00 Antzinako auto eta motoen erakusketa.
12:00 Puzgarriak eta umeentzako jolasak Euskal Etxeen plazan.
12:00 Bertso zirikatzaileak.
12:30 Antzinako auto eta motoen ibilbidea.
14:30 Paellen aurkezpena.
17:00 X Mus Txapelketa.
18:00 Umeentzako jolasak.
18:00 Txikientzako talo-tailerra.
18:30 II. Igel-toka txapelketa.
18:30 Leioako Musika Bandaren kontzertua, Euskal Etxeen plazan.
19:00 Aizkolariak.
20:00 Paella-txapelketen sari banaketa.
20:30 Erromeria, Batek daki taldeagaz.

Iñaki Bitxitegia



Montblanc, Longines eta TagHeuer agentzia ofiziala

Villamonte plaza 3
94 430 23 45

Algorta

Telletxe 1
94 460 27 41

digitala
inpresio
Leioa
KOPILEIOA

**Inprimatze Digitala
Formatu Guztietan
Z/b eta Koloretan**

KOPILEIOA

sabino arana 82 - 48940 leioa
tel 944649176 - fax 944014431
monkopileioa@gmail.com

hiruka

HARTU
BOLADA ONA
GUGAZ.
EMAIOZU BULTZADA
ZURE
NEGOZIOARI!

Zure enpresaren edo negozioaren urte osuko
publizitate-kampaina jasotzeko gura baduzu ipini
zaitez gugaz harremanetan:

944 911 337 / 688 811 368 • public@hiruka.es

GETXO | Getxophoto Nazioarteko Irudi Jaialdia

Post *Homo Sapiensa*, azterbide

Irailaren 4tik 29ra bitartean egingo da Getxophoto Nazioarteko Irudi Jaialdiaren hamahirugarren edizioa. *Transhumanismoak* dakartzan ondorioak ardatz izango dituzten hogeia erakusketa inguru egongo dira.

IKER RINCON MORENO ►

Azelerazioko, automatizazioko, adimen artifizialeko eta aurrerapen zientifikoko prozesuek erronka berriak proposatzen dizkigute pertsonoi *transhumanismoaren* kontzeptura hurbilduz goazen heinean. Zelan eragingo digu horrek denak? Galdera horri erantzun gura dio Getxophoto jaialdiaren hamahirugarren edizioak. Hirugarren eta azken urtez Mónica Allende bilbotarra izango da programazio artistikoaren arduraduna, eta, ohi den legez, mundu osoko hainbat artista ospetsuk parte hartuko dute jaialdian, aurtengo gaia askotariko ikuspuntu eta ikusizko lengoia oso desberdinetatik jorratuta: Maija Tammi, Matthieu Gabsou, Neil Harbisson, Haley Morris-Cafiero eta Juno Calypso, besteak beste.

Jaialdiak irauten duen hilabeteen programa pedagogiko oso bat garatuko dute, eta adin denetarako hainbat jarduera eskainiko dituzte, hala nola laborategiak, berbaldiak, tailerrak eta bisita gidatuak. Eremu publikoak ere garrantzia izango du aurtengo, elkartzeko, aisialdirako eta hausnarketarako gunetzat baitu Getxophotok. Kontuak hala, erakusketa gehienak aire zabalean egongo diren instalazioetan egongo dira, beste areto eta gunebatzuk alde batera utzi gabe, betiere. Jaialdiarentzat funtsezkoa da edukiak ikusle-mota denengana heltzea. Horregatik, hainbat bide eta ibilbide proposatuko ditu oinez doako erakusketa horietaz gozatu ahal izateko. Nabarmenezkoa da, baita ere, herri-tarrek parte hartzeko antolatu duten gunea. Gaiari lotutako argazkiak bidali ahal izango dituzte, eta hoberenak Algortako 40 erakuslehotan ipiniko dituzte. ◀



MATTHIEU GABSOU / COURTESY GALERIE C / COURTESY GALERIE ERIC MOUCHET / MAPS.

GETXOPHOTO 2019 IRAILA

4-29 SEPT *POST HOMO SAPIENS.*

NAZIOARTEKO IRUDI JAIALDIA
Komisaria: Mónica Allende
getxophoto.com

Antolatzailea

BEGIHANDI

Babesleak

Getxo

Getxo

Bizkaia

Bizkaia

Bizkaia

Labortaria

GETXO
PHOTO

Hirukira olgetan

SOLUZIOAK:



Itzala

Zein da itzal zuzena?



Esaerak

Eman esaldi bakoitzari dagokion jarraipena, euskal esaera zahar bana osa dezaten.



Kaiola erosten duenak...

- ☐ ... hegaztiak nahigabetzen ditu
- ☐ ... dirua du barra-barra
- ☐ ... txoria gogoan
- ☐ ... kantuz gozatu gura
- ☐ ... katua lagun




Gogoko tokian...

- ☐ ... azterketarik ez
- ☐ ... aldaparik ez
- ☐ ... maitasuna da nagusi
- ☐ ... arerioak lagun

Hamarrekoa

Topa itzazu irudi bien artean dauden hamar aldeak.



Hamabikoa

Neska-mutilok ikasgelatik atera eta liburutegira doaz sokari helduta...


Bilatu

Uharte galduetan uste baino gauza gehiago topa daiteke.
Hemen zenbatuta ikusten dituzun elementu asko irudi nagusian ere badaude, eta beste batzuk, aldiz, ez. Bereiz itzazu.



Marraztu

Itsaspean ere gauza asko topa daiteke: itsaslaminak, arrainak, olagarroak, altxorrak, urpekariak... Marraztu ezazu gura duzuna, eta gero, margotu.



Sudokua

Osa ezazu sudokua, BI AUTO hitzak osatzen dituzten hizkiak erabiliz (B, I, A, U, T eta O). Gogoratu, letra bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.

	I	T	O	B	A
			I		
I		O			B
B			T		O
		I	U		
	O	U	B	A	



Lehiaketa **Non dago?**

Uribe Kostako irudi honetan zer ageri den igarriz gero, beheko saria irabaz dezakezu.

Argazkia NON egindakoa den badakizu?



Saria Umeentzako liburuak

Ibaizabal argitaletxeari esker, 6 urtetik aurrerako umeentzako hainbat liburu zozkatuko ditugu. Sari hori irabazi gura baduzu, uztailaren 16a (martitzena) baino lehenago bidali erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bide bat hona: hiruka@hiruka.eus edo 944 911 337.

Bidali zure argazkiak eta lortu sari itzelak!

HIRUKAk antolatu duen zozketan parte hartzeko, zure udako argazkiak www.hiruka.eus webgunearen bidez aurkeztu beharko dituzu.



Nekazalturismo Elkartea • Euskadiko nekazalturismo eta landa-etxeak
Asociación Nekazalturismoa • Agroturismos y Casas Rurales de Euskadi

www.nekatur.net

Oinarriak

Parte-hartzaileak: Uribe Kostan jaio edo bizi diren 18 urtetik gorakoak.

Noiz eta zelan aurkeztu: Uztailaren 5etik irailaren 6ra (biak barne), www.hiruka.eus webgunearen bidez.

Zozketa: Saridunak zozketa bidez aukeratuko dira, eta irailaren 13an ezagutaraziko dira.

Sariak

Lehenengoarentzat: Bi pertsonarentzako gau biko egonaldi bat,

NEKATUR Nekazal Turismo elkarteko ostatu batean, logela edo apartamentuetan (Orlegi Bonoa). Egonaldia aste-akabuan zein aste barruan izan daiteke (behe-denboraldian).

Bigarrenarentzat: Bi pertsonarentzako gau biko egonaldi bat, gosaria barne, Plentziako **Casa de Marinos** hotelean (behe-denboraldian).

Hirugarrenarentzat: Algortako **Aukera Okerra** musika-taldearen kamiseta eta binilo bana.

Uribe
Kostako
oporzaleen
uda irudikatu
gura dugu!

EUSKADIKO NEKAZALTURISMO ETA LANDA-ETXEAK



Nekaturrek eskeintzen dizu:

- Erreserben doako kudeaketa (logelak, apartamenduak, etxe osoak)
- Opari bonu eta txokeen salmenta
- Eskaintza eta Deskontuak Euskadiko erakunde turistikoetan
- Turismo edo/eta lan bidaietarako ostatuak
- Enpresa bileretarako edo opari bezala
- Eta askoz gehiago...

EUSKADI

☎ 943 32 70 90



www.nekatur.net



IBILI

Aukeratzeko librea zara.

**Barizeetarako teknologiarik
aurreratuena laserrarekin eta
kirurgiarik gabe.**

**Ordu bat baino gutxiago eta oinez
irtengo zara.**

20
aniversario

dermitek
KLINIKA + DERMATOLOGIA

**Isrozaki Dorreak, Urbitarte Pas, 11-12
BILBAO
T 94 401 01 10**

www.dermitek.com